



Consejo Económico
y Social Vasco

Euskaliko Ekonomik eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

EAE-KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 2023

Laburpena eta Ondorioak



LABURPENA

I. DEMOGRAFIA

EUSTATen *Biztanleen Udal Estatistikako* (BUE) datuen arabera¹, EAeko biztanleria 2.196.745 pertsonakoa da 2023ko urtarrilaren 1ean, hau da, 2022an baino 10.228 (+% 0,5) gehiago. Horrela, aurreko bi urteetako joera alderantzikatu da: 6.682 pertsona galdu ziren 2022an eta 6.512 2021ean. Lurraldeka, biztanleria-hazkunderik handiena Bizkaian izan da, 2022an baino 4.810 egoiliar gehiagorekin (+% 0,4), 1.144.019 guztira; ondoren, Gipuzkoa, 719.875 biztanlerekin, aurreko urtean baino 3.259 pertsona gehiagorekin (+% 0,5); eta azkenik, Araba, non hazkundera 2.159 biztanlekoa izan den, 332.851 biztanle guztira (+% 0,7).

Bestalde, EUROSTATen kalkuluen arabera, COVID-19aren eraginaren ondorioz EBn 2020an eta 2021ean gertatu zen hazkunde demografikoaren lehen etenduraren ondoren, EB27ko biztanleria berriro hazi zen 2021ean; 2022ko urtarrilean 446,7 milioi izatetik 2023ko urtarrilean 448,4 milioi izatera igaro zen (milako +3,8). Saldo begetatibo negatiboa (heriotzak gehiago jaiotzak baino) (milako -2,8) aise konpentsatu da migrazio-saldoarekin (milako +6,6), COVID-19 osteko migrazio-mugimenduengatik eta EBko estatu kideen babesa jaso zuten Ukrainatik etorritako pertsonen desplazamendu masiboengatik, Errusiak 2022ko otsailean haien herrialdea inbaditu ondoren.

Berriro ere EAEn, 2022rako behin-behineko datuek adierazten dute hazkunde naturala (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) negatiboa izan dela EAEn, hamargarren urtez jarraian, aurreko hamarkadan bilakaera positiboa izan ondoren: aurretik 13.636 jaiotza erregistratu dira, aurreko urtean baino % 4,4 gutxiago, eta 24.194 heriotza, 2021ean baino % 4,9 gehiago. Datu horien ondorioz, hazkunde begetatiboa -10.558 biztanlekoa izan da, hots, milako -4,9koa. Saldo negatibo hori 2020koa baino 6 hamarren handiagoa da, ordura arteko handiena izanik, COVID-19ak eragingandako heriotzen gorakadaren ondorioz.

Bestalde, EUSTATen 2022ko *"Migrazio Mugimenduen Estatistikak"* (MME) COVID-19aren 2020ko inpaktuaren ondoren 2021ean hasitako susperraldiaren sendotzea nabarmentzen du, urte horretan migrazioak nabarmen murriztu baitziren, barrukoak zein kanpokoak. 2022an, gure erkidegoak 22.171 pertsona irabazi zituen guztira (2021ean baino % 517,9 gehiago; urte horretan 3.588 irabazi baitziren). Lurraldean arabera, Bizkaiak 11.818 lagun gehiago ditu, Arabak 3.371 eta Gipuzkoak 6.982.

...

Immigrazioari dagokionez, Ikuspegik esku hartzen duen EINren datuen arabera², 2023ko urtarrilaren 1ean 274.142 atzerritar bizi dira EAEn (guztizkoaren % 12,4); beraz, bederatzigarren urtez jarraian 20.203 pertsona gehiago daude (+% 8), 2021-2022 biurtekoan gutxieneko hazkundeak izan ondoren, COVID-19ak dinamika demografikoetan izan zuen eraginaren ondorioz. Azken urteko igoera serie historikoko bigarren kopururik handiena da, eta horrek esan nahi du etorkinen etorreraren erritmoa suspertzen ari dela, eta berriz ere pandemia aurreko balioak hartzen ari dela. 2023ko urtarrilean Euskadin bizi diren atzerritar jatorriko 274.142 pertsona horiek biztanleriaren % 12,4 dira, 2022an baino 9 hamarren gehiago; Estatuan, berriz, ratioa 1,2 puntu hazi da, % 17,1era iritsi arte.

¹EUSTATen *Biztanleen Udal Estatistikak* Biztanleen Udal Erroldaren administrazio-erregistroak erabiltzen ditu iturri nagusi gisa, eta errolda-arteko udaletako informazio demografikoa eguneratuta mantentzen du.

²Ikus kapitulu honen 1. orri-oina.

Nazionalitateen arabera, 2023an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean, zortzi Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Nikaragua, Venezuela, Bolivia, Honduras, Ekuador, Paraguai eta Peru), bat EBkoa (Errumania) eta bat Afrikakoa (Maroko). 2023an, eta zenbait urtez Maroko nagusi izan ondoren, kolonbiarra da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn, 34.473 pertsona baitaude erroldatuta (2022an baino 5.734 gehiago), eta EAeko atzeritar jatorriko pertsonen % 12,6 dira. Bigarren jatorria marokoa da, gutzitza % 11,3, eta, distantzia nabarmen batera, Nikaraguak gure erkidegoan erroldatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 6,1 ditu.

Fenomeno horren pertzepzio sozialari dagokionez, ikuspegik jakinarazi du euskaldunek ez dutela immigrazioa arazotzat hartzen. % 1,7k baino ez du aipatzen berez EAeko lehen arazo gisa (% 2,8 2022an), eta aipamen guztiak % 5,9koak dira (% 6 2022an), gehienez hiru erantzun. Iradokizun modura, elkarrizketatutako biztanleen % 4,7k aipatu du; 2022an, berriz, % 5,7k.

Enpleguari dagokionez, immigrazioarekiko ikuspegi funtzionala lan-merkatuari dagokionez, nabarmen higatu zen 2008an hasitako krisiaren ondorioz: 2004an, % 80ak uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko; 2014an, berriz, % 30,4ak bakarrik uste zuen hori. Gorabehera batzuekin, 2015az geroztik, ordea, berriro hazi zen ikuspegi utilitarista hori, 2023an % 69,8raino iritsi arte (2022an lortutako daturik handiena baino 6,2 puntu gutxiago). Antzeko zerbait gertatzen da beste baieztapen batekin ere, hain zuzen etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela. 2014an % 32,8 zegoen ados baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratorik txikiena) eta, berriz ere zenbait gorabehera izanik, % 71,4raino iritsi da 2023an (2022an baino 6,2 puntu gutxiago).

Ikuspegiren ustez, 2022ko emaitza izugarri onak, aldagai horietan eta erlazioatutako beste batzuetan, Ukrainatik etorritako pertsonen aurrean euskal biztanleriak emandako erantzun positiboaren ondorio izan ziren, eta Ukrainako gerraren kronifikazioak eta asilo-eskaeren egonkortzeak eragindako gizarte-larrialdia desagertu ondoren, euskal biztanleriaren jarrera horiek 2021eko mailetara itzultzen dira, atzeritar jatorriko pertsonetako jarrerei eta pertzepzioei dagokienez.

Azkenik, urteko inkestan bildutako datuak oinarri hartuta, IKUSPEGIK euskal biztanleriak immigrazioarekiko duen "tolerantzia-indizea" egin ohi du. 2020ko Barometroak 2019koak baino indize handiagoa eman zuen (65 puntu, aurreko urteko 60,67 puntuen aldean), serie historikoko handiena da. Bilakaera horri dagokionez, IKUSPEGIren txostenak ondorioztatu zuen indize horretan lortutako emaitzak ordura arte oso lotuta egon zirela dinamika makroekonomikoei. Hala ere, 2020an hasitako COVID-19aren krisiak lotura hori hausten zuen egoera berritzaile bat ekarri zuen; izan ere, ekonomiaren gainbeherak ez zuen tolerantziaren beherakada ekarri, kontrakoa baizik. Indizea 2021ean eta 2022an hazi zen berriro, 69,3raino. 2022ko gorakada nabarmena, hein batean, behintzat, Errusiak Ukrainan egindako inbasioaren eta ukrainarrak asilo eta aterpe bila iristearen ondorioz etorri zen. 2023an tolerantzia-indizea 66,4ra jaitsi da (-2,9 puntu), eta adierazle horretan ere 2021eko mailak berreskuratu dira.

...

Demografiaren gaia da, gaur egun, gizarte-trantsizioan eragin handiena duen faktoreetako bat. Familia, Emantzipazioa, Gizarte-politikak, Etxebizitza, Enplegua, Haur-hezkuntza eta antzeko politika sektorialek zuzenean eragiten duten erronka bat. Gazteek emantzipatzeko eta bizitza autonomoko proiektu bat garatzeko dituzten baldintzak aztertzea xede duen funtsezko adierazle bat. Kapitulu honetan ikusi den bezala, Euskadi ugalkortasunari eta jaiotza-tasari buruzko daturik baxuenak dituen Europako herrialdeen artean dago. 2021ean, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sailen arteko gogoeta-prozesu bat bultzatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta erakundeen artekoa, foru-aldundiekin, erronka demografikorako euskal estrategia baten edukiak definitzeko. Prozesu hori 2022ko ekainean amaitu zen, "Erronka demografikorako Euskal Estrategia 2030" onetsi zenean.

Hau da dokumentu horren abiapuntua: Euskadin orain arte garatu diren sailtako politika batzuek (enpleguko, etxebizitzako, hezkuntzako, osasuneko edo gizarte-zerbitzuetako sektore-politikak; hainbat sektoretan edo biztanleria-taldetan oinarritutako politikak, hala nola gazterian, haurtzaroan eta familietan, migratzaileetan eta asilo-eskatzaileetan; eta zeharkako politikak, hala nola berdintasun-politikak) erronka demografikoari heltzen laguntzen dute, baina estrategia integratu eta koherente batean artikulatu eta optimizatu behar dira, jarduketa-sorta hori bateratu eta demografia-auziari modu autonomoan helduko diona, sailen eta erakundeen arteko zentzu- eta ikuspegi-batasunarekin.

Biztanleriaren zahartze-joera azpimarratzen da, gazteen emantzipazioaren batez besteko adinean ez da aurrerapen nabarmenik gertatu, eta jaiotza-tasetan ere ez da aldaketa aipagarriarik hauteman, familiek nahi dutenean nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten laguntzeko irizpidearen ildotik.

Euskadiko datuen arabera, Europar Batasunean balantze demografiko txarrena duten herrialdeen artean gaude, eta, beraz, larrialdi baten eta erronka sozial oso garrantzitsu baten aurrean gaude. Horri gehitu behar zaio Espainiako Estatuan eta Euskadin ELGAko batez bestekoaren azpitik gaudela, familian inbertitzera bideratutako BPGd-aren ehunekoari dagokionez. Konparazioan, balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizi egiten dira, baliabide gehiago bideratzen dituztelako gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzera, askotariko neurriekin, eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak ematen dizkietelako seme edo alaba bakoitzeko. Horrez gain, bateragarritasun-neurriak sustatzen dituzte, migrazioaren etorrera eta gizarteratzea eta laneratzea errazten dute, eta, bestalde, zahartze aktibo eta osasungarriko politikak bultzatzen dituzte, adinekoen autonomia sustatzen dute, edo landa-ingurunearen potentziala birbalioesten dute.

Estrategiaren Jarduketa-plana³ hiru bloke handitan banatzen da. Lehenengoaren ardatza jarduketa berriak bultzatzea da. Haren helburua da datozen urteetan joera negatiboan aldaketa bat eragitea, bai emantzipazio-adinean, bai jaiotza-tasetan, epe ertainean gainbehera demografikoko egoera batetik susperraldi demografikoko agertoki batera igarotzea errazteko. Lehenengo gauza, beraz, joera-aldaketa bat lortzea da, epe laburrean. Bigarrena da bermatzea helburu horretara bideratutako jarduketak iraunkorrak eta jasangarriak izango direla ibilbide luzean ere.

Bigarren multzoak azpimarratzen du ibilbide luzeko eragin-irizpidearekin abian dauden jarduerak indartu behar direla, honako hauei dagokienez: gazteen emantzipazioa, familia-proiektuen eraikuntza, adinekoen bizitza autonomoa eta betea sustatzea eta migrazioaren gizarteratzea. Azkenik, zeharkako jarduera-ildo batzuk zehazten dira landa-balioa handitzeari, prospekzioari, zabalkundeari eta komunikazioari eta Estrategiak kalkulaturako aurrekontuari, jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez.

2024ko otsailean, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Trantsizioaren eta Agenda 2030en Idazkaritza Nagusiak "*Erronka Demografikorako 2030 Estrategiaren 2023ko Jardueren Memoria*" aurkeztu zuen, eta, laburbilduz, helburuen eta egutegiaren betetze-maila altua dela nabarmendu zuen. Estrategian aurreikusitako 36 jarduketetatik 3k ez zuten helbururik finkatuta 2023a amaitu baino lehen. Gainerako 33etatik 29tan bete da egutegia, eta gainerako 4ek 2024ra atzeratu dute martxan jartzea. Estrategia bultzatzeko 2023an metaturako aurrekontua 230,46 milioi eurokoa da.

³ Aurreikusitako helburuak eta jarduketak zehatzago azaltzeko, [estrategiaren dokumentura](#) jotzen da.

II. EKONOMIA

2023an munduko jardura ekonomikoa pixka bat gelditu zen arren, eremu geografikoen artean heterogeneotasun handia izan zuen, adibidez, Ameriketako Estatu Batuetan eta Txinan erregistratu zen azelerazioa Eurogunearen hazkunde ekonomikoaren geldotasunarekin kontrastatuz. Hala, NDFren kalkuluen arabera, munduko BPGd-a % 3,1 hazi zen 2022tik 2023ra bitartean, termino errealean, aurreko urtean baino ehuneko lau hamarren gutxiago. Ekonomia aurreratuen BPGd-a % 1,6 hazi zen urtetik urtera eta bolumenean, non Euroguneko BPGd-a % 0,5 hazi zen, AEBkoa % 2,5 eta Japoniakoa % 1,9. Hazten eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomietan, igoera % 4,1ekoa izan zen, Asiako ekonomia berriak % 5,4 hazi dira (Txina % 5,2 hazi zen eta India % 6,7), Europakoak % 2,7 eta Latinoamerika eta Karibekoak % 2,5. Errusia, bestalde, % 3 hazi da.

Merkataritza-trukeei dagokienez, munduko merkataritza % 0,4 hazi zen 2022rekin alderatuta, aurreko urteko % 5,2ren aurrean.

Inflazioari dagokionez, apaltze-bideak mundu-mailan jarraitu egin zuen 2023an. Alde batetik, pandemia ondorengo lehengai energetikoen jaitsierekin eta nazioarteko merkataritzako botila-lepoen mailaz mailako konpontzeak prezioak apaltzen lagundu dute. Beste alde batetik, politika monetarioa gogortzeak, lurralde mugatuan mantentzeak eta finantzaketa-baldintzetara aldatzeak presio inflazionistak arintzen lagundu dute. Horiek horrela, ekonomia aurreratuetan inflazio orokorra % 4,6koa izan zen eta % 8,4koa hazten eta garatzen ari diren ekonomietan.

Brent upelaren prezioa % 19,2 jaitsi zen 2022tik 2023ra. Urtarrilean prezioa 82,8 dolar/upela zen, irailean 94,5 dolar/upela preziora igo zen eta ekainean eta, azkenik, 80,3 dolar/upela prezioarekin amaitu zen urtea. Elikagaien prezioak % 12,6 gutxitu ziren eta industria-produktuenak % 19,9, biak ere dolarretan neurtuta.

Testuinguru horretan, Japoniako Bankuak eta Ameriketako Estatu Batuetako Erreserba Federalak esku-hartze tasak mantendu zituzten, lehenengoak -% 0,1en 2023an eta bigarrenak % 4,5en. Bere aldetik, Europako Banku Zentralak handitu egin zuen, % 4,5en kokatu arte. Euroguneko moneta-merkatuko interes-tasei dagokienez (gordailuak), positiboak dira urteko batez bestekoan, epe guztietan; zehazki, 2023ko abenduan, Euriborra honela kokatzen da: hilabetera +% 3,86; 3 hilabetera +% 3,94; sei hilabetera +% 3,93 eta urtebetera +% 3,68.

Bestalde, Espainiako Bankuaren "Estatistika Aldizkariaren" datuen arabera, finantza-erakunde monetarioek EBU bizi diren etxeei emandako interes-tasa 2022tik 2023ra igo egin zen kontsumorako kredituen kasuan, % 6,36tik % 8,22ra, eta etxebizitzarako kredituen kasuan, % 2,33tik % 3,99ra.

Dibisen merkatuari dagokionez, euroak balioa handitu zuen AEBko dolarraren eta Japoniako yenaren aldean eta libera esterlinaren aurrean balioa galdu zuen. Zehazki, dolarraren benetako kanbio-tasa 1,090 dolar/euro izan zen 2023ko abenduan, eta 2022ko abenduan, berriz, 1,059 dolar/euro. Horrek esan nahi du, euroak dolarrarekiko % 2,9n handitu zuela balioa.

Burtsa-merkatuetan, Euro Stoxx zabalak eta Ibex 35ek igoerak izan zituzten 2022 eta 2023 artean.

Eurogunean, BPGd-aren aurrerapena nabarmenki moteldu zen eta % 0,5eko hazkundera izan zuen (2022an, aldiz, % 3,4koa). Hala ere, egoera heterogeneoa izan da herrialdeen artean. Alde batetik, bereziki ahulak izan ziren Europa erdialdeko eta iparraldeko herrialdeak eta, hala, BPGd-an atzerakadak izan zituzten Austriak, Finlandiak, Suediak eta Alemaniak. Beste alde batetik, Frantziak eta Italiak dezelerazioak erregistratu zituzten; hazkunde-tasak % 1 baino zertxobait txikiagoak izan ziren 2023an. Azkenik, Europa hegoaldeko herrialde batzuek, besteak beste, Espainiak, Greziak eta Portugalek, hazkunde-erritmo azkarragoak izan zituzten, % 2 ingurukoak, baina aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren.

Testuinguru horretan, Euroguneko administrazio publikoek BPGd-arekiko duten zorra % 88,6ra iritsi zen 2023an. Ratorik handienak herrialde hauetan eman ziren: Grezian (% 161,6), Italian (% 137,3), Frantzian (% 110,6) eta Espainian

(% 107,7); eta txikiak Estonian (% 19,6), Bulgarian (% 23,1) eta Luxenburgon (% 25,7). Defizitari dagokionez, Eurogunean 2023an BPGd-aren % 3,6an kokatu zen. Ratio altuenak Italian (% 7,4), Hungarian (% 6,7), Errumanian (% 6,6) eta Frantzia (% 5,5) izan ziren. Danimarkak, Ziprek, Irlandak Portugalek superabita izan zuten.

Espainiako ekonomiak jarduera mugatzen duten askotariko faktoreen efektua sufritu zuen; horietatik, azpimarratzekoak dira finantzaketa-baldintzak gogortu izana, Eurogunearen dezelerazio markatua eta pandemiaren ostean ekonomia berreraikitzeari lotutako sustapena bukatu izana. Modu horretan, BPGd-aren aurrerapenaren erritmoa moteldu egin zen 2023an, eta urteko batez bestekoa % 2,5ekoa izan zen (2022an % 5,8n erregistratu zen). Hala eta guztiz ere, Espainiako BPGd-aren aurrerapen-erritmoa Euroguneak baino handiagoa izan zen; horren arrazoi nagusia da eskaerak sustapen handiagoa izan zuela eta energia-shockaren aurreko erresilientzia handiagoa izan zela. Zehatzago esanda, Espainiako ekonomiak zerbitzuen ekoizpen-egituraren pisu handiagoaren onurak jaso zituen, industria-adarrekin alderatuta, erritmo handiagoan hazi baitzen.

Finantza publikoei lotuta, administrazio publikoek orokorrean 53.159 milioi euroko defizitarekin itxi zuten 2023. urtea; horrek esan nahi du BPGd-aren ratioa % 3,6koa izan zela, 2022ko % 4,7koa baino txikiagoa. Bereizita, agente guztiek defizitarekin itxi zuten 2023a: administrazio zentralak BPGd-aren % 2,1ekin (2022an handiagoa izan zen, % 3,1), autonomia-erkidegoek % 0,9ekin (2022an handiagoa, % 1,1), Gizarte Segurantzak % 0,6ekin (2022an txikiagoa, % 0,4) eta toki-korporazioek % 0,1ekin (2022an ratio berbera).

Eraldaketa Digitalaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioaren arabera, diru-sarrera publikoak aldekoak izan direlako, posible izan da laguntza-neurriak aplikatzea eta defizitaren murrizketa bateragarriak izatea. Baliabide publiko guztiak % 9 hazi ziren 2023an, nagusiki, zerga zuzenen aurrerapenak sustatuta (PFEZ eta Sozietateak, beste batzuen artean), % 11 hazi zirenak. Zeharkako zergek (BEZa eta bereziak, beste batzuen artean) aurrerapen apalagoa izan zuten (% 3,3).

Orain, **EAEko ekonomiaren bilakaera** azalduko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioko (JEGID) azken datuek, 2023ko urtarrilekoak, EAEko 149.070⁴ enpresa aktibo zenbatu dituzte, 928.042 pertsonari lana ematen dietenak; beraz, batez besteko tamaina 6,23 enplegukoa da enpresa bakoitzeko. 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko urtarrilaren 1era, enpresa-kopurua % 1,3 gutxitu zen (2.018 enpresa gutxiago) eta langileek bariazio positiboa erregistratu zuten (+% 1,8).

EUROSTATEK argitaratutako Key figures on European business – 2022 edition txostenaren arabera, 2019an 23,2 milioi enpresa zeuden EBko finantzakoa ez den enpresa-ekonomian. Guztira, 131,5 milioi pertsona enplegatzen zituzten. Ondorioz, batez besteko tamaina 5,7 enplegukoa zen enpresa bakoitzeko (EAEn urte berean tamaina 5,79 enplegukoa izan zen enpresa bakoitzeko).

Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresei dagokienez, datuen arabera, 2023ko abendu amaieran langileak zituzten enpresak 57.911 izan ziren, hau da, 2022ko aldi berean baino % 0,2 gehiago (91 enpresa gehiago). Jarduera-sektoreen arabera, lehen sektorean (-% 0,2) eta industrian (-% 1,5) jaitsi egin zen eta eraikuntzan (% 0,8) eta zerbitzuetan (% 0,3) hazi egin zen.

Eustaten Kontu Ekonomikoek erakusten dutenez, EAEko BPGd-aren urte arteko hazkundera % 1,8koa izan zen 2023an. Lehenengo hiruhilekoan urte arteko % 2,4ko hazkunde-tasarekin hasi zen urtea, bigarren hiruhilekoan hazkundera moteldu egin zen (+% 1,5) eta urtearen bigarren zatian pixka bat hobetu zen, urte arteko % 1,7ko hazkunde-tasekin, bai hirugarren hiruhilekoan, bai laugarrenean ere. Hazkunde hori (% 2,4) Espainiako ekonomiarako zenbatetsitakoa (% 2,

⁴ Enpresa: Establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, nortasun juridiko propioa duen edozein sozietate, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean egiten baitira jarduera horiek. 2012. urtetik aurrera EUSTATen estatistikan lehen sektoreko enpresak sartzen dira.

INEn arabera) baino txikiagoa da, baina Eurogunekoa eta EB27 osokoa (% 0,4, bi kasuetan, EUROSTATen arabera) baino handiagoa.

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren informazioaren arabera, EAEko⁵ ekonomiaren termometroak 110,9 puntuko balioarekin hasi zuen 2023. urtea, hau da, hazkunde sendoko eremuan, baina beheranzko joerarekin. Hala, martxoan hazkunde leuneko eremuan sartu zen, 98,2ko balioarekin, eta beheranzko joerari eutsi zion abuztura arte, 85,7 puntuko balioarekin. Irailean eta urrian hobera egin zuen zertxobait, baina urteko azken bi hilabeteetan puntuak galdu zituen berriro. Termometroak 83,1 puntu erregistratu zituen abenduan, eta hazkunde leuneko eremuan mantendu zen, baina 2,9 puntu galdu zituen aurreko hilabetearen aldean.

Barne-eskariaren portaera ez da BPGd-arena bezain positiboa izan, % 1,7ko hazkundera izan baitu 2023. urte osoan. Hala, kanpo-eskariak BPGd-aren hazkunderari egiten dion ekarpena positiboa izan da (0,1 puntu).

Kapital-eraketa gordina da dinamismo handiena duen agregatua, eta, 2023. urte osoan, urte arteko aldakuntza-tasa % 2,1ekoa da. Ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioa ere % 2,1 hazi da, eta kapital-eraketa gordinaren gainerakoa hartzen duen agregatua, eraikuntzari lotuago dagoena, % 2. Hala eta guztiz ere, hiru agregatuen hazkundera moteldu egin da iaz erregistratutako ratioekin alderatuta.

Gastu pribatua % 1,5 hazi zen (2022an, % 7,7). Bere aldetik, kontsumo publikoa % 1,8 hazi zen, 2022ko ratioa baino 1,1 puntu gaineretik. Gastu pribatuaren eta gastu publikoaren baterako bilakaerak azken kontsumoko gastuaren % 1,5eko hazkundera ekarri du (2022an % 6ko hazkundera erregistratu zen).

Kanpoko sektorearen bilakaeran “Kanpo-merkataritzaren Estatistikak” (Aduanen Erregistroetan oinarritua) atzerriarekiko (ez du barne hartzen estatuaren gainerakoa) ondasunen kanpo-merkataritzari buruz ematen dituen behin-behineko datuek erakusten dute 2023an esportazioak % 0,3 hazi direla (32.645 milioi euro guztira). Esportazio ez energetikoak (guztizkoaren % 94) % 3,4 hazi dira, baina energetikoak % 31,2 jaitsi dira. Paraleloki, inportazioak (26.796,5 milioi euro) % 8,9 gutxitu dira 2022rekin alderatuta. Inportazio ez energetikoak (guztizkoaren % 74,5) eta energetikoak jaitsi egin dira, hurrenez hurren, % 4,1 eta % 20,5.

EAEko kanpoko merkataritzak 5.848,4 milioi euroko saldo positiboa izan zuen, % 121,8ko estaldura-tasarekin.

Eskaintzaren ikuspegitik, agregatu makroekonomiko handi guztiek, lehenengoak izan ezik, 2023an urte arteko bariazio positiboak erregistratu dituzte, baina 2022an erregistratutakoak baino txikiagoak dira.

Benetako zifretan, industriako balio erantsi gordinak % 0,3 erregistratu du, eta 2022an % 4,7 erregistratu zuen. Manufaktura-industria pixka bat azkarrago hazi da (% 0,5), baina 2022koaren azpitik kasu honetan ere (% 4,4). EAEko industriaren balio erantsi gordinaren igoera hori EINen estatu osorako erregistratu zuenaren azpitik egon da (+% 1,8).

KPIren urte arteko aldakuntza metatua 2023ko abenduan 2022ko abenduarekin alderatuta +% 0,2koa zen EAE osorako, eta aurreko aldian, berriz, +% 5,7koa izan zen.

EAEko industriaren teknologia-mailari dagokionez, datuek frogatu dute urteetan zehar hazi egin dela EAEn maila teknologiko⁶ ertain eta altuko sektoreetan laneratutako langileen kopurua. Hala, 2022an sektore horietako langileak %

⁵ Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak egindako adierazle sintetiko berria da. EAEko BPGarekin korrelazio handia duten hileko ehun aldagai inguru konbinatzen ditu. Serieak leundu egin dituzte, eta, beraz, aldagaiaren joera gisa uler daiteke haien ibilbidea.

Desazkundera: $x < 50$

Hazkunde leuna: $50 < x < 100$

Hazkunde solidoa: $x > 100$

⁶ ELGaren sailkapenaren arabera (EUSTATEk erabiltzen duena), maila teknologiko altuak 1 hartzen du barne. Farmazia-produktuen fabrikazioa, 2. Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Ertain-altuan 4 daude. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipa elektronikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen fabrikazioa, 7. Garraiorako beste material batzuen fabrikazioa, untzigintza eta aeronautikako eraikuntza izan ezik, eta 8. Medikuntzako eta odontologiako tresnak eta hornidurak egitea. Ertain-altuan 4 daude. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipa elektronikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen fabrikazioa, ibilgailuen

32,4, ziren, 2021ean % 32,1 eta 2017an % 31,1. Hala eta guztiz ere, 2022ko datuen arabera, sektore horien garrantzia gutxitu egin zen BEGf-n eta salmenta garbietan. Modu horretan, ratioak % 32,7tik % 30,4ra eta % 31,3tik % 28,3ra igaro ziren 2021 eta 2022 artean.

Eraikuntzaren sektorea % 2,1 handitu da (2022an, % 6,7). Eraikuntzaren egoera-indizeari buruzko urteko balantzeak urtetik urterako % 5,6ko hazkundera erakusten du lan-egutegiko zenbaki homogeneotan; % 5,1 igo da eraikuntza, eta % 8,8 obra zibila.

Zerbitzuen sektorea % 2,4 hazi da urtetik urtera (2022an, % 5,9). Merkatuko zerbitzuak hazi egin dira, baina hazkundera moteldu dute 2022ko tasekin alderatuta eta, kontrara, merkatukoak ez diren zerbitzuak hazi egin dira eta aurreko urteko tasen gainetik, gainera. Hala, Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren adarrak 2023 osoan % 3,7ko hazkundera erregistratu du (2022an % 14,6) eta Gainerako zerbitzuen adarreko (higiezin jarduerak, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak eta finantzarioak eta aseguruetakoa) jarduerak urte arteko % 1,6ko hazkundera erregistratu dute (aurreko urtean, % 3,2). Bere aldetik, Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak adarra % 2,3 hazi da, 2022an erregistratutako hazkunde-tasaren ehuneko 1,4 puntu gainetik.

EUSTATen Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizearen datuek erakusten dutenez, 2022tik 2023ra bitartean txikizkako merkataritzaren salmentak % 0,9 igo dira (lan-egutegiaren termino homogeneotan eta prezio finkoetan), aurreko urtean baino hazkunde-ratio txikiagoa (+% 2,9). Zerbitzuguneak alde batera utzita, salmentak % 1,3 hazi dira (+% 2,6 aurreko aldiari). Elikaduraren sektorean, 2023an metatutako salmentak 2022an izandakoak baino % 1,2 handiagoak izan dira. Bestalde, gainerako produktuen sektoreko txikizkako merkataritzaren salmentak % 1,4 hazi dira eta automobilgintzarako erregaiarenak % 3,6 gutxitu dira.

Bere aldetik, Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizeak % 1,3ko gehikuntza erregistratu du eta azken bi urteetako beheranzko joera moztu du. Gehikuntza horren arrazoa elikagai-produktuen salmenten egoera izan da (+0,1). Kontrara, gainerako artikuluetako salmentak % 0,5 gutxitu ziren.

EUSTATEN Establezimendu turistiko hartzaileen inkestaren datuek diote 2022ko EAEko establezimendu turistikoetako (hotelak, landa-etxeak eta apartamentu turistikoak) sarrerak eta ostatu-gauak gehitu egin zirela eta 2019ko zifrak ere gainditu egin zituztela, eta 2023an berriro hazi dira. Zehazki, 2022 eta 2023 artean, aldagai bakoitza % 23,7 hazi zen. Hala, 2023an 4.259.113 sarrera izan ziren eta 8.689.200 ostatu-gau guztira. Sarreren % 86,6 eta ostatu-gauen % 83 hoteletan izan ziren.

Finantza-sektoreari dagokionez, Espainiako Bankuaren datuen arabera, administrazio publikoen titulartasunekoak diren gordailuen saldo osoa 9.955 milioi eurokoa izan zen EAEn 2023 bukaeran. Horrek esan nahi du urtean % 1,2ko igoera izan zela, eta estatuko gordailuen % 10,4 dira. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen balioa 86.343 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 1,7ko jaitsiera izan zuen aurreko aldiarekin konparatuta, eta % 6,1eko ratioa estatuko guztizkoaren gainean. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate desberdinen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epera eta aktiboen aldi baterako lagapena), hauxe ikusiko dugu: % 75,9 ageriko gordailuak dira, % 12,5 eperako gordailuak eta % 1,3 aktiboen aldi baterako lagapenak. Aurreko hiru urteetan gertatutakoaren kontrara, 2023an ageriko gordailuak % 9,5 gutxitu ziren, eta eperako gordailuak % 92,3 hazi ziren.

fabrikazioa, 7. Garraiorako beste material batzuen fabrikazioa, untzigintza eta aeronautikako eraikuntza izan ezik, eta 8. Medikuntzako eta odontologiako tresnak eta hornidurak egitea. Baxu-erdiak 9 ditu. Grabatutako euskarrien erreproduktzioa, 10. Kokeriak eta petrolio fintzea, 11. Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 13. Ontzigintza, eta 14. Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Baxuak 15 hartzen ditu. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta jantzigintzaren industria. Larruaren eta oinetakoen industria. Zuraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarigintza, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Sailkatu gabe.

Gordailu-erakundeek administrazio publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen aurrean emandako kredituaren saldo bizia % 4,9 jaitsi da (69.903 milioi eurotik 66.465 milioi eurora). Beherakada hori administrazio publikoei (-% 6) eta sektore pribatuari (-% 4,8) emandako kredituaren saldoaren jaitsierak eragin du. Azken hori guztizkoaren % 86,7 da.

EINen datuen arabera, etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 16,3 jaitsi da eta etxebizitza hipotekatuaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa % 1 igo da, 160.310 eurotik 158.760 eurora.

Inflazioari dagokionez, 2023ko abenduan KPIren urte arteko tasa % 3,1ekoa zen EAEn (% 3,1koa estatuan ere). Modu horretan, prezioak 2023ko hasierako % 6ko tasetatik urrundu ziren eta irailetik moteltze jarraitua mantendu zuten, aldaketa handiak izan dituen urte batean. Urteko batez bestekoa % 3,6koa izan zen (estatuan % 3,5), 2022ko % 8,1en oso azpitik. Beheranzko bilakaera horretan elikagaien prezioen jokaera azpimarratu behar da; % 6,8n kokatu ziren 2022ko martxotik erregistratutako tasarik baxuenean, eta azaroan baino 2,1 puntu gutxiago. Halaber, abenduan prezioen bilakaera beherantz presionatu zuen beste faktore bat elektrizitatea izan zen; etengabe jaisten egon zen urte osoan zehar. Prestatutako elikagaien prezio altuek bultzatutako azpiko inflazioa % 3,9koa izan zen, hau da, inflazio orokorra baino ehuneko 0,8 puntu gehiago, baina 2022an erregistratutako ratioa baino 2,8 puntu gutxiago.

Enpresen⁸ lan-kostuei dagokionez, EINen "Lan kostuaren hiruhileko inkestaren arabera", EAeko enpresen lan-kostua % 2,2 gehitu zen 2023ko laugarren hiruhilekoan, 2022ko aldi berdinarekin alderatuz (estatuan, gehikuntza % 5koa izan zen) eta langile eta hilabete bakoitzeko 3.643,5 eurotan kokatu zen, hau da, estatuan baino 497,5 euro gehiago.

Bestalde, lanaren ustezko produktibitatea (ekoizpena enplegua baino gehiago hazi zenez) % 0,1 hazi zen benetan 2023an⁹. Gehikuntza horren jatorria eraikuntzaren (+% 1,3) eta zerbitzuen (% 0,4) hazkundean dago, eta industriak eta lehen sektoreak behera egin dute, % 0,7 eta % 1,5 hurrenez hurren.

Gure ekonomian sortutako balio erantsia nagusiki berau sortzen lagundu duten ekoizpen-faktoreetan banatzen da eta, bigarrenik, pertsonen eta familien artean, ekoizpen-faktore horien jabetzan duten partaidetzaren eta jasotako askotariko errenten arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, eskuragarri dauden 2022ko datuek agerian uzten dute erreferentzia gisa prezio arrunteko BPGd-aren % 10,5eko hazkundera hartuta zerga garbiak % 9,5 igo zirela, ustiapeneko soberakin garbia % 17,6, kapital finkoaren kontsumoa % 8,7 eta soldatapeko pertsonen errenta % 6,5.

EUSTATEN Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistikaren arabera, EAeko 18 urte eta gehiagoko egoiliarren batez besteko errenta pertsonala (errenta osoa) % 4,3 hazi zen 2020 eta 2021 artean, eta 23.313 eurokoa da. Pandemia aurreko 2019. urtearekin alderatuta, % 3,4 gehitu zen.

% 58,4 lanaren errentetatik dator, 13.623 euro batez beste (+% 0,4, 2019. urtearen aldean), % 29 gizarte-transferentzia¹⁰ edo -prestazioetatik, 6.772 euro batez beste (+% 12,2, 2019. urtearekin alderatuta), % 7,9 kapital higiezin zein higigarriaren errentetatik (1.830 euro) eta % 4,7 ekonomia-jardueren errentetatik (1.088 euro).

⁷ Azpiko inflazioa adierazle bat da, kontsumo prezioen aldakortasuna inflazio osoa baino modu zehatzagoan erakusten duena. Produktu energetikoei eta prestatu gabeko elikagaiei (frutak, barazkiak...) dagokien zatia kenduta kalkulatzen da, horiek osatzen baitute hondar-inflazioa. Beraz, adierazle egokiagoa da prezioen joera erakusteko.

⁸ Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeetako jarduerak izan ezik, hala nola enplegatzaileenak eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoenak).

⁹ Produktibitate erreala kateatutako bolumen-indizeetan, EUSTATEN datuetatik abiatuta kalkulatuta.

¹⁰ Pentsioak eta hartzeko pasiboak, langabezia-prestazioak edo -subsidoak, terrorismo-ekintzengatiko prestazio publikoak, giza immunoeskasiaren birusaren eraginpean daudenean jasotako laguntzak, ezintasun iraunkorragatiko prestazioak eta norberaren ardurapeko seme-alabengatiko Gizarte Segurantzaren prestazioak.

Sexuen arabera, banaketa ezberdina da gizonen eta emakumeen artean, genero-arrakala agerian geratzen delarik. Hala, gizonek 28.360 euroko batez besteko errenta (guztira) lortzen dute, eta emakumeek 18.659 eurokoa.

Errentaren banaketari dagokionez (errenta guztia) 18 urteko eta gehiagoko biztanleria egoiliarren % 59,5ek baino gehiagok EAEko batez bestekoa (23.313 euro) baino errenta pertsonal txikiagoa dute, baina kontuan izan behar da talde horretan sartuta daudela 2021ean errentarik jaso ez zutenak (% 13,7); beste muturrean, biztanleria horren % 9,7ren errenta batez bestekoaren bikoitza da, hau da, 46.626 euro baino gehiagokoa.

Aldi berean, biztanleen % 35,7k 12.000 eurotik beherako errenta pertsonala dute, eta % 42,1ek 15.000 baino gutxiagokoa (kasu bietan barne hartzen da errentarik ez dutenen % 14,6).

Bestalde, Kanpo Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, EAEko atzerriko inbertsioa nabarmenki gutxitu da EAEn 2022tik 2023ra bitartean, 5.516,6 milioi eurotik 1.555,7 milioi eurora, ABEEak kenduta (-% 71,8). Hala, EAEk laugarren tokia du inbertsioen bolumenean, Madrilen, Kataluniaren eta Valentziako Erkidegoaren atzetik. Sektoreen arabera, inbertsio guztian duten pisuarengatik nabarmentzekoak dira, bereziki, Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioan, Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren horniduran, eta Makinen eta ekipoen fabrikazioan egindakoak. Lurraldearen ikuspegitik, EAEn egiten den inbertsioaren % 97,8 Europako herrialderen batetik dator, eta ia den-dena EB14tik (% 97,8). Esparru geografiko horren barruan, nabarmentzekoa da Alemaniatik egindako inbertsioa: (1.342 milioi euro, guztiaren % 86,3) Europatik kanpo, Kolonbiak (12.251,4 milioi euro) eta Ameriketako Estatu Batuek (7.073,7 milioi euro) egindako inbertsioak nabarmendu behar dira.

Bere aldetik, ABEEak kanpo utzita, atzerrian egindako EAEko inbertsioak % 56,3 jaitsi ziren 2022. eta 2023. urteetan, eta 1.160,5 milioi eurokoak dira. Hala, EAE laugarren tokian dago autonomia-erkidegoen sailkapenean atzerrian eginiko inbertsioetan. Hauexek ditu aurretik: Madril, Asturias eta Kantabria. Sektoreen arabera, nabarmentzekoak dira Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura, Handizkako eta txikizkako merkataritza, Ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa eta Finantza- eta aseguru-jarduerak. Lurraldearen ikuspegitik, EAEko inbertsioa ELGAko herrialde batera bideratzen da kasuen % 90,6an. % 82,3 Europara (EB14ra guztizkoaren % 72,8 bideratzen da), % 1,2 Ipar Amerikara, % 9,6 Latinoamerikara, eta % 6,9 Asiara eta Ozeaniara. EBko herrialdeetatik, azpimarratzekoak dira Alemanian (guztiaren % 36,6) eta Frantzian (% 31,8) egindako inbertsioak.

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu-betearazpenaren estatistikaren" arabera, 2023an Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek batera likidatutako diru-sarrerara guztiak 21.098,3 milioi eurokoak izan ziren eta aurreko urtearekin alderatuta % 6,7 igo ziren (2022an, -% 2,5). Zuzeneko zergen eta transferentzia arrunten diru-bilketak igo egin dira (hurrenez hurren, +% 11,2 eta +% 17,4), eta zeharkako zergen diru-bilketa % 1,1 gutxitu zen. Gainera, eta aurreko urteetan ez bezala, finantza-pasiboak % 56,9 gehitu ziren (hau da, zorpetze gehiago). Zorpetzearen igoera hori Eusko Jaurlaritzaren finantzetan (+% 39,8) eta foru-aldundienetan (+% 151,1) gertatu da. Gainera, diru-sarrera publikoak gehitu dira bai foru aldundietan (+% 6,8), bai Eusko Jaurlaritzan ere (+% 4,6), eta agregatua +% 6,7koa da.

Balantzea egite aldera, EAEko sektore publikoak erkidegoko BPGd-aren gainean zituen diru-sarreraren multzoa (2022an % 22,9) 2023an 2 hamarren igo zen % 23,1era arte. Izan ere, BPGd-a diru-sarrera publikoak baino gutxiago hazi da (+% 5,8 termino arruntetan, behin-behineko datuen arabera).

Bigarrenik, 2023an hitzartutako zergen diru-bilketaren gaineko zifrak aitortu ziren; beraiek osatzen dute zerga zuzenen eta zeharkako multzoa eta guztiaren % 90 baino gehiago dira. 2023an 18.212,4 milioi eurokoa zen, aurreko ekitaldian baino % 6,3 gehiago. Zifra horiek 2023ko urrian egindako azken aurreikuspenaren % 100,6 dira eta aurrekontuko zifrarekiko % 100,8, eta horien arrazoa, nagusiki, hazkunde ekonomikoa da, tentsio inflazionistak

moteltzen joan ziren testuinguru batean. Biak hazi diren arren, 2023an zuzeneko zergen portaera hobeia izan da (+% 11,5) zeharkakoarena baino (+% 0,6).

Laburbilduz, bildutako bolumena 18.212,4 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko 2023ko BPGd arruntaren % 19,9 izan da (2022ko ratio berbera). Bildutako guztiaren % 38,9 PFEZari dagokio, % 38,1 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatiko eta aduanengatiko doikuntza), % 9 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 14a, zenbait zerga bereziri.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua (tokiko erakundeak alde batera utzita) 21.476,3 milioi eurokoa izan da 2023an, eta % 7 igo da 2022aren aldean, aurreko urteko +% 7,7ren aldean. Hala, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gainean duen ehunekoa 2 hamarren hazi da, % 23,3tik % 23,5era, BPGd-aren bilakaera dela-eta (% 5,8 hazi da zifra arruntetan, behin-behineko datuen arabera). Gastuaren gehikuntza bai Eusko Jaurlaritzan (+% 5) bai foru aldundietan (+% 6,9) gertatu da, eta +% 7ko agregatuaren aldakuntza gertatu da, partida batzuk erakundeen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat, adibidez).

EAEko sektore publikoko gastuaren kapituluaren aldakuntza garrantzitsuenek (tokiko erakundeak salbuetsiz) zenbait ezberdintasun izan dituzte aurreko urteekin alderatuz. Lehenik eta behin, langile-gastuek aurreko urteetako joera positiboari eutsi diote, eta 2022an baino gehiago hazi dira (+% +6,3 aurreko urtean baino 0,6 puntu gehiago), eta proportzio txikiagoan aldundietan (+% 5) gobernuan baino (+% 6,5) eta, aldi berean, transferentzia arruntan batez bestekoaren gainetik hazi dira, eta 2022an baino gehiago (+% +9,1, 2022an baino 7 puntu gehiago). Funtzionamendugastuek (ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokionez), aurreko urteetako joerari eutsi diote, baita 2022an baino proportzio handiagoan ere (+% 4,9ko igoera izan dute, 2022an, ordea, +% 3,8). Inbertsio errealak 2021ean nabarmenki berreskuratu ziren (+% 24,1) eta 2022an pixka bat hazi ziren (+% 2,9), eta 2023an, aldiz, % 31 hazi ziren, foru aldundiek (+% 22,1) eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak (+% 47,2) bilakaera ona izan zutelako.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparatuz gero, 2023ko "EAEko Aurrekontu Orokorren betearazpenaren" datuen arabera (2023ko azaroan eguneratutako aurrekontu-datuekin), aurreikusitako Eusko Jaurlaritzaren gastua % 10,2 gehituko dela 2022an likidatutako zenbatekoarekin (aitortutako betebeharrak) alderatuta, urte horretan % 7,9 igo baitzen aurreko urtearekin konparatuta. Gastu-bolumen handiena duten bi sail nagusiak Hezkuntza (% 23,7) eta Osasuna (% 31) dira oraindik ere. 2023ko Eusko Jaurlaritzaren eguneratutako aurrekontua 15.125,3 milioi eurokoa da, hau da, urte honetan gure autonomia-erkidegoko BPGd-aren %16,6, behin-behineko datuen arabera betiere.

Bestalde, 2023an EAEko Sektore Publikoaren (Jaurlaritzaz gehi foru aldundiak) sarrera arruntak % 6,6 igo direnez eta izaera bereko gastuak % 7,7 igo direnez, % 1,8 jaitzi da aurrezki gordina, hau da, 2.045,5 milioi euro guztira. Zenbateko honek gure autonomia-erkidegoko BPGd-aren % 2,2 hartzen du (behin-behineko datuak). Horrez gain, 135,3 milioi euroko (BPGd-aren % 0,1) superabit publikoa erregistratu da (finantzatzeko ahalmena), finantzazkoak ez diren diru-sarrerak (arruntak gehi kapitalekoak) handiagoak baitira horrelako gastuak baino. Aurreko ekitaldian 596,6 milioi euroko superabita gertatu zen (BPGd-aren % 0,7) eta, hala, superabit hori % 77,3 gutxitu da.

Eusko Jaurlaritzaren "Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistikak" erakusten duenez, EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritzaz eta foru aldundiak) zorpetze garbia (zorpetze gordinaren eta amortizazioaren arteko aldea), 2022an bezala, negatiboa da 2023an: hau da, amortizazioa handiagoa da zor berriaren jaulkipena baino. Zehazki, -151,4 milioi euro dira (-422,8 milioi 2022an). Zorpetze gordina asko gutxitu zen 2022an (-% 67,1, 2021ekin alderatuta) eta 2023an hazi egin zen berriz ere; zehazki, 920,4 milioi eurokoa (+% 56,9) izan zen. Horietatik 694,4 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (+% 39,8) eta gainerako 226 milioi euroak foru aldundiei (+% 151,1, 2022ko datuekin alderatuta).

Azken urteetan gertatzen ari den bezala, zorpetze gordina gehitzeaz gain, jada bazegoen zorra nabarmenki amortizatu da (1.071,8 milioi euro, eta horietatik 778,1 Eusko Jaurlaritzari dagozkio). Hala, ekitaldiaren amaieran zor bizia % 1,2 jaitsi da. Ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 12.561,8 milioi euroko zorra aurkeztu dute (BPGd-aren % 13,8, behin-behineko datuen arabera; 2022an, berriz, % 14,7). Beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (guztiaren % 84,2, eta % 83,8 aurreko urtean).

Eta, azkenik, enplegu publikoari dagokionez, EAeko administrazio publikoek 146.968 langile zituzten 2023ko urtarrilaren 1ean, EUSTATen "Administrazio Publikoen Direktorioko" datuen arabera. Hau da, aurreko urtean baino % 0,2 gehiago eta EAEn 2023ko lehenengo hiruhilekoan lan egiten zuten guztien % 15,3 (2022ko ratio bera), BJaren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero. Datu horietan ez da kontuan hartzen estatuko administrazioko eta Gizarte Segurantzako langileen multzoa, baina Lurralde Politika eta Memoria Demokratikoko Ministerioak, 2023ko urtarrileko estatistika-aldizkarian kalkulatu zuen EAEn 9.094 pertsona zeudela lanean estatuko administrazio publikoan (horietatik 4.045 estatuko administrazio nagusian eta 5.049 "beste batzuk" kategorian, hau da, nagusiki estatuko segurtasun- eta indar-kidegoetan). Zifra biak batzen baditugu, lanpostu publikoak, 2023a hastean, 156.062 inguru lirateke (aurreko urtean baino -% 0,2). Hala ere, zifra hori estimazio hutsa da; izan ere, erreferentziako datak eta erabilitako metodologiak ezberdinak izan dira¹¹.

EUSTATen zifrak berriz ere aztertuta, 2023ko¹² urtarrileko 146.968 langile publikoetatik % 65,4 EAeko administraziokoak ziren, % 18,6 tokiko erakundeetakoak, % 8,3 foru aldundietakoak eta gainerako % 7,6a unibertsitatekoak, fundazioetakoak eta beste erakunde publiko batzuetakoak.

Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 62,7 ziren (+8 hamarren 2022rekin alderatuta), % 36,3 langile lan-kontratudunak ziren (-0,8 puntu), kasu bietan Osakidetzaren estatutupeko langileak barne, eta % 1 goi-karguak ziren (2022ko ratio berbera). Gainera, langile finkoak (funtzionarioak, langile lan-kontratudunak eta estatutupekoak) langileen % 54,9 ziren (2022an baino -0,4 puntu gutxiago), % 20,2 bitarteko funtzionarioak ziren (+2,1 puntu) eta % 23,9 aldi baterako langile lan-kontratudunak ziren (-1 puntu). Hala, bitartekotasun eta behin-behinekotasun maila % 44,1ekoa izan zen (% 43,5ekoa aurreko urtean).

Ekoizpen-azpiegiturei dagokienez, Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF eta PORTUAK eta RENFE Operatzaileek) EAEn egindako ingeniarietza zibileko esleipenei buruz Garraio Ministerioak argitaratutako datuek erakusten dute erakunde guztiek behera egin dutela, AENAK izan ezik, 2022tik 2023ra. Hala, ADIFenak 156,2 milioitik 4,5 milioi eurora igaro dira (-% 68,3), PORTUETAKOAK 19,7 milioitik 12,1 milioi eurora (-% 38,8) eta RENFE OPERATZAILEAK ez du esleipenik egin. Bestalde, AENARENak 4,6 milioitik 17 milioi eurora igaro dira.

Aireko garraioari dagokionez, Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2023an 7.129 mila bidaiari igaro ziren EAeko hiru aireportuetatik (% 88,9 Bilboko aireportutik), hau da, 2022an baino % 24 gehiago. Bestalde, salgaien trafikoa % 2,5 murriztu zen, eta 72.443 tonakoa izan zen (% 99 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

Portuko trafikoari dagokionez (salgaiak, hornidura eta arrantza), Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2022tik 2023ra % 0,1 egin zuen gora Bilboko Portuan, guztira 32,9 milioi tona. Bestalde, Pasaiaiko portuan, zeinak askoz ere kota apalagoak baititu, trafikoa % 5 jaitsi zen, 3,5 milioi tonarekin.

¹¹ Langile okupatuak, lanaldi osokoak.

¹² Ministerioaren datuek, adibidez, egonkor deitzen duen langile kopurua zenbatesten dute, 6 hilabete baino gutxiagoko aldi baterako kontratuak alde batera utzita.

Trenbide azpiegiturari dagokionez, 2021. urteari buruz argitaratu diren datuen arabera, EAEko trenbide-sarea 547,7 kilometro burdinbide osatzen du. Horietatik 515,7 elektrifikatuta daude (guztizkoaren % 94,2). Bideen 547,7 km horietatik % 65,6 ADIFenak dira (eta ADIF ABIADURA HANDIA). Hark kudeatzen ditu distantzia ertaineko eta penintsularanzko ibilbide luzeko zerbitzuei lotutako azpiegitura eta Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak. Gainerako % 34,4 Euskal Trenbide Sarea-ETSk kudeatzen du (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne). Zehazki, ETSk kudeatzen ditu Bilbo-Donostia-Hendaia linea (Bilboko Metroaren 3. linea eta Donostia-Hendaia arteko tartea, Topo izenarekin ezagutzen dena, barne), Txorierriko linea eta Zornotza-Bermeo adarra.

EAEko trenbide-lineen kontzentrazioa Estatuko eta EB28ko gainerako lurraldeetako dentsitatea baino handiagoa da. Zenbakitan, bide-dentsitatea 77,9 m/km²-koa da, eta Europakoa (EB28) eta Estatukoa (48,4 m/km² eta 31,6 m/km², hurrenez hurren) baino nabarmen handiagoa da. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-linea guztiakin alderatuta, trenbide elektrifikatuek Estatuan eta European baino ratio handiagoa dute, trenbidearen egituraren % 94,2, % 64,3 eta % 54,6, hurrenez hurren.

Espainiako Trenbidearen Behatokiaren (Observatorio del ferrocarril en España, OFE) datuen arabera, 2022an Estatuan garraiatutako tonen bolumen osoa % 8,7 handitu zen 2021 eta 2022 artean, 11,9 milioi tonatik 12,9 milioi tonara igaro baitzen 2021 eta 2022 artean. Datuak Portu Agintaritzaren arabera bereizita, hauek dira lehenengo bostak: Bartzelona (3,9 milioi tona); Valentzia (3,1 milioi); Bilbo (1,5 milioi); Santander (milioi 1) eta Gijón (0,91 milioi).

Portuko garraioan trenbideak duen kuotari dagokionez, Bilboko Portuko Agintaritzak % 4,8 erregistratu du, eta Pasaiaikoak % 6,3, biak ere Estatuko kuotaren gaineratik (% 3,3). Kuota handienak Santanderko Portuko Agintaritzan erregistratu dira (% 16,4), ondoren Marin eta Pontevedrako itsasadarrean (% 15,5), Bartzelonan (% 8,9), Valentzian (% 6,4) eta Pasaian (% 6,3).

Banaketa modalaren emaitzek adierazten dutenez, Estatu urrun dago EBren antzeko oreka modaleko balioak lortzetik, eta argi dago errepideko salgaien garraioa dela nagusi. Zehazki, Europar Batasunaren esparruan (datuek bide nabigagarrietako garraioaren kuota ere jasotzen dute), salgaien trenbideko garraioa % 17koa izan da 2021ean. Estatuaren kasuan, balioa (ibai-garraioa barne) % 3,8koa da.

Euskal Y-ari dagokionez, 2023an honako jarduketak hauek egin ziren:

- Otsailean, Estatuko Gobernuak baimena eman zion MITMAri Bilbao Abandoko geltokia eraldatzeko azterlanak eta proiektuak idazteko kontratua lizitatzeko.
- Maiatzean, MITMAk Basauriko abiadura handiko behin-behineko geltokiaren informazio-azterlana idatzi zuen.
- Azaroan, Estatuko Gobernuak baimena eman zien MITMAri eta Lurralde Politikako Ministerioari Adif Abiadura Handiko Trenaren (AHT) eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena sinatzeko. Hitzarmen horren bidez, EAEko Administrazio Orokorrari agintzen zaio Bilbo-Abandoko geltokira sartzeko plataforma eraikitzeko eta proiektuak idazteko.

Bide-azpiegiturari dagokionez, azpimarratu behar da, 2021eko datuekin, EAEko errepide-sarearen % 15,2 baino gehiago edukiera handiko bideak direla, eta Estatuan, berriz, % 10,6; bidesari-autobideak edukiera handiko errepideen % 39,6 dira EAEn, eta Estatuan, berriz, % 11,6.

Abiapuntua edo helmuga EAEn izanik (igarobideko nazioarteko trafikoa alde batera utzita) errepidez garraiatutako salgaien bolumena 105 milioi tonakoa izan zen 2022an, hau da, % 0,2ko igoera egon da 2021. urtearekin alderatuta. % 45,5 eskualde barruko garraioa da; % 48,1, eskualde artekoa, eta % 6,4, nazioartekoa. Eskualdeen arteko eremuan, trukeen bolumen handiena Gaztela eta Leon, Kantabria eta Nafarroarekin egin da berriz.

2022. urtean **EAE*n* I+Gko jardueretan** 1.794 M€ inbertitu ziren EUSTATEN arabera (% 9 gehiago aurreko urte datuarekin alderatuz gero). Ahaleginari dagokionez, BPGd-aren % 2,08 da, 2021ean erregistratutakoa (% 2,11) baino ehuneko txikiagoa eta 2012koaren (% 2,09) oso antzekoa. Ratio hori Estatuko batez bestekoa (% 1,44) baino handiagoa da, baina eurogunekoa (% 2,27) eta arlo horretako erreferentziatzko herrialdeetan erregistratutakoa baino txikiagoa. Nabarmentzekoak dira Hego Korea (% 4,93), AEB (% 3,46), Belgika (% 3,44), Suedia (% 3,40), Japonia (% 3,34), Suitza (% 3,31), Austria (% 3,20) eta Alemaniako (% 3,13) ratioak.

Gastua egikaritzeari dagokionez, % 77,1 enpresek¹³ egin zuten, % 16,4 Goi Mailako Irakaskuntzak eta gainerako % 6,5 Administrazioaren mendeko erakundeek. Horrela, enpresa-sektorea da oraindik gastuaren zatirik handiena egikaritzen duena.

Gastu horren finantzaketari dagokionez, sektore pribatuaren partaidetza % 55,9koa da. Administrazio Publikoak gastuaren % 33,9 finantzatzen du. Eurogunean, EUROSTATen 2021eko datuen arabera, ehunekoak % 58,1 eta % 30,5 dira. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia izan da 2021ean: Japonia (% 78,1), Txina, salbu Hong Kong (% 77,5, 2020ko datua), Hego Korea (% 76,1), AEB (% 66,9), Suitza (% 65,9), Belgika (% 64,4), Alemania (% 62,8), Malta (% 61,3) eta Suedia (% 60,6).

I+Gko jardueretan enplegatutako langileen kopuruak AOBn (21.746,2 pertsona) gora egin du berriro, % 4,5 zehazki, aurreko urtearen aldean. Sexuaren araberako analisiak agerian uzten du jarduera horietan lan egiten duten langile guztien % 36,9 baino ez direla emakumeak; hala ere, horien pisua ehuneko 3,5 puntu igo da 2010. urtearen aldean, eta 10,3 puntu ere 2000. urtearen aldean.

Enpresaren sektoreko I+G adierazleen analisia Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentroak eragiketarik kanpo utzita egiten bada, honako hau daukagu. 2022an I+G jarduerak egin zituzten enpresak 1.405 izan ziren, aurreko urtean baino % 0,4 gehiago. Horietatik, 550 industria-sektorekoak dira (4 gutxiago 2021aren aldean), 791 zerbitzuen sektorekoak (5 gehiago), 50 eraikuntzakoak (5 gehiago) eta 14 lehen sektorekoak (aurreko urteko kopuru bera). Jarduera horietan arduraldi osoko langileen kopuruak gora egin du berriro: 11.794,7tik 12.276,8ra AOBn. Langile horiek gehienak industrian eta zerbitzuetan daude bilduta: % 44,9 industrian eta % 51,4 zerbitzuetan. Enpresek jarduera horietan egindako gastua igo egin da, % 8, 1.092,7 milioi eurora iritsita. Nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 77 langile dira, euskal enpresaren multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa (6,2 lagunekoa).

Enpresen berrikuntza-jarduerari dagokionez, 2022an, EUSTATEN arabera, 10 enplegu eta gehiagoko enpresen % 35,4 berritzaileak dira, aurreko urtean baino ehuneko 2,8 puntu gehiago. EINren datuen arabera, 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 29,8 dira berritzaileak, Estatuko batez bestekoa baino ratio handiagoa (% 23,9). Autonomia-erkidegoen rankingean, EAE dago lehen postuan.

Sektoreka, EUSTATEN datuen arabera, industria-enpresen % 39, eraikuntza-enpresen % 38 eta zerbitzuetakoen % 34,1 berritzaileak dira.

Jarduera berritzaileetan egindako gastua, EUSTATEN arabera, 3.292 milioi eurokoa da (+% 8,7 aurreko urtearen aldean), hau da, BPGd-aren % 3,33.

10 enplegu edo gehiago dituzten enpresen % 68,7k uste zuten berrikuntza zailtzen duten faktore jakin batzuk daudela. Nagusiak bat datoz 2021ean erregistratutakoekin, eta hauek dira: “Enpresaren barruan beste lehentasun batzuk daude”, “kostu altuegiak”, “laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzeko zailtasunak”, “finantzaketa publikoaren falta” eta “merkatuko eskariaren gaineko ziurgabetasuna”.

¹³ *Komeni da kontuan hartzea I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.*

"Europako Berrikuntzaren Adierazleen panelak (EIS) 2022" erakusten du EAE berriz ere "berrikuntza handiko herrialdeak" taldearen barruan kokatzen dela. Zehazki, sintesi-adierazleak 0,601eko balioa du, estatuaren (0,489) eta EB27ren (0,548) gainetik.

- ESPARRU-BALDINTZAK blokean, EAEk 0,68ko puntuazioa du EB27ko 0,47ren aldean; gainera, gure erkidegoak Europako batez bestekoa gainditzen du hiru dimentsioetan: *Giza balibideak, Ikerketa-sistema erakargarriak eta Digitalizazioa*.
- INBERTSIOAK blokean ere, Euskadik, 0,67ko puntuazioarekin, Europako batez bestekoak (0,61) baino puntuazio hobea lortu du. Eta hiru dimentsiotako bitan: "Enpresen inbertsioa" eta "Informazioaren teknologien erabilera" Euskadik EB27k baino puntuazio hobea du; aldiz, "Finantzaketa eta babes" delakoan, EB27 da puntuazio altuena duena.
- BERRIKUNTZA-JARDUERAK blokeak, berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu enpresen mailan, eta Euskadik Europako batez bestekoa baino puntuazio txikiagoa lortu du. Bloke honetako hiru dimentsioetatik – *Berritzaileak, Laguntzaileak eta Ezagutza-aktiboak*– Euskadi bigarreanean soilik dago EB27ren aurretik. Errendimendu gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubideen formak atzematen dituen "ezagutza-aktiboak" dimentsioan, adierazlea 0,33 da, EB27ko (0,54) eta are Estatuakoaren (0,43) batez bestekoaren azpitik. Esan dugunez, historikoki aztertuta, EAEk I+G jardueretan inbertsio handiak egin dituen bitartean, dirudienez, oraindik ere zailtasunak dauzka inbertsio hori emaitzetara eramateko, ezagutza-aktiboaren adierazleak baxuak izaten jarraitzen dutelako; horrek efizientzia edo produktibitate txikiagoa erakusten du.
- Bestalde, ERAGINEN blokean (enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu), Euskadik Europako batez bestekoa baino puntuazio txikiagoa lortu du: 0,59 eta 0,61. Bloke honetako hiru dimentsioetatik – *Enpleguko inpaktuak, Salmentetako inpaktuak eta Ingurumen jasangarritasuna*– Euskadi hirugarreanean baino ez dago EB27ren aurretik.

Bestalde, "Eskualdeko berrikuntzaren adierazleen panela - Regional Innovation Scoreboard (RIS), 2023" delakoak erakusten duenez, berrikuntzan lider diren eskualdeak, normalean, berrikuntzan lider edo berritzaile indartsu gisa identifikatutako herrialdeetan kokatzen dira EIS 2023an; eta berritzaile moderatu eta gorabideko berritzaile gehienak EIS 2023an berritzaile moderatu eta gorabideko berritzaile gisa identifikatutako herrialdeetakoak dira. Hala ere, eskualde berritzaile indartsuak (edo berrikuntza handiko eskualdeak) aurki daitezke berritzaile moderatuak edo gorabideko berritzaileak diren herrialdeetan; eta eskualde horiei Europako Batzordeak eskualdeko bikaintasun-polo deitzen die. Horien artean Euskadi dago.

RIS 2023ren emaitzak 2021ekoekin alderatuz, Euskadik ETE berritzaileen ehunekoa handitzeko erronkari eusten dio, bai eta berrikuntzarako jardueretan inbertsioa handitzeko erronkari ere, hala nola diseinuan, marketinean, jabetza intelektualaren eta industrialaren kudeaketan edo prestakuntzan.

Azkenik, Euskadiko ZTBP 2030en balantzeari dagokionez, Kontseilu honek honako hau ikusi du:

- Bilakaera positiboa azaltzen duten adierazleak honako hauek dira: enplegu intentsiboa ezagutzan; I+G arloko inbertsioa; enpresek finantzatutako I+Gren gaineko inbertsioa; EPO patenteen eskabide-kopurua; I+Gren nazioarteko finantzaketa; Europako Horizon programan parte hartzen duten enpresak; argitalpen zientifikoak nazioarteko lankidetzan; doktore ikertzaileak; eta graduako STEM titulazioetarako sarbide berriak.
- Bilakaera negatiboa duten adierazleak honako hauek dira: Nazioartean gehien aipatzen diren 10 argitalpen zientifikoak, Goi-mailako eta erdi- eta goi-mailako teknologiako produktuen esportazioak, Produktu berrien salmenta fakturazio osoaren gainean eta Berrikuntzako inbertsioak.

- Egoera ekonomikoei dagokienez, datuak onak dira, ZTBP 2030ean aurreikusitako zenbatespenetarantz behar bezala aurrera egiten ari direlako, eta kasu batzuetan dagoeneko 2023rako aurreikusitako helburua lortu delako.

Ekonomia eta gizarte digitalari dagokienez, dagokionez, hau adierazi behar dugu:

EUSTAT¹⁴en *Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta-IGI-familiak* inkestaren datuen arabera, 2023an, azken hiru hilabeteetan bai etxean, bai lantokian, bai beste leku batean internetera konektatu diren 15 urteko eta gehiagoko pertsonak biztanleen % 88,3 dira. Ehuneko hori 2 puntu igo da 2022tik. Komunikatzeko eta informazioa eskuratzeko zerbitzuak dira Interneteko erabiltzaileek gehien erabiltzen dituztenak. WhatsAppen eta berehalako mezularitzako antzeko beste aplikazio batzuen erabilera da hedatuena, Interneteko erabiltzaileen % 97,3k erabili baitute.

EUSTATen *"Informazioaren gizarteari buruzko inkesta- ISI enpresak"* inkestak bederatzia adierazle darabiltza enpresen eraldaketa digitala aztertzeko (4.0 industria)¹⁵. 2023an, adierazlerik azpimarragarriena eta enpresen tamaina edozein dela ere, komunikabide sozialen erabilera da (establezimendu guztien % 53,4 eta 10 enplegu edo gehiagoko guztien % 74,4). Jarraian, "hodeian" dauden zerbitzu informatikoak ageri dira, establezimendu guztien % 31k (10 enplegu edo gehiagokoen % 55,6k) ordaintzen dute ostatatze horregatik; eta hirugarren tokian, Zibersegurtasun Jarduerak daude, establezimendu guztien % 22,7 (10 enplegu edo gehiagokoen % 52,8). Bigarren multzoa aplikazio mugikorrek, gauzen internetek eta big-data analisiak osatzen dute. Eta urrunago daude adimen artifiziala, 3D inprimagailuen erabilera eta robotikaren erabilera.

Bestalde, EINren *"Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoen erabilerari buruzko inkesta"*ko 2023ko lehen hiruhilekoko datuen arabera, EAEko enpresak Estatuko batez bestekoaren gainetik daude administrazioarekin elkarrengaitzeko Interneten erabilerari, hodeiko zerbitzuen erabilerari, AAREN erabilerari, enpresa-baliabideak planifikatzeko softwarearen erabilerari (ERP) eta horiek informatikoki automatikoki prozesatzea ahalbidetzen duten faktura elektronikoen bidalketari dagokienez. Bestalde, langileek telelana egiteko aukera ematen duten enpresen ehunekoa antzekoa da. Hala ere, aldizka telelana egiten duten baliabide sozialen eta enplegatuen erabilerari dagokionez, ratioak Estatuko batez bestekoak baino txikiagoak dira.

Telelanari dagokionez, EINen datuen arabera, 2022an, erregulartasunez telelanean aritzen diren pertsonen ratioa (telelana ahalbidetzen duten enpresetan) % 13,2koa da EAEn Estatuko % 18,9ren aldean. Gure erkidegoan laugarren postua betetzen du estatuko sailkapenean, Madrilen (% 32,9), Kataluniaren (% 19,6) eta Balearren (% 16,3) ostetik.

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, 2023an, 15 urteko eta gehiagoko euskal biztanleen % 54,9k erosi dituzte ondasunak eta zerbitzuak Interneten bidez. Zifra hori 15 urte eta gehiagoko euskal biztanleria osoaren % 48,4 da, eta ratio horrek goranzko joerari eusten dio.

Bestalde, 2022an 44.281 establezimendu inguruk egiten dute merkataritza elektronikoa EAEn; hau da, establezimendu guztien % 28,7 (aurreko urtean baino ehuneko 0,7 gehiago). Gehikuntza hori, neurri handiagoan, erosten duten establezimenduetan oinarritzen da. Establezimendu guztien % 25,7k elektronikoki erosi zuten (aurreko urtean baino ehuneko 7 hamarren gehiago), eta % 8,5ek salmenta elektronikokoak egin zituzten (aurreko urtean baino ehuneko 2 hamarren gehiago).

¹⁴ Estatistikan jasotako datuen data edo aldia bat dator urte natural bakoitzeko lehen hiruhilekoarekin.

¹⁵ Hauek dira: sare sozialak enpresaren xedeetarako erabiltzea, "hodeiko" zerbitzu informatikoak erabiltzea, zerbitzu mugikorrek erabiltzea, gauzen interneta (IoT) erabiltzea, zibersegurtasuneko jarduerak, makrodatuen analisisa (big data), adimen artifizialeko sistemak erabiltzea, 3D inprimagailuak erabiltzea eta robotikaren erabilera.

EAEko merkataritza elektronikoa berrero ere gora egin du zifra ekonomikoetan, aurreko urtearen aldean. Horrela, sortutako negozio-bolumena % 9,8 hazi zen salmenta elektronikoei dagokienez, 26.608,4 milioi eurora iritsiz, eta % 7,8 erosketei dagokienez, 19.673,1 milioi eurora iritsiz.

Merkataritza elektronikoa bidezko salmentak egin zituzten establezimenduen salmenta guztien artean batez beste % 44,5 izan ziren salmenta elektronikoa egin zituztenak. Bestalde, enpresek egindako erosketa guztien % 37,2 izan ziren erosketa elektronikoa.

EUROSTATen datuen arabera, EB27an, 10 lanpostu edo gehiago (finantza-sektorerik gabe) izan eta on line saldu zuten enpresen ehunekoa (aurrekontuaren % 1 gutxienez) % 19,7 izan zen 2022an. Suediak izan zuen linean saltzen duten enpresen proportziorik handiena EBko herrialde kideen artean (% 36,6), ondoren Danimarkak (% 35,6) eta Irlandak (% 35,2).

Administrazio elektronikoen erabilera aztertuko dugu orain.

- Eskaria, bai herritarren aldetik, bai enpresa-sarearen aldetik.

EUSTATen datuen arabera, 2023an administrazio elektronikoa erabiltzen duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa % 62,3ra iristen da, eta ratio hori ehuneko 1,6 puntu handiagoa da 2022an erregistratutakoa baino. Emandako zerbitzuen artean, gehien erabiltzen dena telematika bidezko administrazio-izapideak egitea da (inprimakiak beteta bidaltzea) (% 58,7), eta, ondoren, informazioa lortzea (% 57,7).

Administrazioarekin elkarreragin elektronikoa duten establezimenduen ehunekoa enpresa guztien % 97,7ra eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 98,5era iristen da 2023an. Bi kasuetan, Administrazio Elektronikoa hirugarrenen bidez erabiltzen duten establezimenduak sartzen dira, baita agian Internetik ez dutenak ere.

Enpresek administrazioarekin egiten duten izapide motari dagokionez, establezimendu guztietan nabarmentzen da: BEZa aitortzea (guztien % 82,4), informazioa lortzea (% 74), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 70,6) eta enplegatuen gizarte-kotizazioak aitortzea (% 70,5). 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen arloan, nabarmentzekoak dira: informazioa eskuratzea (tamaina honetako establezimenduen % 87,7), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 86,3), eta betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 84,9).

- Eskaintza.

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak egindako azken "Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika" k (2021eko datuekin) agerian uzten du 2016 eta 2021 artean EAEko administrazio eta sektore publiko guztiek Internet bidez eskaintzen dituzten zerbitzu, prozedura eta izapide guztiak % 20,8 igo direla, 38.212 izatera iritsiz. % 63,4 udalek eskaintzen dituzte, % 8,1 sozietate publikoek, % 7,1 erakunde autonomoek eta % 6,7 foru-aldundiek. Eusko Jaurlaritza (Administrazio Orokorra) eskaintza elektronikoen % 3,3 da, eta EHU % 2,8. Kuadrillak, toki-erakunde txikiak, mankomunitateak, partzuergoak, fundazioak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta beste erakunde publiko batzuk gainerako % 8,5 dira.

Eskaintzaren erdia baino gehiago (% 51,2) administrazio-prozedura eta -izapideei dagokie, % 36,7 zerbitzu publikoei, % 8,7 arautu gabeko prestakuntza-ikastaro eta -ekintzei, eta, azkenik, kontratatzailearen profilari, lehiaketei, txapelketei eta sariei % 1,3 dagokie bakoitzari.

Sofistikazio-mailari dagokionez, eskaintzaren % 81,2 Internet bidez has eta buka daiteke; horrek esan nahi du ehuneko 14,4 puntuko igoera izan dela 2016arekin alderatuta, orduan eskaintzaren % 66,8 baino ezin baitzitezkeen izapidetu osorik. 2016an gertatzen zen bezala, beren webguneetan eskaintza numeriko erlatiborik

txikiena duten zenbait erakunde ziren, sofistikazio mailarik handiena zutenak: irabazi-asmorik gabeko erakundeak (izapidetze elektronikoko osoaren % 93,9), fundazio publikoak (% 91,7) eta mankomunitateak (% 85,9).

Webguneetan eskaintza handiena duten erakundeen artean, Eusko Jaurlaritza da sofistikazio elektronikoko maila handiena duena, % 87ko izapidetze elektronikoko osoa ahalbidetzen baitu. Sozietate publikoak eta erakunde autonomoak % 85,3 eta % 85era iristen dira, hurrenez hurren, eta udalak % 80,3ra. EHUK % 75,9 eskaintzen du eta aldundiek % 71,7.

- Telelanari dagokionez, 2023. urtean, euskal administrazio publikoko langileen % 6,6k (2022an baino ehuneko 1,2 puntu gehiago) bere lantokitik kanpo egin zuten lan, gutxienez lanaldiaren heren bat, erregulartasunez, sare telematikoak erabiliz IKT sistemekin konektatzeko. Ondorioz, telelangiletzat jo daitezke. Sexuaren arabera banaketaren azterketak agerian uzten du telelana egiten duten emakumeen ehunekoa (% 58,9) gizonena (% 41,1) baino handiagoa dela.

III. ENPLEGUA ETA LAN-HARREMEKAK

COVID-19ak lan-merkatuan eragin zuen galera 2022rako berreskuratutzat eman ostean, 2023an, oro har, okupazioan goranzko joerak jarraitu du, eta langabeziak behera egin du.

Lehenik eta behin, EUSTATen “*Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestak*” (BJA) erakusten du EAEko **biztanleria aktiboa** 1.054.900 pertsonakoa dela 2023. urtearen amaieran. Horietatik % 52 gizonak dira (549.000) eta % 48 emakumeak (505.900). 2023an, biztanleria aktiboa berriro ere erori zen, kasu honetan 3.000 pertsona gutxiago izan baitziren; beraz, % 0,3ko jaitsiera egon zen 2022aren aldean. Sexuaren arabera, azken urtean bilakaera ezberdina izan da: emakume aktiboak % 0,6 jaitsi dira (-3.300), eta, aldiz, gizon aktiboak, % 0,1 igo, hau da, +300 pertsona¹⁶. Bilakaera horien ondorioz, emakumeek EAEko lan-merkatuan duten partaidetza hamarren bat jaitsi da 2023an, % 48,1etik % 48ra.

Bestalde, BJAren arabera, **2022ko laugarren hiruhilekotik 2023ko laugarren hiruhilekora**, enplegua % 1,3 igo da Euskadin (+12.700 lanpostu). Aurreko urtean, berriz, % 2 hazi zen (berrikusitako datuak), eta emakume landunen kopurua 9.200 hazi da (guztizko hazkundearen % 71,7; 2022an % 41,8), eta gizonena, berriz, 3.600 (% 28,3). Estatuaren testuinguruan, okupazioa % 3,8 hazi da batez beste (IV. hiruhilekoa, Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak) (+% 1,4 2022an). Erkidego gehienek 2023an, 2022an bezala, igoerak izan dituzte okupazioan eta, era berean, BAiko kopuruak kontuan hartuta, EAEn, 2022an % 0,8 erori ondoren, enplegua % 5 igo da 2023an.

Sektoreen arabera, EAEn azken urtean okupazioaren hazkundera bereziki handia izan da zerbitzuetan, 9.900 enplegu gehiago (+% 1,4) lortuz eta industrian % 4,4 erdietsiz (2022an baino -% 2,8), eta 8.500 enplegu irabazi dira, gizonen (+4.800) eta emakumeen (+3.800) enpleguan egondako igoeraren eraginez. Bestalde, lehen sektorean 1.600 langile gutxiago daude, % 17 jaitsita. Eraikuntzaren sektorean, azkenik, 4.200 langile gutxiago daude, -% 7ko tasarekin (2022an % 8,5 gehiago).

2023an **EAEko lan-merkatuan kontuan hartu beharreko alderdien** artean nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, 2022an ez bezala, igo egin dela lanaldi partzialeko landunen ehunekoa, 1,3 puntu, % 16,6raino, EINren BAiren datuen arabera. Hala ere, EUSTATen BJA hartzen badugu iturri gisa, lanaldi partzialeko enplegu-tasa % 18,4tik % 18ra jaitsi da EAEn (2022ko eta 2023ko urte batez besteko datuak).

Bigarrenik, BAiren arabera, behin-behinekotasunaren pisua ere igo egin da, 1,3 puntu, soldatapeko pertsonen % 19,6tik % 20,9ra, bai sektore pribatuan (+0,9 puntu), bai publikoan (+% 1,9). Gainera, EAEn, nabarmen handiagoa da behin-behinekotasunaren tasa sektore publikoan sektore pribatuan baino, eta alde horri eusten zaio, zenbait gorabeherarekin, azken hamarkadan baino denbora luzeagoan. 2023ko laugarren hiruhilekoan, aldi baterako kontratuen tasa % 48,5ekoa izan zen EAEn sektore publikoan, eta % 14,4koa sektore pribatuan. Hala ere, BJAko datuen arabera, behin-behinekotasuna 2,1 puntu jaitsi da, 2023ko laugarren hiruhilekoan % 20,9ra iritsita.

Bestalde, Euskadin **Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten pertsonen** (altan dauden afiliatuak) batez besteko kopurua 1.012.947 da 2023ko abenduan. Horietatik % 48,3 emakumeak dira eta % 51,7 gizonak (aurreko urteko ratioen antzekoak). Zifra hori % 1,9 igo da aurreko urteko hil beraren aldean, eta altan afiliatutako 18.870 pertsona irabazi ditu.

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektoreak % 0,3 egin du behera 2022ko datuen aldean, eta eutsi egin dio alta emanda dituen afiliatuen guztizko kopuruarekiko pisuari (% 1,1). Bestalde, industria % 1,3 hazi da, batezbestekoaren azpitik (+% 1,9), eta afiliazioaren gaineko pisuan hamarren bat galdu du, % 18,1era. Eraikuntza % 0,2 soilik hazi da, eta afiliazioaren % 5,8 dauka (hamarren bat gutxiago). Azkenik, zerbitzuen sektoreak batezbestekoa baino portaera hobea izan du, % 2,2 igo baita. Bestalde, alta egoeran dagoen afiliazioa % 75,1eraino handitu da (+3 hamarren).

¹⁶ Sexuaren araberako aldaketen batura maiz ez dator bat saldo osoarekin, datuak milaka adierazita daudelako, eta BJAk datuak biribiltzen dituelako.

Produktzio-adarren arabera, gehienetan afiliazio-kopurua igo egin da 2022ko abendutik, salbuespenak salbuespen: etxeak enplegatzaile gisa (-% 1,3), erauzketa-industriak (-% 0,9), administrazio-jarduerak (-% 0,4) eta lehen sektorea (-% 0,3). Igoera absolutuak nabarmentzen dira hezkuntzan (+4.087 afiliazio, hots, % 5,1eko igoera), ostalaritzan (+2.875 afiliazio, +% 4,3), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (+1.931 afiliazio, % 3,2ko igoera), eta informazio eta komunikazioan (+1.508 afiliazio, +% 5,9ko igoera, 2022ko abenduaren aldean). Hala, lau produktzio-adar horiek afiliazioan urte artean egondako hazkundearen % 55,1 hartzen dute, eta, gainera, altan egondakoen afiliazioa 2023ko abenduan EAEko afiliazioaren % 24,2 izan da.

...

EAEko lan-merkatuak 2023an zehar izandako bilakaeraren ondorioz, BJAren **langabezia-tasa orokorra** % 7,2ra iritsi da urtearen amaieran (IV. hiruhilekoa) (aurreko urtean baino 1,4 puntu gutxiago). Era berean, EINren BAlko datuen arabera, EAEko langabezia-tasa % 6,3koa da. Europar Batasunean, langabeziak hartzen duen balio-sorta oso zabala da: Greziakoa eta Espainiakoa kopuru handiak batetik (% 10,5 eta % 11,8, hurrenez hurren) eta, bestetik, % 2-4 inguruko ratioak Txekiar Errepublikan, Maltaan, Alemanian eta Polonian. Erkidegoko batezbestekoa % 6koa zen, hots, Eurogunekoa baino puntu erdi altuagoa (% 6,5); Estatu Batuek 2023an % 3,7ko langabezia-tasa izan zuten, eta Japoniak % 2,5ekoa, erreferentziatzko beste herrialde batzuk aipatzearen.

2020an, langabeziak sei urtez behera egin ondoren, langabeen kopurua % 16,8 igo zen Euskadin. 2021ean % 11,5 murriztu zen eta 2022an (berrikusitako datuak) joera horrek jarraitu egin zuen, % 12,5 jaitsi baitzen eta 2023an berriz ere -% 17,2. Hortaz, zenbatespenen arabera, **urtea 75.500 langabaturekin amaitu zen** (-15.700 pertsona, horietatik % 79,6 emakume eta % 20,4 gizon). Adinaren arabera, langabeen kopurua bereziki murriztu da 25 urtetik beherakoan taldean (-% 26,5, hau da, -3.100 pertsona) eta % 15,7, aldiz, 45 urtetik gorakoan (-6.000 pertsona) eta 25-44 urte bitartekoan (-6.500 pertsona) taldean. Ondorioz, gazteen langabezia-tasa % 19,3tik % 14,8ra jaitsi da (-4,5 puntu).

Bestalde, 2023ko abenduan 107.779 pertsonara igo da **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratutako langabezia**, hots, 2022an baino 3.019 gutxiago (-% 2,7, eta Estatuan -% 4,6 non 2,7 milioi pertsona baino gehiago baitaude langabezia). BJAk, berriz, 75.500 langabe kalkulatu ditu urteko laugarren hiruhilekoan, ikusi dugunez.

Langabezia murriztu egin da bi sexuetan, eta gehiago gizonen artean (-% 2,9) emakumeen artean baino (-% 2,6). Bilakaera horren ondorioz, langabeen % 56,9 emakumeak dira (2022an baino hamarren bat gehiago). Adinaren arabera, erregistratutako langabezia igo egin da 25 urtetik beherakoan artean (+% 4,7 guztira, +% 5,3 gizonentzat eta +% 4 emakumeentzat), eta, aldiz, tarteko adineko taldean batezbestekoaren gaineratik murriztu da (-% 5,9, -% 6,4 gizonentzat eta -% 5,6 emakumeentzat). 45 urtetik gorakoan taldean ere jaitsi da langabezia, baina gainerako taldeetan baino gutxiago, % 1,5: gizonena % 1,9 jaitsi da, eta emakumeena % 1,2 igo.

Ikasketak mailaren arabera, erregistratutako langabezia ia maila guztietan murriztu da 2022ko abenduarekin alderatuta, Lanbide Heziketan eta goi-mailako ikasketak tekniko profesionaletan izan ezik, % 49,8 eta % 4 igo baitira, hurrenez hurren. Beherakadarik handienak, batezbestekoaren gaineratik, lehen mailako ikasketak amaituta dituztenen artean gertatzen dira (-% 11,8), lehen zikloko goi-mailako ikasketak dituztenen ondoren (-% 12,3). Ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak amaituta ez dituzten pertsonen kasuan ere jaitsi da (-% 6,3), eta bigarren hezkuntza osteko bigarren eta hirugarren zikloko ikasketak dituztenen artean ere (-% 8,6). Bilakaera, aurreko urteetan bezala, oso antzekoa da bi sexuetan. Titulazio-talde handien arabera, 2023ko abenduan erregistratutako langabeen % 41,4k hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak zituen (% 44,6k, 2022an), eta emakumeen artean pisu hori pixka bat txikiagoa da (emakume langabeen % 38,6 eta gizonen % 45). Kopuru absolutuetan, emakumeen taldea handiagoa da, ordea (23.674 emakume eta 20.899 gizon). Aurten ere, LANBIDEn erregistratuta ageri diren 10 langabetatik 6 baino gehiagok (% 63,5) kualifikazio txikia dutela esan daiteke (lehen edo bigarren mailako hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenak).

Kontuan hartzen badugu langabezian igarotako denbora, 2023an murriztu egin da 6 hilabete baino gutxiago langabezian daramaten pertsonen kopuru osoa (-% 5,8); aldiz, igo egin da 6 hilabete eta urtebete artean langabezian daramaten pertsonen kopurua, batez ere emakumeen kasuan (+% 6). Iraupen luzeko langabezia, urtebetetik gorakoa dena, jaitsi egin da bi sexuetan (-% 2,3 guztira, - % 0,9 gizonetan eta - % 3,2 emakumeetan). Ondorioz, luzaroko langabeen ehunekoa gutzitzkoaren aldean 2 hamarren igo da 2023ko abenduan, % 48,3raino (+2,2 puntu Estatu osoan, % 44,8ra iritsita). Ratio hori % 44,3koa da gizonen artean (+9 hamarren) eta % 51,4koa emakumeen artean (-3 hamarren).

Bestalde, LANBIDEn bulegoetan erregistraturiko langabeziaren datuek erakusten dutenez, 2023an igo egin zen EAEn bizi diren atzerritarren langabezia, langabezia osoa ez bezala (-% 2,7), % 3,5 igo baita. Hortaz, gora egin du atzerritar langabetuek langabezian duen pisuak, % 17,2tik % 18,4ra.

...

2022an, **lan-erreforma berria** sartu zen Espainian. Lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuaren helburu nagusia Espainian lan-merkatuaren egiturazko erreforma gauzatzea da, hartara bereizgarri dituen behin-behinekotasun tasa altuak murrizteko eta, beraz, behin-behinekotasun horren ondorioz enpleguan dagoen prekarietateari aurre egiteko. Funtsezko helburu horrekin batera, erreformaren beste helburu garrantzitsu batzuk ere lortu nahi dira, hala nola lanaldia murrizteko eta eteteko neurriak bultzatzea, ABEEE direlakoak, lan-kontratuak azkentzearen ordezkioa den aldetik, langileen prestakuntza indartzea eta negozioazio kolektiboa modernizatzea.

Kontratazioak nabarmen egin zuen behera Euskadin 2020an (-% 30,2), COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta 2021ean susperraldi handia egon zen (+% 22,5). 2022an, kontratazioa % 5,3 jaitsi zen, eta aldaketa handiak egon ziren osieran, 32/2021 ELDren ondorioz. Ondoren, 2023an, kontratuen kopuru osoan egon zen jaitsierarekin batera (-% 10,5), kontratatutako pertsonen kopurua ere murriztu zen (-% 9,5), 2022an ez bezala.

Jarduera-atalak aztertuta, ia guztiek izan dute bilakaera negatiboa, batez ere jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (-% 24,5), eta, esan bezala, eraikuntzak (-% 19). Aitzitik, igoera nabarmena ageri da informazioaren eta komunikazioaren kontratazioetan (+% 19,7). Eta, 2022an ez bezala, ostalaritzako eta arterako, jolaserako eta entretenimendurako jardueretako kontratazioetan bilakaera negatiboa izan da (-% 7 eta -% 4,7 hurrenez hurren). Manufaktura-industria kontratuen % 13,4 da, eta batezbestekoaren gainetik erori da (% 14,4). Aurreko urteetan bezala, sexuaren arabera aldeak ageri dira. Izan ere, manufaktura-industriak gizonen sinatutako kontratuen % 20,4 hartzen du (2022an baino 8 hamarren gutxiago), eta emakumeen artean, berriz, pisu handiena duten jarduera-atalak Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuen jarduerak eta Ostalaritza dira (bien artean, emakumeek sinatutako kontratuen % 36,3).

2023an kontratatutako pertsonak 275.233 dira guztira (- % 9,5, 2022. urtearekin alderatuta), SEPEk emandako datuen arabera. Adin-taldeen arabera, pertsona horietako gehienak, gizonak zein emakumeak, 35 eta 54 urte bitartekoak dira (% 39,2): 35 eta 44 urte bitartekoak (gutzitzkoaren % 20,8) eta 45 eta 54 urte bitartekoak (% 18,4). 25 urtetik beherako pertsonak % 25,1 dira (2022an % 22,6), hau da, biztanleria aktiboan duten pisua baino nabarmen gehiago, azken hori % 5,5ekoa baita (2023ko azken hiruhilekoaren datua). 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak % 26,4 dira; horietatik % 15,2 dira 25 eta 29 urte bitartekoak eta % 11,2, berriz, 30 eta 34 urte bitartekoak. 2022aren aldean, bi sexuetan jokaera nahiko antzekoa izanik, 2023an talde guztietan galdu dira kontratazioak, 25 urtetik beherako taldean salbu, bertan % 2,8 igo baitira. Gehien erori den taldea 35 eta 44 urte bitartekoena da (-% 13,3), ondoren hortik beherakoena eta ondoren hortik gorakoena (-% 10,9 eta -% 10,7, hurrenez hurren).

Kontratatutako pertsonen banaketari dagokionez, ikasketa-mailaren arabera, % 42,1ek derrigorrezko edo beheragoko ikasketak ditu, proportzio handiagoa gizonen artean (kontratatutakoen % 44,8) eta pixka bat txikiagoa emakumeen artean (% 39,3). Bigarrenik, kontratuen % 21,4 Batxilergoko ikasketak dituzten pertsoneri dagozkie. Ondoren, % 16,1 ikasketa profesionalak dituzten pertsoneri dagozkie eta % 19,6 unibertsitate-ikasketak dituztenei. 2022. urtearekin alderatuta, ikasketa-maila guztiek behera egin dute, bi sexuetan; gehien egin dutenak derrigorrezko edo beheragoko ikasketak eta Batxilergoa izan dira (+% 9,1 eta +% 7,2, hurrenez hurren), eta lanbide-heziketa dutenen taldea izan da gutxien jaitsi dena (-% 4,4).

Lanaldi-motari dagokionez, bilakaera negatiboa egon da guztietan, baita lanaldi finko etena duten kontratuetan ere, nahiz eta 2021etik 2022ra % 695,4 igo ziren. 2023an kontratu horiek % 1 jaitsi dira, eta erregistratutako kontratuen % 5 dira, hau da, 2022an baino puntu bat gehiago. Lanaldi partzialeko kontratuak 259.537 dira (2022aren aldean -% 13,7), hau da, guztien artean % 35,5 (-1,3 puntu). Lanaldi osoko kontratuak, bestalde, 434.233 dira, aurreko urtean baino % 9,2 gutxiago (eta guztien % 59,5 dira). Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia baita (% 45,9 2023an, aurreko urtean baino 2,2 puntu gutxiago), gizonen sinatutako kontratuen % 24,7ren aldean (-0,7 puntu 2022arekin alderatuta). Hala, 2023. urtean emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratuen % 65,9 (% 65,6 2022an).

Iraupenari dagokionez, sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak dira oraindik (gutzizkoaren % 74,5), 543.654, nahiz eta datu hori 2022an baino % 11,7 txikiagoa den. Bestalde, 2023an kontratu mugagabeak ere murriztu dira, baina neurri txikiagoan (-% 6,8). Hala, 186.492 sinatu dira. Erregistratutako kontratuak % 25,5 izan ziren 2022ko % 24,5en aldean, edo % 9,3 2021ean, Lan Erreforma baino lehen.

Gainera, kontratatutako pertsona gehienak hainbat aldiz kontratatu dira urtean zehar. 2023an kontratatutako pertsonen kopurua (275.233) erregistratutako kontratuen guztizkoa (730.146) baino askoz txikiagoa da. Zifra horiek kontuan hartuz, laneko txandakatze-indizea kalkulatzen da (sinatutako kontratu-kopuruaren eta kontratatutako pertsona-kopuruaren arteko zatidura), emakumeentzat handiagoa izan dena aztertutako sail guztian. 2023an, jaitsi egin dira bai kontratuen kopurua (-% 10,5), bai kontratatutako pertsonen kopurua (-% 9,5). Beraz, lan-txandakatzea berriz ere murriztu da 2,65era (-3 ehunen). Emakumeen kasuan, datua 2,81 kontratukoa da (2022) eta gizonena 2,51koa (-6 ehunen). Horrenbestez, bi sexuen arteko aldea mantendu da (30 ehunen, aurreko urteko 24ren aldean). Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena 2023an 42 egunekoa da (2022an baino bat gutxiago), Estatu osokoa baino 4 egun gutxiago.

“Lanaldi-mota” eta “iraupena” aldagaiak gurutzatuta, 2023an EAEn sinatutako 730.146 kontratuetatik ia erdia, % 46,8 (2022an % 28,8) lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate hori % 45,5 igo da (kopuru osoaren -% 10,5en aldean). Bigarrenik, lanaldi osoko aldi baterako kontratuak daude, guztizkoaren % 27,6 (% 46,7 2022an), % 47 jaitsi direnak. Hirugarrenik, lanaldi partzialeko kontratazio mugagabea, % 12,7 dena (+4,6 puntu), % 40,7 handitu da. Laugarren tokian, lanaldi osoko kontratazio mugagabea, % 7,9an kokatu da (% 12 2022an), eta % 40,9 jaitsi da. Bestalde, lanaldi finko eteneko kontratuak % 5 dira, 2022an baino 0,5 puntu gehiago, % 1 jaitsita.

...

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak **EAEn erregistratutako enplegu-erregulazioko espedientei (EEE)** buruzko estatistikak argitaratu ditu, eta 276 espediente zenbatu ditu 2023an (565 espediente 2022an); 7.404 langileri eragin die (-% 62,6), horietatik % 78,6 (2022an % 78) gizonak. Espediente-motaren arabera, eragindako langileen % 81,7 aldi baterako etete-espedienteengatik dira (-% 66,5 2022an), % 7,1, lanaldia murrizteko (-% 58,5), eta gainerako % 12,2, azkentzeko EEErengatik (-% 89,5, aurreko urtearen aldean). Azken horiek, azkentze edo kaleratze kolektiboko EEE-ek, beraz, 828 langileri eragiten diete (2022an baino 391 gehiago).

Ondorioz, aldi baterako etendurako edo lanaldi-murrizketako espedienteek, 2023an, guztira 6.576 langileri eragingo liekete, hau da, EEE-ek eragindako ia langile guztiei (% 88,8), eta 19.335 izan ziren 2022an (-% 66).

Bestalde, banakako kaleratzeek eta azkentzeko EEE-ek 2023an eragindako langileen agregatua kontuan hartzen badugu, eta iturriztat Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa hartzen badugu (10.639 kaleratze, ikusi den bezala, gehi Ministerioak kontabilizatzen dituen azkentzeko EEE-n eragina duten 1.319 langile gehiago), ikusten da % 1,6ko igoera izan dela, aurreko urtean % 1 jaitsi baitzen.

...

LHKren 2023ko behin-behineko datuen arabera, urtea indarreko hitzarmena zuten langileen % 26,5ekin hasi zen; % 47,3k, berriz, luzatutako hitzarmen bat zuen berritzeke, eta % 7,2k bertan behera zuen bere hitzarmena. **Negoiazio kolektiboaren** estaldurak, beraz, langileen % 92,8 hartzen zuen (% 90,2 aurreko urtean).

Negoiazteko jarduerari dagokionez, 2023an 351 hitzarmen erregistratu ziren *Euskadin*, 2022an baino % 19,8 gehiago, eta horrek berekin ekarri du 220.582 pertsonarentzako laneko baldintzak berritzea, aurreko urtearen bikoitza ia (langileen % 36,8). EAEn eremuan, akordio gehiago erregistratu ziren (251 hitzarmen, sektoreko 21 eta enpresako 230) EAEn eragin handiagoa izan zutenak estatuan baino (100 hitzarmen erregistratu ziren), eta, aldi berean, lehenengoek langile gehiago hartu zituzten (148.468 pertsona; estatu-mailako hitzarmenetan, berriz, 72.114).

Horrenbestez, negoziazio kolektiboaren egoera, urtea amaitzean, hauxe da: langileen % 63,8k indarrean zuen hitzarmen bat (% 36,8, urtean erregistratutako hitzarmenekin, eta % 27, aurreko urteetan); % 30,6k luzatuta zeukan berritzeko eta gainerako % 5,6k hitzarmena indargabetuta zuen (beraz, egiteko zeuden hitzarmenen % 36,2). Ondorioz, 2023. urtean negoziazio kolektiboaren estaldura % 94,4koa izan zen (2022an baino +1,6 puntu gehiago). Lan Harremanen Kontseiluak bere txostenean nabarmentzen duenez, estaldura-maila handiena da 2012ko lan-erreforma onartu zenetik.

Sexuen araberako banaketari dagokionez, 2023an igo egin da bai gizonen ehunekoa, indarreko hitzarmenekin (2022ko % 49,5etik 2023ko % 68ra), bai emakumeena, eguneratutako hitzarmenekin (% 40tik % 58,2ra). Emaizta horiekin, genero-arrakala apur bat igotzen da, 2022ko 9,5 puntuetatik 2023ko 9,9 puntuetara.

Lortutako akordioen edukiei dagokionez, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan 2023rako itundutako batez besteko soldaten igoera % 4,22 da (% 3,51 Estatu osoan). Lanaldiaren urteko batez besteko murrizketa, ostera, 0,65 ordukoa da (-0,75 ordu 2022an), hau da, urteko batez besteko lanaldi itundua 1.698 ordukoa da. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriek dagokionez, LHKren txostenak nabarmentzen du indarreko hitzarmenen % 48,7k soilik hartzen dituela barnean 2021ean horrelako neurriak (% 47,2 2020an), horietako gehienek edoskitzeko eskubidea metatzeko aukerarekin lotuta, baita indarreko legerian ezarritakoa hobetzen duten ordaindutako baimen batzuk ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak **lan-gatazkei** buruz emandako datuek erakusten dute 2023an buelta eman zaiola, hein batean, 2021 eta 2022ko goranzko joerari lan-gatazkei dagokionez: EAEn, aurtan, 325 greba erregistratu dira. Horietan, 58.307 parte-hartzaile izan dira, eta, guztira, lanik egin gabeko 169.836 egun sortu dira. Kopuru horiek 2022. urtearekin alderatuta, % 5 jaitsi da greba-kopurua eta % 55,8 lan egin gabeko lanaldiak. Era berean, greba horietan parte hartu duten langileak % 45,5 jaitsi dira 2022. urtearekin alderatuta.

Bestalde, EINren "*Lan Kostuen Hiruhilekoko Inkestako*" zifren arabera, 2023an (urteko batezbestekoak), enpresen eta langileen artean **itundutako hileko ordu**-kopurua 148,4 izan zen, 2022an baino % 0,1 gehiago. Ordu horietatik, 120,4 (+% 1,7), % 81,1, benetan lan egindako orduak izan ziren; ratioa puntu erdi jaitsi da azken urtean. Era berean, 2023an lan egin gabeko orduak 28,4 dira langile eta hilabete bakoitzeko, 2022an baino % 2,2 eta % 19,1 gehiago benetan lan egindako ordu bakoitzeko.

Zifra horiei zuzenean lotuta, gogoratuko dugu 2020an lan-merkatuan pandemiaren ondorioz izandako gertakarietako bat, enpleguaren jaitsieraz gain, **telelanaren** zabalkundea izan dela,.

2023an EAEko pertsona landunen % 13,1ek telelana egin zuen (% 7,3k noizean behin eta % 5,8k egunen erdia baino gehiago), hau da, ehuneko 2 puntuko beherakada 2022ko datuen aldean. Gainera, zifra horiek erakusten dute gora egin duela telelana noizean behin egiten duen biztanleriak (+1,4 puntu igo da), eta behera ohiko telelanak (-1,6). Estatuan, era berean, telelanaren erabilera orokorra murriztu egin da aurreko urtearekin alderatuta: % 13,6 (-3 hamarren), eta noizbehinkako telelana (+0,2) igo eta ohikoa (-0,5) jaitsi egin da. Datu horiekin, gure erkidegoa, telelana egiten duen biztanleria okupatuaren ehuneko Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa zuena, ratio horretara iristen da ia, 2023rako puntu erdiko aldearekin. Dena dela, alde horien interpretazio zuzena egiteko zenbait aldagai aztertu behar lirateke, hala nola egitura produktiboa, eta gainera kontuan hartu Estatuko batezbestekoak era askotako datuak jasotzen dituela.

...

Soldatei dagokionez, EINen “*Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren*” arabera, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 2021ean (azken datua) EAEen 31.064 € zen, hots, % 2,8ko igoera aurreko urtearekiko. Kopuru hori Estatuko batezbestekoa baino % 20 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia-erkidegoen zerrendako lehenengoa da. Ondoren, Madril eta Nafarroa datoz. Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonekoena baino autonomia-erkidego guztietan 2021ean. Hala ere, aldea desberdina da batzuen eta besteen artean. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren % 83,3 zen, eta beraz, arrakala % 16,7koa da (1,2 puntu aurreko urtearen aldean).

Eta, lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasunean ikasi ahal izateko beharrezkoa den lan-orduko irabazia kontuan hartuta, irabazia, 2021. urtean, 20,44 eurokoa izan zen gure erkidegoan, 2020. urtean baino % 2,5 handiagoa. Orduko irabazia, urteko batezbestekoa bezala, autonomia-erkidego guztietako handiena da (eta Estatuko batezbestekoa (16,54 euro orduko) baino % 23,6 handiagoa). Sexuaren arabera, EAEko emakumeen orduko batez besteko irabazia 19,58 eurokoa zen 2021ean (+% 3,1 2020ko datuekin alderatuta); gizonen kasuan, berriz, irabazia 21,12 eurora igotzen da (+% 1,9). Sexuaren araberako alde horrek esan nahi du emakumeek orduko kobratu zutela Euskadin gizonak jaso zutenaren % 92,7, edo, bestela esanda, orduko irabazia % 7,3 txikiagoa izan zela. Arrakala hori puntu bat txikitu da azken urtean.

Bestalde, EINen “*Laneko Prezioen Indizeak*” (lan-merkatuaren presioen ondorioz soilik eskulanaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, egindako lanaren kalitatean eta kantitatean izandako aldaketek eraginik izan barik) erakusten du 2020tik 2021era (azken datua) % 2,5 igo dela, Estatuko batez besteko aldakuntzarekin alderatuta (+% 2,1). Oinarrizko urtetik (2016-2021) izandako bilakaera aztertuta ageri denez, igoera % 7,8koa izan da: 2021erako EAEko datua 107,8 da, eta Estatuko batezbestekoa, berriz, 107,4.

...

Enplegurako politikei helduta, gaur egun indarrean dago 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoa, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia zehaztu eta garatzen duena. Horren definizioa “*kalitatezko enplegu inklusiboaren aldeko ituna da, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean lagunduko duena*”. Hauek dira Estrategiaren eta Planaren jarduteko printzipioak: aukera-berdintasuna; aurea hartzea, berrikuntza, erantzuteko abiadura eta erresilientzia; lurralde-oreka; adostasuna eta lankidetzak; eta gobernantza irekia eta maila askotarikoa.

Planaren “*2022ko jarraipen-txostenaren*” arabera, aurreikusitako 150 jarduketetatik 126 egin ziren urte horretan, eta, beraz, betetze-maila handia izan zen. Programatutako jardueren betetze-maila handiena izan zuten jarduera-eremuak hauek izan ziren: 1.a (enpleguaren errekuperazioa, mantentzea eta sorrera), 2.a (enpleguaren kalitatea), 5.a (enplegurako prestakuntzaren euskal eredua), 6.a (Lanbide hobetzen), 7.a (enpleguko politika aktiboen ebaluazioa) eta 8.a (Enpleguaren Euskal Sistemaren Legea). Aurrekontu-betearazpenari dagokionez, 2022an 442,36 milioi euroko gastu

globala gauzatu zen (programatutako aurrekontuaren % 89,4). Azkenik, txostenak dakarrenez, 2022rako planteatutako 39 gauzatzeko adierazleetatik 16k betetze-maila handia izan zuten, 13k betetze-maila ertaina eta 10k betetze-maila txikia.

Bestalde, **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak** funtsezko zeregina du EAEko enpleguaren gaineko politika aktiboen garapenean eta Planaren ezarpenean, zeren eta haren eginkizunak lan-aktibazioa (enpleguaren sustapena, bitartekotza, orientazioa, eta abar) eta enplegurako prestakuntza (landunak nahiz langabeak) baitira.

Aurrekontu-likidazioetatik abiatuta (aitortutako obligazioak), LANBIDEk 2022an 1.029 milioi euroko gastua izan zuela ezagutzen da (azken datu eskuragarria), 2021ean baino % 26,5 gehiago (aurreko ekitaldian % 4,3 jaitsi da); horietatik 543,8 milioi euro bideratu ziren Gizarteratze Programara, kopuru osoaren % 52,8 (2021ean baino % 19,7 gehiago), 294,4 milioi euro (% 28,6) Enplegu Programara (2021ean baino % 28,1 gehiago) eta 114,8 milioi (gastuaren % 11,2) Prestakuntza Programara (2021ean baino % 18,5 gutxiago). Era berean, LANBIDEk 2,3 milioi euroko ezohiko partida izan zuen 2022an COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurrietarako, eta 40,3 milioi euroko beste bat Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen Programaren kontura. Enplegu-politika aktiboetako gastua prestakuntza- eta enplegu-programen batura dela pentsatzea sinplifikatzea bada ere (gizarteratzeko programekin duen berriazko lotura dela eta), LANBIDEk 2022an enplegu-politika aktiboetan gauzatuak gastua 409,3 milioi eurokoa izango dela kalkula daiteke, 2021ean baino % 25,2 handiagoa, hau da, gorakada handia, aurreko urteko % 1eko jaitsieraren aldean.

Langileei zuzendutako **etengabeko prestakuntza** ere enplegu-politika aktiboen barruan sartzen da. EAEn, indarrean dagoen araudiaren eta eskumen-banaketaren ondorioz, jarduera horiek LANBIDEk eta estatu-mailan Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioak (FUNDAE) kudeatzen dituzte.

FUNDAEk sustatutako ekintzei dagokienez, 2022an (eskuragarri dagoen azken datua), 254.673 prestakuntza eman ziren EAEn, 149.515 lagunentzat, aurreko urtean baino % 6,7 gehiago, 14.445 enpresa prestatzaileraren esku-hartzeari esker (2021ean baino % 3 gehiago). Enpresa horiek 28,5 milioi euro erabili zituzten enplegurako prestakuntzarako erabilgarri zeuden funtsetatik (+% 6,3), eta, horregatik, hobaria jaso zuten Gizarte Segurantzako kuotetan.

...

Enplegurako politika pasiboak dagokienez, EAEn 2023an langabezia-prestazioetarako gastua, SEPEk emandako behin-behineko datuen arabera, 734,4 milioi eurokoa izan zen, 2022an baino % 4,8 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 0,80 da (% 0,81 aurreko urtean), eta Estatu osoko langabeziako gastu osoaren % 3,28. Estatuan 22.300 milioi baino gehiago da gastu hori (2022an baino % 4 gehiago).

2023an **langabeziagatiko prestazioen** onuradunak, batez beste, 50.324 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 1,5 gutxiago, eta 2020an hasitako jaitsierarekin jarraitu da, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. 50.324 hartzaile horietatik % 55,3 emakumeak dira (-% 0,1) eta % 44,7 (-% 3,2) gizonak.

Eta, 2023ko abenduko langabezia-prestazioak jaso zituzten 49.293 pertsonetatik, % 58,1 kotizaziopeko prestazioenak ziren (28.645 pertsona), % 38,2, laguntzenak (18.812) eta % 3,7k laneratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen (1.836). Estatuan, hilabete horretan bertan, 1,8 milioi onuradun erregistratu ziren, 2022ko abenduan bezala, gutxi gorabehera, eta kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuten pertsonen ratioa % 46,6 eta % 43,9 izan zen sorospentarako, eta % 5,2 gizarteratzeko errenta aktiborako. Gainera, % 4,3k nekazaritzako aldi baterako langileen subsidioa jasotzen zuten.

Zifra horiekin, langabezia-prestazioen batez besteko estaldura, Estatuan erregistratutako langabeziari dagokionez, % 72,2koa zen (2022ko abenduan baino 3,5 puntu gehiago), eta EAEko datua hori baino txikiagoa da (hilabete horretan erregistratutako langabeen % 52,2k lehenago lan egin zuen, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren metodologiaren arabera). Estaldura hori 6 hamarren igo da azken urtean. EAEk autonomia-erkidego guztietatik langabeziaren estaldura-tasarik txikienetako bat dauka, Ceuta eta Melilla alde batera utzita berarekin¹⁷.

...

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izateagatik **lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak** dituzten pertsonentzako enplegu-politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Kasu honetan, helburu nagusia ordaindutako enplegu duina eta inklusiboa bermatzea da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioei buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi berean, lan-merkatu arruntan sartzeko bitarteko bat izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere enplegua pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da 2022ko abenduan, EAEn, orotara 10.011 ezinduk (% 64,3 gizonak eta % 35,7 emakumeak) 84 Enplegu Zentro Berezitako (EZB) plantilletan egiten dutela lan. Sexuaren araberako banaketa ia ez da aldatu, baina kolektibo horrek 354 pertsona gehiago ditu (% +3,7) 2021eko abenduarekin alderatuta. Eta, zentro horiek mantentzeko laguntzei dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak, 2022an, 60,77 milioi euro bideratu zituen horretarako LANBIDEn bitartez (+% 10,3 2021arekin alderatuta). Horrez gain, LANBIDEK, 2022an, 5,3 milioi euro erabili zituen (+% 10,4 2021aren aldean), 4.760 langile ezinduri laguntzeko (+% 4,2) EAEko 35 EZBetan, EZBko jarduera profesionalerako laguntza-unitateetako 530 adituren lanari esker.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratzeko modalitate berezi hori laneratzeko enpresen bidez hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, bai besteren konturako langile gisa, bai bazkide langile edo laneko bazkide gisa, laneratze-enpresa batean sartzeko kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarreanean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatuztik ondorioztatzen da.

2003tik 2022ra, 160 milioi euro inguru banatu ditu Eusko Jaurlaritzak laguntza-lerro horren bidez, urtean 38 erakunde onuradun batez beste eta 5.000 laneratze-langile onuradun. 2022an 43 laneratze-enpresari eman zitzaizkien laguntzak, eta horien zenbatekoa 14,2 milioikoa izan zen. Laguntza horiek eman ziren 306 laneratze-posturi eta ekoizpenari eta laneratzeari laguntzeko 131 teknikariren lanposturi laguntzeko. Hala, 2022. urtearen amaieran, laneratze-postuak, guztira, milatik gora dira (aurreko deialdikoak, berriagoak eta berrituak).

...

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2023an 33,25 **lan-istripu** izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu-kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatu den kopurua) gure Erkidegoan milako (34,14 milako 2022an eta, beraz, ratioa 0,89 puntu jaitsi da). Sektore bakoitzari dagokionez, intzidentzia handiena eraikuntzan gertatzen da (milako 70,48), eta 0,82 puntu jaitsi da 2022. urtearekin alderatuta. Horren atzetik daude industria milako 63,04rekin (+1,08) eta Lehen Sektorea milako 54,16rekin, eta 8,11 puntu jaitsi da azken urtean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batezbestekoa baino txikiagoa da, milako 23,25 (-1,14 puntu).

¹⁷ Arrazoietakoa bat da langabezia-laguntzari lotzeko, behin kotizaziopeko prestazioa amaituta, bizikidetz-unitatearen errenta kontuan hartzen dela, eta errenta hori, EAEn, laguntza lortzeko gehieneko tartearren gainetik egoten dela askotan. Hori dela eta, langabezia dauden pertsona askok ezin dute laguntza hori eskuratu, eta sistema horretatik kanpo geratzen dira.

Autonomia-erkidegoei dagokienez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak kalkulatzeko duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, Balear Uharteak ziren rankingeko buruan istripuetan 2023. urtean (behin-behineko datuak), eta ondoren Nafarroa zegoen. EAEn, milako 29,49ko indizearekin, % 1,85 jaitsi da datua, eta, beste urte batez, Estatuko batezbestekoaren gainetik eutsi dio (milako 27,15), hein batean sektorearen egituragatik, industriak pisu handiagoa baitu, sektore horretan ezbeharren tasa batezbestekoa baino handiagoa da eta.

Bestalde, kontratu-motaren arabera lan-istripuen datuek erakusten dutenez, lan-ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Halaxe erakusten dute 2022koak diren Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioko azken datuek (eskuragarri dagoen azken datua). Zehazki, kontratu mugagabea duten pertsonen ezbehar-tasa 2022an 33,2 izan zen mila soldatako (BAIko enplegu-sailak erabiliz). Aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, berriz, 40,7 izan zen, milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio-motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2012an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea 14,3 istripukoa zela 1.000 soldatapeko bakoitzeko, eta 2022an 7,5 puntura murriztu da (serie osoko daturik baxuena). Larritasunaren arabera, azken urtean behera egin dute gorabehera arin eta larriek (-0,7 eta -30,8, hurrenez hurren) eta gora egin dute istripu hilgarriek (% 4). Gainera, istripua izan zuten pertsonen % 74,4 gizonezkoak izan ziren. Halaber, azken urtean, istripu-tasa jaitsi egin da aldi baterako kontratua duten soldatapeko langileen artean (-5,6 puntu), eta igo egin da kontratu mugagabea dutenen artean (+2,4).

IV. BIZI BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA

Bizi Baldintzak

Lehenik eta behin, Europar Batasunean, **pobreziako edo gizarte-bazterketako arrisku-tasa, AROPE** (ingelesezko siglak: *At Risk Of Poverty or social Exclusion*, 2010ean sortu zen pobrezia erlatiboa neurtzeko, pobrezia-arriskuaren tasaren kontzeptua zabalduz, diru-sarrerak soilik kontuan hartzen baititu. Horrela, AROPE tasa pobrezia-arriskuan dauden, gabezia material eta sozialak dituzten edo enpleguan intentsitate txikia duten biztanleak gehituta eraikitzen da. 2022an (eskuragarri dagoen herrialdekako azken datua), pobreziaren edo bazterketaren arriskuak biztanleriaren % 21,6ri eragiten zion EBn, 2021ean baino hamarren bat gutxiagori edo, bestela esanda, 95,3 milioi pertsonari, "2030 Agendan" ezarritako irizpideen arabera.

"Europa 2020" Estrategian zehaztutako irizpideak metodologikoki berrikusi dituen Agendaren ondorioetarako, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate baxua dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arriskua badu eta/edo gabezia material edo sozial larria badu.

EAE (munduko testuinguruan 14. postuan mantentzen da, Zelanda Berriaren eta Kanadaren artean, NBEren 2021eko Giza Garapenaren Indizearen sailkapenaren arabera), pobrezia- eta bazterketa-arriskuak biztanleriaren % 15,5ari eragiten dio 2023an (EUROSTAT eta EINren metodologiaren arabera), edo, bestela esanda, 343.500 pertsona ingururi, 2022an baino 2 hamarren gutxiagori. Intzidentzia hori, beste urte batez, nahiko txikia da Europako testuinguruan, eta Poloniako (% 15,9) eta Esloveniako (% 13,3) intzidentziekin aldera daiteke, horiek baitzituzten 2022an Batasuneko tasarik txikiak, eta Txekiar Errepublikak zuen soilik datu hobea (% 11,8).

EAEk Europako testuinguruan duen posizio konparatiboa oso ona da, bai oro har, bai AROPE tasa osatzen duten hiru elementuetan, baina adierazi behar dugu azken urtean (2022-2023) bilakaera orokorra aldekoa izan bada ere (AROEPE tasa eta lehen elementua murriztu egin dira), bigarren eta hirugarren elementuek okerrera egin dutela:

1. EBko biztanleen % 16,5 **transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan** zegoen 2022an. Egoera horretan dago, kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreraren banaketaren medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituelako herrialde bakoitzean ("pobreziaren atalasea" deritzona; beraz, herrialde bakoitzean, gutxieneko errenta-atalase horretara iristen ez den biztanleriaren ehunekoa neurtuko luke, hau da, "atalase monetarioa"). Ehuneko hori hiru hamarren murriztu zen 2021eko datuekin alderatuta, baina, hala ere, bost pertsonatik bat baino gehiago zeuden egoera horretan zazpi herrialdetan: Bulgaria (% 22,9), Estonia (% 22,8), Letonia (% 22,5), Errumania (% 21,2), Lituania (% 20,9), Espainia (% 20,4) eta Italia (% 20,1). EAE, tasa % 10,2koa da, 2022an baino 2 puntu gutxiago, eta 226.000 pertsona ingururi eragiten die.
2. 2022an, EBko herritarren % 6,7k **gabezia material eta sozial larria** izan dute; izan ere, baliabide-faltak eragindako bizi-baldintzak dituzte, hala nola faktorei aurre egiteko gaitasuna (etxeke ohiko gastuenak), etxea bero edukitzea edo urtean astebeteko oporraldia hartu ahal izatea. Ratio hori 4 hamarren igo da azken urtean. Europar Batasunean, gabezia horren eragina oso desberdina da herrialdeen artean: Eslovenia eta Finlandia (% 2tik behera), Errumania (% 24tik gora) eta Bulgaria (% 18,7). Espainiak % 9ko tasa du 2023an (2022an baino +1,3 puntu), eta EAEk % 5,6koa (% 3,7 2022an), hau da, 124.000 pertsona inguru, aurreko urtean baino 42.000 gehiago.
3. EBko biztanleriaren % 8,3 **lan-intentsitate oso baxuko** etxekekoen unitateetan bizi zen 2022an, halakotzat hartuta etxekeko 64 urtetik beherako pertsona helduek azken urtean guztizko lan-potentzialaren % 20 baino gutxiago lan egin zutenean (2021ean baino 7 hamarren gutxiago). Belgika (% 11,5), Irlanda (% 10,5) eta Finlandia (% 10,1) izan ziren Batasuneko rankingaren buruan, eta Luxenburgoko, Eslovakia, Eslovenia, Polonia eta Malta % 4tik behera zeuden. EAEko datua 1,3 puntu igo da azken urtean, % 6,3tik % 7,6ra (168.400 pertsona inguru, 2022an baino 28.800 gehiago).

Bestalde, EINEN “**Bizi-baldintzen inkestako**” 2023ko zifrek, aurreko urteetan bezala, hobera egin duten adierazle batzuk eta okerrera egin duten beste batzuk erakusten dituzte:

- Bai errenta pertsonalak bai familia-errentak hazkunde nabarmenak metatu dituzte bi urte hauetan (2023an % 10,7 eta % 10,5 hazi dira, hurrenez hurren), biak Estatuko batez bestekoa baino proportzio handiagoan, eta horrek aukera ematen du EAE autonomia-erkidegoen arabera rankingetako lehen postuetan mantentzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da prezioek aldagai horietan duten eragina.
- Azken urtean, aldagai batzuek hobera egin dute pixka bat, hala nola hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituzten familiak (3 hamarren jaitsi dira % 31,5era arte), edo ez dira aldatu (urtean astebeteko oporraldia onartu ezin dutenek % 18,8ko tasari eusten diote). Beste batzuek, aldiz, okerrera egin dute argi eta garbi, hala nola etxebizitza nagusiaren ordainketan atzerapenak dituzten etxekoen unitateek (% 5etik % 7,6ra igaro dira) edo ustekabeko gastuei aurre egin ezin dietela diotenen (% 21,4ra iritsi dira, 2022an baino 1,3 puntu gehiago).
- Ziur aski zailtasun eta gabezia handienak islatzen dituzten bi adierazleei dagokionez, biek erakusten dute bizi-baldintzek okerrera egin dutela; izan ere, okela, oilaskoa edo arraina gutxienez bi egunean behin jan ezin duten etxekoen unitateen ehunekoak gora egin du (% 3,2tik % 4,1era), eta, era berean, pobrezia energetikoak eragindako familien ehunekoak ere gora egin du (% 12,6ra iritsi da, 2022an baino 2,3 puntu gehiago).

...

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak egiten duen **Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2022ko Inkestaren (PGDI)** emaitza nagusia da 2018-2020 biurtekoan PGDI adierazleek, ongizaterik ezari zein pobrezia zorrotzeko arriskuari buruzkoek, hobera egiten jarraitzen dutela 2022an, mantenuaren dimentsioan ongizaterik ezeko arriskua izan ezik. Aztertzen diren aldagaiei begiratuta, honako hau nabarmenduko dugu:

- **Mantentze-pobrezia arriskuari** dagokionez, PGDI inkestaren arabera, 2022rako % 7,3ko intzidentzia izango da (2020an baino 7 hamarren gutxiago), eta 158.869 pertsonari eragingo die (-% 8,8). 2008arekin alderatuta, 2022ko pobrezia-tasak handiagoa izaten jarraitzen du (+1,6 puntu), eta 36.994 pertsona gehiagori eragiten die (urte horretan eragindako pertsonen kopurua 121.875 zen). **Ongizaterik ezaren arriskua** (gurea bezalako gizarte batean espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko behar diren gastu-premiekin lotzen dena), ordea, handitu egin da 2020 eta 2022 artean, % 19,6tik % 22,3ra igaro baita. Ondorioz, ongizaterik ezaren arriskuan dauden pertsonak 2022an 482.720 ziren, 2020an baino % 13,7 gehiago (eta 2008an baino % 36,9 gehiagori).
- **Metatze-pobrezia arriskuak** honako hauekin du zerikusia: epe ertain eta luzera bizi-baldintza onargarriari eusteko gaitasunik ezarekin eta ohiz kanpoko gastu-premiei aurre egiteko edo diru-sarrerarik eza osatzeko gutxieneko ondare-erreserba bat edukitzeko gaitasunik ezarekin. 2014-2020 aldiko dinamikak erakutsi zuen adierazle horren ondorengo ildo historikoa berreskuratu zela, % 2tik % 0,3ra jaitsi baitzen, eta berriz ere murriztu egin da 2020tik 2022ra bitartean, % 0,2ra arte. 2022an, pobrezia mota horrek eragindako pertsonen kopurua 3.977 izan da, 2008ko 32.838 pertsonak baino % 87,9 gutxiago. Gainera, hain aldeko bilakaera hori metatze-dimentsioko beste prekaritate-mota batzuetara ere hedatzen da: dimentsio horretako **ongizaterik ezaren** modu desberdinek biztanleriaren % 10,1 hartzen dute eraginpean 2022an (218.763 pertsona), 2020an baino 3,8 puntu gutxiago (orain arteko serieko minimoa zen). Intzidentzia hori, gainera, 2008koa (% 18,6) baino 8,5 puntu txikiagoa da.
- Arrisku-problematika edo -egoerak ez direnez automatikoki benetako pobrezia- edo estutasun-bizipen bilakatzen, PGDI **benetako pobrezia adierazlearekin** osatzen dute azterlana, hau da, arlo batzuetako bizimodu egokiak beste arlo batzuetako gabeziak orekatzen ez dituen egoerak zehazten dituzte. Benetako pobrezia tasa etengabe ari da jaisten 2018tik, urte hartan % 6,1ekoa baitzen, eta 2022an, berriz, % 4koa. Datu horrek esan nahi du benetako pobrezia intzidentzia orain arteko minimoa (2008ko % 4,2) baino txikiagoa izan dela. Termino absolutuetan,

benetako pobreziak 87.387 pertsonari eragiten die 2022an; datu hori 2020koa baino % 28,1 txikiagoa da (121.502) eta 2008an baino % 2,6 txikiagoa (89.706).

Adierazle horren bilakaerari dagokionez, halaber, emaitza hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ Benetako pobreziaren adierazle hori hartuta, **EAEko biztanleriak ongizate-pobrezia eskalan duen posizioaren arabera duen banaketa** aztertuz gero, EAEko biztanleriaren erdia baino gehiagok (% 51,3) erabateko ongizatea du 2022an, eta hori PGDI inkestak maneiatzen duen serie historikoaren proportziorik handiena da (eta 1996an baino % 155 gehiago, orduan ratioa % 20,1ekoa baitzen). Gainera, pobrezia-motaren batek (I., II. eta III. kategorien batura) eragindako taldeen garrantzia zertxobait igo da. Katgoria horiek biztanleriaren % 24,2ri eragiten zioten 2020an, eta % 24,7ra igaro da 2022an, III. kategoriaren pisua handitu delako. Tarteko posizioan kokatzen den taldea (ongizate ia osoa, IV. katgoria) 2,2 puntu murriztu da, % 26,2tik % 24ra.
- ✓ **Lurralde-dimentsioan**, 2020an ez bezala, orduan Araban eta Gipuzkoan pobrezia errearen hazkunde moderatuak gertatu baitziren, Bizkaiko egoeraren hobekuntza nabarmenarekin batera, 2022an hiru lurraldeak nabarmen hobetu ziren, eta ez soilik pobrezia errealean, baita mantentze- eta metatze-dimentsioetan ere. 2020tik 2022ra bitartean, Bizkaian benetako pobreziaren tasa % 5,4tik % 3,9ra jaitsi da. Araba, % 5,1ekin, benetako pobreziak gehien kaltetutako lurraldea da 2022an, Gipuzkoa baino 1,4 puntu gehiago eta Bizkaia baino 1,2 puntu gehiago baititu, baina 2,2 puntu hobetu ditu 2020arekin alderatuta. Gipuzkoa, azkenik, % 5,1etik % 3,7ra igaro da, eta, horrenbestez, benetako pobreziaren tasarik txikienarekin geratu da.
- ✓ Inkesta honetan aztertzen diren **aldagai sozioekonomikoekiko hurbilketa sintetiko** batean, benetako pobrezia-egoeren % 68,6 lau etxeko unitate espezifikori dagokie 2022an: EBtik kanpoko atzeritarrek osatutakoak (% 36,6), lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako pertsonak dituzten familia-taldeak (% 11,3), okupazio egonkorra duten emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak (% 10,6) eta lan egonkorrik ez duten emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak (% 10,1). Lau talde horiek benetako pobrezia-egoeretan duten garrantzi erlatiboa 3,5 puntu igo da azken biurtekoan, batez ere lan egonkorra duten emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familietan pobrezia-egoeren garrantzia nabarmen handitu delako (guztizkoaren % 2tik % 10,6ra igaro da).

...

Bestalde, EAEko **familia-sistemen** tipologia nabarmen aldatu da azken hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, honako hauek daude: etxe-moten dibertsitate handiagoa; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profileen; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea.

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozen gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez.

EUSTATEk "*Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta*" egin du. Inkesta horren 2022ko emaitzak nabarmentzekoak dira. Hasteko, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonen baino % 30,6 ordu gehiago ematen dituzte egunean seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 35,3 gehiago mendeko pertsonak zaintzen; gainera, bikotekideek baino % 30,6 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan. Gizonen 3,6 ordu ematen dituzte egunero adingabeak zaintzen (3,5 ordu 2021ean); emakumeek, berriz, 4,7 (4,9 2021ean). Alde hori dezente handiagoa da mendeko pertsonen zaintzari dagokionez; jarduera horretan egunean 1,7 ordu ematen dituzte gizonen (1,4 2021ean) eta 2,3 ordu emakumeek (2,2 2021ean). Horrez gain, etxeko lanetan, emakumeek 2 ordu ematen dituzte batez beste egunean, eta gizonen, berriz, 1,5 ordu (2,1 eta 1,6 ordu hurrenez hurren 2021ean).

Batez besteko horiek batuz, emakumeek etxeko lanetan eta zainketa lanetan emandako denbora, guztira, 9 ordu dira, gizonen 6,8 orduen aurrean. Beraz, arrakala % 32,4koa da. Ratio hori % 41,5ekoa zen 2021ean; beraz murriztu egin da. Bere gain hartutako kargen desberdintasun horrek etxeko lanen banaketarekiko gogobetetze-mailari eragiten dio; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 6,2ko gogobetetze-maila adierazten dute beren ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko eskaintzen duen lankidetzari buruz, eta gizonen 7,8koa.

Enpresan edo erakundeetan baimen jakin batzuk eskatzeko zailtasunari dagokionez, EUSTATen inkestaren arabera, landunek, batez beste, 10etik 3,3ko zailtasun-maila dute (2010ean 2,6koa), eta, 2,4koa, zehazki, norberaren arazoak konpontzeko lanetik irteteko baimena lortzeko (2010ean 1,4koa). Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea errazteko neurrien artean, eszedentziek 3,8ko batez besteko zailtasuna dute (3,2koa 2010ean), lanaldi-murrizketak ere 3,7ko zailtasuna (3,2koa 2010ean), eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 10etik 3,2ko zailtasun-indizea dute (2,4koa 2010ean). 2021arekiko aldaketei dagokienez, 2022an 2018an hasitako zailtasunen beherakada sendotu egin da.

Zailtasun horietan ez da antzeman sexuaren araberako desberdintasunik, eta adinak, ziur aski lanpostuko antzinasunari lotuak, aipatutako uztartze-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeen artean gizonen artean baino beldur handiagoa dago uztartzearekin lotutako zenbait alderdik beren ibilbide profesionalean izan dezaketen eragin negatiboa dela eta (emakumeen % 30,5ek uste zuten hori, eta gizonen artean, berriz, % 26,5ek, 2022an) (eskuragarri dagoen azken datua).

Horren isla da gizonen neurri horietan (eszedentziak edo lanaldi-murrizketak hartzeagatik emandako laguntzak) duten parte-hartze ia testimoniala, azken urteotan ez baita nabarmen aldatu. Hala, adingabeak edo mendetasuna duten senitartekoak zaintzeko lan-eszedentzia hartzeagatik Eusko Jaurlaritzari egindako laguntza-eskaeren % 13,5 sinatu zuten soilik gizonen 2022an. Gauza bera esan daiteke lanaldi-murrizketagatik laguntzei dagokienez, nahiz eta horietan gizonen partaidetza zertxobait handiagoa den (% 15,2), Eusko Jaurlaritzaren datuekin Legebiltzararentzat egindako txosten batean (eskura dagoen azken datua).

Ordutegi-motei eta malgutasunari dagokienez, EUSTATen Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestaren arabera, 2022an, EAeko langileen % 17,5ek ia egunero luzatu behar dute lanaldia (eta % 16,8k batzuetan). 2021. urteari dagokionez, lanaldia normalean edo noizbehinka luzatu behar duten pertsonen ehunekoa pixka bat murriztu da. Ildo beretik, EUROSTATEk "Antolaketa eta lanaldiari" buruz egindako inkestaren arabera, 2019an, EBko langileen % 21ek, asteen behin, lanaldia egokitu behar zuten beren enpleguaren eskakizunetara eta % 19 baino gehiagok hilean behin (ratioak % 13 eta % 10 dira Espainian, hurrenez hurren) (eskuragarri zeuden azken datuak).

Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestaren arabera, irteera-ordutegi malgua, kontziliazioa hobetzeko tresna osagarria, EAeko langileen % 52,6k baliatzen dute (% 47,1k 2020an), eta neurri txikiagoan emakumeek (% 47,6) gizonen baino (% 57,4). Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %11,1ek noizean behin egiten du lan etxean eta %6,7k egunen erdia gutxienez. Oro har, beraz, enplegua duten pertsonen % 17,8k noizbehinka edo maizago lan egiten du etxean (% 18,7k 2021ean, % 18,1ek 2020an eta % 15,5ek 2019an), eta ratio horrek COVID-19aren eragina izan zuen¹⁸.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gaintzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera. 2017an, ordura arte garatutako ekimenei buruzko hausnarketa zabala egin ondoren, Familiaren Euskal Kontseiluak "Familien eta Haurren aldeko Ituna" adostu zuen, 2018an EAeko administrazio guztiek sinatua. Itun hori diagnostiko partekatutako batean oinarritzen da¹⁹, eta horri esker definitu ahal izan zen "2018-2022 aldirako familiei laguntzeko IV. Plana", orain arte azkena izan dena.

¹⁸ Ikus memoria honetako "III. Enplegua eta lan-harremanak EAEn" atala.

¹⁹ Diagnostiko hori zehazteko, memoria honen 2019ko ediziora jo behar da.

Aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioari dagokionez, 2022an Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak 44,6 milioi euro bideratu zituen guztira familientzako transferentzia horietara, 2021ean baino % 11,4 gutxiago; horietatik 22,9 milioi seme-alabak dituzten familientzako laguntzetarako (guztizkoaren % 51,4) eta 21,7 milioi uztartzeko laguntzetarako (guztizkoaren % 48,6).

Memoria hau egin den datan, 2023ko aurrekontu-zifrak ezagutzen dira (2023ko azaroko datu eguneratuak), eta agerian uzten dute seme-alabak dituzten familientzako laguntzetara bideratutako funtsak asko handitu direla 27/2023 Dekretu berriaren ondorioz. Dekretu horri esker, hiru urtetik beherako seme-alabak beren kargura dituzten familiei 200 euro ordaintzen zaie hilean jaiotzen direnetik hiru urte bete arte, eta hilean 100 euro ordainduko zaizkie adingabeak zazpi urte bete arte, hirugarren seme-alaben eta ondorengoen kasuan (familia ugariak). Hori dela eta, seme-alabak dituzten familientzako laguntzetara bideratutako zenbatekoa 22,9 milioi eurokoa zen 2022an, eta 115 milioioa 2023an. Kontziliaziorako laguntzei dagokienez ere hobetu egin da haien zuzkidura, eta igoera handia izan da 14 urtetik beherakoen zaintzaileak kontratatzeke laguntzen kasuan. Horrela, laguntza horiek, guztira, 34 milioi eurotik gorakoak dira (+% 58,3). Laburbilduz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren *Familia eta Komunitate Politika 3124 programaren* kontura emandako laguntzak 149,4 milioi eurokoak izan dira, eta 2022an, berriz, 44,6 milioi eurokoak.

Bestalde, seme-alabak dituzten familientzako eta kontziliaziorako **laguntzen onuradun diren pertsonen (familien)** zifrak ezagutzen dira, Ekonomia eta Ogasun Sailak *“Dirulaguntzen Programen Ebaluazioaren”* urteko txostenean sailez sail jasotako informaziotik abiatuta. Erabilgarri dagoen azkenak, 2022ko ekitaldiari buruzkoak, adierazten du urte horretan 43.469 pertsonak jaso zituztela familientzako laguntzak, 2021ean baino % 5,4 gutxiagok. Horietatik 30.184 (guztizkoaren % 69,4) jaiotzagatik eta/edo adopzioagatik familiei ematen zaizkien laguntzei dagozkie (+% 3,9 2021ekin alderatuta), eta 13.285 langile (guztizkoaren % 30,6) uztartze-laguntzen onuradun izan ziren (-% 21,5 2021ekin alderatuta).

...

Azkenik, Europako Batzordeak 2020ko azterlan batean aditzera eman zuenez, azken hamarkadan bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopuruak gora egin du Batasuneko herrialde guztietan, Kroazian, Polonian eta Portugalen izan ezik, han egonkortu egin baita, eta Finlandian, estatistikoki nabarmen murriztu den herrialde bakarra baita. Ondorioz, gauero 700.000 pertsonak baino gehiagok egiten dute lo aire librean Europan, duela hamarkada bat baino % 70 gehiagok. Egoera horrek, COVID-19aren pandemiak areagotuta, [“Lisboako Adierazpena”](#) sinatzera eraman zituen Europako erakundeak 2021ean, etxegabetasunaren aurkako borroka Europa sozialerako lehentasun gisa berresteko.

Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dagoen pertsona kopuruari dagokionez, EAEn bizi direnean artean, haien ezaugarri demografikoak eta bizitza-baldintzak eta bizitza-ibilbideak ezagutzeko, Eusko Jaurlaritzak *“EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko VI. azterlana”* egin zuen 2022an. Horri esker, 2012tik egiten dituen zenbaketen jarraipena egiteko aukera izan zuen. Hona hemen txostenaren emaitza nagusiak:

- Guztira, bizitegi-bazterketa larrian zeuden 3.380 pertsona zenbatu ziren. Horietatik bosten bat (% 19,5) kalean aurkitu zituzten (658). Gainerako % 80,5ek ikerketa honetan jasotako eta ostatua eta egoitzak zituzten Gizarte Zerbitzuen sareko zentzoren batean pasatzen zuen gaua (2.722 pertsona). Zehazki, % 58,9k gizarteratzeko zentro eta pisuetan egiten zuen lo, % 15,4k aterpetxeetan eta gaueko harrera-zentroetan eta % 6,3k indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-zerbitzuetan.
- Aurreko urteetan bezala, kolektiboaren gehiengoa EAeko hiriburuetan hauteman zen (% 77,1). 2016az geroztik gora egin du “aterperik gabeko” pertsonen kopuruak Bilbon, 2016an 298 pertsona izatetik 2022an 475 izatera igaro baita, hau da, % 59 gehiago. Donostian, igoera are handiagoa izan da: 2016an 180 izatetik 2022an 326 izatera igaro da (+% 81). Aitzitik, Gasteizko egoeraren ezaugarri nagusia egonkortasuna da (115 pertsona identifikatu ziren 2016an eta 2022an).

- Zenbatutako pertsonen artean, 10etik 9 gizonak dira, eta hiriburuetan gizonen garrantzia handitzeko joera txikia dago. Hiru hiriburuetan 2022an zenbatutako “etxerik gabeko” pertsonen % 91 gizonak dira eta % 9 emakumeak. Adinaren ikuspegitik, 30 urtetik beherakoen proportzioa zertxobait igo da. 2016an % 25 izatetik 2022an % 35 izatera igaro da. Adin ertaineko pertsonena (30 urtetik 44ra) mantendu egin da eta helduagoak diren pertsonena (45 urtetik 64 urtera) murriztu egin da, 2016an % 36 eta 2022an % 29 baitziren.
- 2016az geroztik, atzerritar jatorriko pertsonen pisu erlatiboa etengabe hazi da “aterperik gabeko” pertsonen kolektiboan. Proportzioa 2016an % 63 izatetik 2022an % 78 izatera igaro da. Esan daiteke, hain zuzen ere, “etxerik gabeko” pertsonen kopuruak Euskadin izan duen hazkundearen arrazoi nagusia “etxerik gabeko” atzerritarren kopuruak gora egin izana dela. Kaleko atzerritarren pisu handiena Donostian (% 95) eta Bilbon (% 84) dago, eta neurri txikiagoan, Gasteizen (% 51).
- Kolektiboaren ezaugarri dagokienez, % 33,1ek 4 urte baino gehiago daramatzate etxerik gabe, eta % 40k bat baino gutxiago. Bostetik bat adingabeak hartzeko zentroetan egon zen haurtzaroan eta/edo nerabezaroan, eta zailtasun sozioekonomikoak egoitza-bazterketako hiru egoeratik biren atzean leudeke, bereziki, baliabide ekonomikorik eza (% 45) eta lan-aukerak galtzea (elkarrizketatutako pertsonen % 25).
- Prestakuntza-mailari dagokionez, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen % 45ek lehen mailakoa baino ikasketa-maila handiagoa du (horietatik % 39k bigarren mailako edo erdi-mailako ikasketak ditu, eta % 6k unibertsitate-ikasketak), eta bostetik batek ordaindutako lan-jarduerak egiten ditu. Hala eta guztiz ere, % 26k ez du diru-sarrera erregularrik (kontuan hartuta diru-sarrera horiek lan-jardueretatik, gizarte-erakundeetatik edo gizarte-babeseke sistematik etor daitezkeela, diru-sarreraren iturri ohikoenen artean).
- Azkenik, osasun-arrakala handia dago biztanleria osoarekiko, eta nahasmendu eta gaixotasun mentalak dira osasun-arazo hedatuak, kolektiboaren % 18ri eragiten baitiote. Ondoren, arnasketako eta zirkulazioko gaixotasunak daude.

Egoera horren aurrean, euskal erakundeek erakunde arteko akordio bat sinatu zuten 2018an, “ *Etxerik gabeko pertsonentzako euskal estrategia 2018-2021*” garatzeko, Euskadiko udalerrri handietan kalean lo egiten duten pertsona kopurua nabarmen murrizteko -% 20 gutxienez-. Horretarako, pertsona horiei laguntzeko politika integralak diseinatu ziren.

Estrategiaren Ebaluazioak agerian uzten du strategiaren betetze-maila, oro har, batez bestekoa izan dela, 3tik 1,786ko kalifikazioa lortu baitu, estrategia osatzen duten ardatz eta gidalerro guztietan. Estrategiak ezartzen dituen bederatzi esku-hartze eremuetako (ardatzak) bakoitzaren egikaritze-mailari dagokionez, garapen handiagatik nabarmentzen dira, onartutakoaren gaintik eta ondorengo ordenan, 3. ardatza, Gizarte Zerbitzuen eremuan gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonen zuzendutako baliabideak eta programak hobetzeari buruzkoa (3tik 2,2); 9. ardatza, ezagutzaren koordinazioari, ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa (2,1); 2. ardatza, etxebizitzan oinarritutako ikuspegiari buruzkoa (2, 1. ardatza, etxegabetasun-egoerak prebenitzeari buruzkoa (1,9); 5. ardatza, erregularizazioari eta eskubideak eskuratzeari buruzkoa (1,8); eta 6. ardatza, osasunaren, enpleguaren eta diru-sarrerak bermatzeari buruzkoa (1,6).

Aitzitik, 4. ardatzak, Genero-ikuspegia indartzea bizitegi-bazterketa prebenitzeko eta horri aurre egiteko politiketan (3tik 1,4); 7. ardatza, Etxerik gabeko pertsonen aisialdirako, hezkuntzarako eta gizartean eta politikan parte hartzeko aukera izatea (1) eta 8. ardatza, Bizitegi-bazterketako egoerak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko sentsibilizazioaren eta komunitatearen inplikazioaren eremuan egindako hobekuntzek (0,5) dituzte abian dauden jardueren ehuneko txikiak.

Bizi baldintzak

Lehenik eta behin, EUSTATen 2022ko **“EAEko Gizarte-babesaren Kontuaren”** azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 22.663 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2021ean baino % 3 gehiago, +652 milioi). Kopuru hori urte horretako BPGdaren % 26,3 da (2021ean baino 1,9 puntu gutxiago). Gizarte-babeseko gastu osoak etengabe egin du gora denbora-serie erabilgarrian, eta biztanleko gastua 6.402 eurokoa izan zen 2008an, eta 10.346 eurokoa 2022an (+% 61,6). Gainera, EUROSTATEk argitaratutako azken datuekin, 2021ean, Euskadiko gizarte-babeseko per capita gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 10.183 eurokoa izan zen, EBko batez bestekoa (9.805 €) baino handiagoa, bai eta Estatuko batez bestekoa (7.332 €) baino handiagoa ere, nahiz eta euroguneko 11.229 € per capita baino txikiagoa izan.

...

Bigarrenik, 2023an, milioi erdi pertsona baino gehiago (531.828, lehen zenbatespenaren arabera) **Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen** onuradunak izan ziren gure Erkidegoan (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak), aurreko urtean baino % 0,7 gehiago. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen kolektiboaren pisuaren eta bilakaeraren ondorio da, gainerako modalitateak, oro har, gutxieneko kopuruetan mantentzen baitira. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 24,2ra heldu zen, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (onuradunen % 97,5 eta gastuaren % 99,2), 2023an batez beste 518.417 onuradun daude (+% 0,7), eta 573.000 pentsio jasotzen dituzte (+% 0,8). Izan ere, pertsona batek kotizaziopeko pentsio bat baino gehiago jaso ditzake, eta urteko gastua 11.841,4 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2022an baino % 10,5 gehiago. Kotizazio gabeko pentsioek, bestalde, 13.411 pertsona estaltzen zituzten 2023an (urteko batez besteko datua), eta 92,3 milioi euroko gastua sortzen zuten (+% 9,7, 2022. urtearekin alderatuta). Laburbilduz, EAEn pentsioetan egindako guztizko gastua, 2023an, 11.933,7 milioi eurora igo zen, behin-behineko datuekin, eta % 10,5eko igoera izan zuen 2022. urtearekin alderatuta. Hala, BPGdari dagokionez, ehuneko 6 hamarren igo da, % 13,1eraino (EUSTATen behin-behineko datuekin).

Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen EAEko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako zifrak erlazionatzen baditugu, 2022an, bi zifrak eskuragarri dauden azken ekitaldian, gastua 10.718,9 milioiokoa zen, 8.279,4 milioiko diru-sarreraren aurrean, eta, beraz, saldoa negatiboa izango litzateke, 2.439,5 milioi eurokoa, 2021ean baino % 2,4 handiagoa.

...

EAEko pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko tresna nagusien artean —Gizarte-zerbitzuei buruzko Legean, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean eta Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretuan jasoak—, honako hauek daude: gaur egungo diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL), **Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari** sartutako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak hainbat plan egin izan ditu pobreziaren eta gizarte-bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak ezartzeko eta aipaturiko araudia garatzeko abiatu beharreko helburuak eta neurriak egituratzeko. Gaur egun “2022-2026 Inklusiorako V. Euskal Plana” dago indarrean, zeinean urteko 1.202 milioi euroko ordainketa jasotzen baita —hezkuntzako eta osasuneko gastuak zenbatu gabe—, hau da indarraldian zehar 6.010 milioi euro inguruko gastu metatua.

2023rako jarraipen-datuek erakusten dutenez, Plan Operatiboan 17 trakzio-politiketarako eta 31 proiektu esperimentaletarako urte horretarako zenbatetsitako aurrekontuaren % 86,7 egikaritu da; zehazkiago, 45.717.362 € egikaritu dira, eta hasierako aurreikuspena 52.700.132 eurokoa zen.

Bestalde, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa *Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE)* da. Laguntza horien ondorioz, 2022ko PGDI inkestaren arabera, Euskadin pobreziaren atalase-mailaren azpian bizi diren pertsonen kopurua % 45,3 jaitsi da. Zifra horietatik ere ondorioztatzen da sistema hori pobrezia-arriskuan zeuden biztanleen % 75,5 zela erreferentziako urtean: 120.594 pertsona (biztanleria osoaren % 5,6).

2023an 56.144 bizikidetz-unitatek jaso zuten DSBEa (abenduko datua; 96.253 onuradun), eta laguntza horiek 49.413 izan ziren 2022. urtearen amaieran. Horrek esan nahi du % 13,6ko igoera egon dela, zeinak 2021-2022 biurtekoaren jaitsiera irauli baitu. *LANBIDEn 2023ko espediente aktiboen fitxari* esker, jakin badakigu bizikidetz-unitateetako 56.144 pertsona titular zeudela inskribatuta, % 42,7 gizonezkoak ziren eta % 57,3 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 45-54 urte bitartekoa da (gutzizkoaren % 23,4), eta nabarmentzekoa da, halaber, 8.911 jasotzailek 34 urte baino gehiago dituztela (% 15,9). DSBEa jasotzen emandako denborari dagokionez, 2023ko urteko batez besteko datuen arabera, titularren % 17,6k urtebete baino gutxiago darama hartzaile gisa, % 24,6k urtebete eta bi urte artean, % 20,2k 3 eta 5 urte artean, % 19k 6 eta 10 urte artean eta gainerako % 18,7k 10 urte baino gehiago daramatza DSBEa jasotzen.

LANBIDEn zifren arabera, bizikidetz-unitate hartzailearen titularraren profila (aztertutako seriean ia ez da aldatzen) honako hau da: emakumea, Espainiako nazionalitatearekin, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituen (% 62,3k derrigorrezko ikasketak ditu —amaituta edo ez—, % 17,1ek lanbide-tituluren bat, eta % 4,3k unibertsitate-titulazioren bat). Gainera, urtebete eta 5 urte artean jaso izan du DSBEa (gutzizkoaren % 44,8; 2023ko batez besteko datuekin). Bestalde, titular hartzaileen % 25,8 pentsiodunak dira (2021ean % 24,5). Era berean, 9.695 pertsonak, hau da, bizikidetz-unitate hartzaileen % 17,3k, jasotzen dute DSBEa, soldata-errenten osagarri gisa (+1,8 puntu 2022arekin alderatuta). Prestazioa jasotzen duten atzerritarrak, bestalde, titular hartzaileen % 38 dira (2022an % 32,1, urteko datuekin).

2010ean, 18/2008 Legea garatzeko, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) jarri zen abian. Prestazio ekonomikoen sistema bat bideratzea du helburu, DSBEaren osagarri, biztanleriaren talde ahulenei etxebizitzarekin lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arte gehieneko zenbatekoa izan dena). 2023an 87,5 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako (+% 12,6 2022ko datuekin alderatuta). Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2023ko abenduan DSBEaren onuradun ziren 25.489 bizikidetz-unitatek EPOa ere jaso zuten (aurreko urtean baino % 8,3 gehiago).

EPOa abian jarri ondoren, gizarte-larrialdietarako laguntzek (GLL), Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, jatorrizko helburua berreskuratu dute (oinarrizko premia espezifikoek aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenei, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko behar adinako baliabiderik ez duten pertsonen noizean behin gertatutakoak), eta nabarmen murriztu dute aurrekontu-partida. 2022an (eskuragarri dugun azken datua) 48,42 milioi euro erabili ziren laguntza horietarako (+% 4,5 2021eko datuekin alderatuta). Zenbateko horretatik, % 54,2 Bizkaiari dagokio, % 28,5 Gipuzkoari eta gainerako % 17,3 Arabari. 28.527 kontsumo-unitate hartzaile kontabilizatu ziren, 2021ean baino % 3,2 gutxiago, eta 65.823 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik, hala nola lehen mailako premiengatik (gutzizkoaren % 17,1), alokairuagatik (% 14,5), energiagatik (% 26,8) edo etxebizitza mantentzeagatik (laguntzen % 27,9). Laguntza bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 1.697,55 eurokoa izan zen (+% 7,9 2021ekoaren aldean).

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2023an, 516,1 milioi euro gastatu zituen orotara, 2022an baino % 20,6 gehiago. Honelaxe daude banatuta: 380,2 milioi diru-sarrerak bermatzeko errentan egindako gastuari dagozkio (guztizkoaren % 73,7 eta 2022an baino % 25,9 gehiago), 87,5 milioi etxebizitzarako prestazio osagarriak (guztizkoaren % 17 eta 2022an baino % 12,6 gehiago) eta, azkenik, 48,4 milioi euro gizarte-larrialdietarako laguntzetarako (Sistemaren guztizkoaren % 9,4; 2022ko gastutik aurrera zenbatetsitako kopurua da —ez daukagu datu ofizialik—).

Konparazioa egite aldera, Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioaren “Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostenari” esker, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien urteko jarraipen konparatiboa egin daiteke, araudien heterogeneotasuna eta sistema horien garapen-mailak kontuan hartuta betiere. 2022ari dagokion txostenaren arabera (argitaratu den azkena), gure Erkidegoak, 2022an, Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien % 22 erabili zuen DSBerako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz ehuneko handiagoa da; izan ere, % 4,7koa zen erreferentziatzeko urtean.

2020an, Estatuan *bizitzeko gutxieneko diru-sarrera* (BGDS) sortu zen. Pandemiaren krisialdi bete-betean agertu zen, eta COVID-19ak Espainian eragindako zurgarritasun ekonomiko eta sozialaren gorakadari erantzun zion. Hala ere, ez da pandemiari lotutako koiunturazko neurria, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena osasun-krisiak bizkortu baitu. Tresna honen helburua da konponbidea ematea diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari.

Gizarte Eskubide, Kontsumo eta Agenda 2030 Ministerioaren “*Estadísticas IMV*” txostenaren arabera, 2023ko abendura arte GSINK 735.562 etxeri aitortu die prestazio hori, eta 2.157.712 pertsonak jaso dute prestazioa. Laguntza horietara bideratutako funtsen zenbateko osoa, martxan jarri zenetik 2023ko abenduaren 31ra arte, 8.989 milioi eurokoa da.

Iturri horrek berak erakusten duenez, EAEn 29.857 ebazpen onartu ziren 2023ko abenduaren 31ra arte, eta datu hori 67.573 onuraduni dagokie, guztira 424,8 milioi euro ordainduta. 2023an, Euskal Enplegu Zerbitzuak 187,2 milioi euroko laguntza horiek izapidetu zituen (2022an baino % 14,3 gehiago). Laguntza horiek 6.887 familia-unitateri ordaindu zitzaizkien, hots, 20.000 pertsona baino gehiagori (+% 15,8).

Azkenik, esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatuz gizarteratzea bultzatzeko programen barruan, 2023an Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak eman zituen, guztira 4,79 milioi eurokoak, aurreko urteko zenbateko bera. Laguntza horietatik, 3,74 milioi (% 78,1) “esku-hartze soziala” ildora bideratu ziren, % 12,5 (599.000 euro) “indartze asoziatibora” eta gainerako % 9,4a (450.000 euro) “ezagutzaren kudeaketa” ildora. Eusko Jaurlaritzaren programa zehatz horren zenbatekoak dira, baina beste erakunde batzuek (foru-aldundiak eta udal ugari) ere funtsak bideratzen dituzte helburu horietara, eta ez dago programa horiei buruzko informaziorik.

...

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) arretako sare publiko egituratua da, erantzukizun publikokoa, eta bere helburua da gizarteratzea, autonomia eta ongizatea bideratzea pertsona, familia eta talde guztiei, sustapen, prebentzio, babes eta laguntza funtzioa garatuz, funtsean pertsonen eta harremanen arlokoak diren prestazioen eta zerbitzuen bidez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (GZL) arautzen eta antolatzen du sistema hori, eta hauek dira haren ezaugarri nagusiak: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzea, Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzea eta, horrela, eskubide horren irismena zehaztea eta haren garapena eta ezarpena bermatzea, eta, azkenik, katalogo horren garapenaren aurreikuspena, prestazio eta zerbitzuen zorro baten bidez, horren ezaugarri nagusiak eta sarbide-baldintzak definituko dituena.

GZESa "Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin" osatzen da. Plan horren bigarren edizioa 2023-2026 aldirako egin da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ahalik eta eraginkortasunik eta efizientziarik handiena lortzeko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduketak planifikatzeko. Plan horren arabera, GZESaren gastu korrante publikoa urtean 1.491 milioi eurokoa izango da 2025erako, eta 1.695 milioi eurokoa 2030erako.

Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoaren helburua baliabideak euskal gizartearen zahartzeari egokitzea da, baby boomaren belaunaldiak hurrengo hamarkadan izango duen eragin demografikoa kontuan hartuta. Gainera, pandemiatik sortutako premiazko egoerei erantzutera bideratu da, gizarte-zaintzen ikuspegi berezi batekin, batez ere erantzukizun publikokoei dagokienez. Planaren helburua gizarte-zerbitzuak demografia- eta gizarte-trantsizioetara egokitzea da, funtsezko proiektuen bidez, eta bost helburu estrategiko ezartzen ditu:

1. **Autonomia:** Arreta-piramidea alderantzikatu nahi du, komunitatean lehen eta bigarren mailako piramideak indartuz kontingentzia guztietarako (desgaitasuna, mendekotasuna, bazterketa, babesgabetasuna). Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea sustatzen da, eta adinekoentzako egoitza-zentroak eraldatzea planteatzen da.
2. **Integrazioa:** Bazterketa-sarea indartzea du helburu, lehen mailako zein bigarren mailako arretaren artikulazioan eta jarraitutasunean aurrera eginez, eta arreta hori eredu komunitarioaren arabera deszentralizatuz. Gizarteratzeko laguntzak bultzatuko dira.
3. **Oreka:** Planak zaintzen antolaketa soziala sustatzen du, lidergo publiko batetik abiatuta. Oreka berri bat bilatzen du erakundeen zaintzaren (erantzukizun publikokoa) eta familiaren zaintzaren artean, lehenengoari mesede eginez.
4. **Artikulazioa:** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kudeaketa bultzatzea eta sistemaren kudeaketa integratu eta kolegiatuan aurrera egitea.
5. **Genero-ikuspegi intersektionala:** Generoaren, adinaren, jatorriaren eta autonomia-mailaren araberako diskriminazio-egoerak hautematea eta horiei aurre egitea, arreta dibertsitateara egokituta.

...

EAEko Gizarte-zerbitzuen gastua 2021ean (urte horretakoa da daukagun azken informazioa) 3.023,7 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 5,5 gehiago, EUSTATen ²⁰ "Gizarte-zerbitzuei eta Gizarte-ekintzari buruzko Estatistikaren" arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGdaren % 3,9 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.378,7 euroko gastua, 2020 baino % 5,8 gehiago.

Gizarte-zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen dituztenak, bien artean gastuaren % 64,8 hartzen baitute (guztizkoaren % 38,9 eta % 25,9, hurrenez hurren). Herritar guztientzako baliabideen artean, familientzako transferentziak nabarmentzen dira, 786,6 milioi euro, gastu osoaren % 26, eta % 0,2 murriztu dira azken urtean. Adinekoegi dagokienez, haiei ematen zaien arreta, nagusiki, honako prestazio hauek dira: egoitza-zerbitzuak, eguneko laguntza-zentroak, etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza. EAEn 432 zentro zeuden 2021ean (2020an baino 2 gutxiago), eta horietatik 145 titulartasun publikokoak ziren eta 287 titulartasun pribatukoak. Sistema horrek, erreferentziako urtean, 654,6 milioi euroko gastua eragin zuen (-% 1 2020ko datuekin alderatuta), gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 21,6 (2020an % 23).

2007ko Mendetasunaren Legea ezartzeari dagokionez, *Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren* (IMSERSO) 2023ko abenduaren 31ko azken datuen arabera, aipaturiko data horretan, EAEk 114.252 balorazio-eskaera zituen erregistraturik Mendetasunaren Arretarako Sistemaren. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzateste berrikuspenei dagozkie. Eskatzailearen profila honako hau da: emakumea (guztizkoaren % 62,5) eta 80 urte edo gehiagokoa (eskaeren % 52,4; baina % 60,6 emakumeen artean).

²⁰ Kontuan izan behar da diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta enplegurako zentro bereziak ez daudela Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, estatistika horrek barne hartzen dituen arren. Horiei buruzko informazio zehatza eskuratzeko, kapitulu honetako 2.3.2 atalera (DSBE) eta III. kapitulura jo daiteke. Enplegua eta lan-harremanak EAEn (EEE).

Erregistratutako 114.252 irizpen-eskaeretatik, %99,62k zegokion ebazpena jaso zuten jada (Estatuan, batez beste, % 94,32), eta 82.753 pertsonari, irizpena jaso zuten kasuen % 72,43ari, prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zieten. Ehuneko hori Estatuko batez bestekoa (% 80,6) baino txikiagoa da. Baina biztanleria osoaren gaineko onuradunen ratioa kontuan hartzen badugu, tasa handiagoa da EAEn Estatuan baino: Biztanleriaren % 5,15 EAEn, eta % 4,10 Estatuan.

Mendetasunaren Espainiako Behatokiak, EAeri dagokionez, nabarmendu du azken urtean Sistemak artatutako pertsonen kopurua hazi bada ere, hazkunde hori Estatuan oro har artatutakoa baino txikiagoa dela (+% 3,8, Estatuko batez bestekoaren +% 7,5en aldean). Gainera, itxaron-zerrendak gora egiten jarraitu du, eta Estatuko hirugarren handiena da.

...

Amaitzeko, **EAEko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sistemaren** bilakaeraren balantzea egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak adierazten du 2022an EAEko BGAEek 26.888 milioi euroko ondarea zutela (azken datu erabilgarria). Zenbateko hori % 7,5 murriztu da aurreko urtearekin alderatuta, eta aurtengo BPGdaren % 31,17 da. Era berean, erakunde horietan 1,15 milioi pertsona daude kidetuta edo atxikita (kontuen kopurua kontuan hartuta eta ez pertsonen kopurua, zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden etenda ekarpenetan), hau da, 2021ean baino % 0,6 gehiago. 2022ko abenduaren 31n, Euskadin 68 BGAE zeuden; horietatik 40 enpleguko BGAE ziren (horietatik 3 lehentasunezko enplegukoak²¹), 26 banan-banakakoak eta 2 elkartutakoak.

Bazkideen erdia baino gehiago, % 53,9, banakako BGAEetan zeuden, eta horien atzetik enplegukoak (bazkideen % 46). Ondareari dagokionez, % 55,4 enpleguko BGAEei dagokie, eta gainerako ia guztia banakakoei (% 44,5); ordaindutako prestazioak, berriz, enplegu-erakundeetan eta indibidualetan biltzen dira gehienbat (guztizkoaren % 73,7 eta % 26,2, hurrenez hurren). Kuotak, azkenean, gehienbat enpleguko BGAEei dagozkie (% 56,6), eta gero banakoei (% 43,4).

2022ko balantze gisa, Euskadiko BGAEen ondarea 26.887 milioi eurotik gorakoa da, eta % 7,5 jaitsi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Kuotak edo ekarpenak, berriz, 958,4 milioi eurora iritsi dira 2022an, 2021ean baino % 0,6 gehiago. Genero-ikuspegiaren arabera portaera aurreko ekitaldietakoaren antzekoa izan da. Izan ere, sistemari egindako ekarpenen % 56 gizonek ordaindu dituzte, eta % 44 emakumeek.

²¹ Enpleguko BGAEek **lehentasunezko enpleguko BGAE**-kalifikazioa lor dezakete, baldin eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte; besteak beste, jatorria eta enpresa-hitzarmen edo -itun bidez eratzea, bazkideak hartzeko orduan diskriminaziorik ezaren printzipioa eta, ahal dela, prestazioa errenta gisa jasotzea. Memoria hau egin den egunean, GEROA, ELKARKIDETZA eta LAGUNARO dira lehentasunezko enpleguko hiru BGAEak.

V. BIZI KALITATEA

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza

EUSTATen arabera, 2002-2023 ikasturtean 365.921 ikasle²² matrikulatu ziren unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan EAEn (-% 0,7 aurreko ikasturtearen aldean).

Mailen arabera berezita eta hezkuntza berezia zenbatu barik utzita, ikusi da maila txikietan (Haur eta Lehen Hezkuntza) 197.917 ikasle matrikulatu zirela (73.766 Haur Hezkuntzan eta 124.151 Lehen Hezkuntzan); hala, bi mailetan mantendu zen azken urteotako beheranzko joera, ikasleen kopurua % 3,4 eta % 1,4 murriztu baitzen, hurrenez hurren, 2021-2022 ikasturtearekin alderatuta.

Aitzitik, DBHn ia 1.800 ikasle gehiago egon ziren, bat etorri azken urteotan erregistratu den etengabeko igoyerarekin; ondorioz, 20.000 ikasle gehiago daude 2007-2008 ikasturtetik.

Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondoko Hezkuntzari dagokionez, Batxilergoan 32.476 pertsona²³ (-% 0,5 aurreko urtearekin alderatuta) matrikulatu ziren eta erdi-mailako Lanbide Heziketan, berriz, 16.029 (-% 1,6). Hala, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasleen % 66,9k Batxilergoa aukeratu zuen, eta % 33,1ek, aldiz, erdi-mailako Lanbide Heziketan eskainitako zikloetako bat egitea erabaki zuen. Bestalde, goi-mailako Lanbide Heziketan 23.706 pertsona matrikulatu ziren, aurreko²⁴ ikasturtean baino % 0,2 gutxiago.

Azken hamabost urteotan Lanbide Heziketak goranzko bilakaera orokorra izan du, argi eta garbi. Gizon zein emakumeen kasuan egon da joera hori, baina beti egon dira gizonezko ikasle gehiago. 2007-2008 ikasturtearekin alderatuta, matrikula egin zuten gizonen kopuruak % 76,4 egin zuen gora eta emakumeenak, berriz, % 34,8.

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan matrikula gehiago egon dira sare publikoan sare pribatuan baino. Bestalde, DBHn eta Batxilergoan matrikula-kopurua pixka bat handiagoa izan da sare pribatuan sare publikoan baino.

Batxilergo-modalitateei dagokienez, 2022-2023 ikasturtean hasi ziren araudi berria aplikatzen²⁵, eta kategorizazio zaharra eta berria egon ziren aldi berean. Urtetik urterako aldakuntza kalkulatzeko, kategoriak taldekatu dira eta, horren arabera, hauxe ondorioztatzen da: ikasleen % 55ek Zientziak eta Teknologia modalitatean egin zuen matrikula, % 40k Humanitateak eta Gizarte Zientziak modalitatean, % 4,2k Arteetan eta % 0,8k, berriz, Orokorrean.

²² Helduentzako hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak izan ezik

²³ Batxilergoan bi ikasturte daude, ohiko moduan 16 eta 18 urte artean egiten direnak.

²⁴ Lanbide Heziketa irakaskuntza bat da, eta, teoriarik, 16 urterekin lortzen da erdi-mailako irakaskuntzara, Batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin, goi-mailako irakaskuntzara, hirugarren edo goi-mailako hezkuntzaren esparruan.

Erdi-mailako heziketa-zikloek teknikari-titulua lortzen dute, eta goi-mailako heziketa-zikloek, goi-mailako teknikari-titulua.

²⁵ 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. Araudi berriaren arabera, honako modalitate hauetan banatuko da Batxilergoa:

- Arteak, zeina bi adarretan banatzen baita:
 - Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua
 - Musika eta Arte Eszenikoak
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak
- Zientziak eta Teknologia
- Orokorra

Emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da honako modalitate hauetan: Arteak (% 77,6) eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak (% 58,3). Zientziak eta Teknologia modalitatean, ostera, matrikulatutako gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 50,9 eta % 49,1, hurrenez hurren).

Lanbide-ikasketei dagokienez, EUSTATen arabera, 2022-2023 ikasturtean, ikasleen bolumen handiena bildu zuten erdi-mailako lanbide-arloak hauek izan ziren: Osasuna (% 17,7, +% 5,9), Fabrikazio Mekanikoa (% 12,3%, -% 8), Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,5, -% 0,5), Administrazioa eta Kudeaketa (% 7,9, +% 1,1), Instalazioa eta Mantentze Lanak (% 7,7, -% 6,2), Informatika eta Komunikazioak (% 7,5, -% 0,8). Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak (% 7,2, -% 5,9). Goi-mailako titulazioen artean, hauexek nabarmentzen dira: Fabrikazio Mekanikoa (% 12,3, -% 6,4), Informatika eta Komunikazioak (% 11,1, +% 8,6), Administrazioa eta Kudeaketa (% 10,8, -% 1,5), Elektrizitatea eta Elektronika (% 10,4, -% 3,6), Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitaterako Zerbitzuak (% 10,2, +% 2,6), Osasuna (% 8, +% 8,6) eta Instalazioa eta Mantentze Lanak (% 7,3, -% 2,3).

Emakumeen parte-hartzea oso handia da honako arlo hauetan: Irudi Pertsonala; Ehungintza, Jantzigintza eta larrugintza; Osasuna; eta Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak. Bigarren talde garrantzitsuan, honako arlo hauek nabarmentzen dira: Administrazioa eta Kudeaketa, Elikagaien Industriak, Merkataritza eta Marketina, Kimika eta Arte Grafikoak. Hala ere, batez bestean, emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa da lanbide-ikasketetan (erdi-mailako heziketa-zikloetan, % 35,5koa; goi-mailako heziketa-zikloetan, berriz, % 36,2koa). Horrez gain, hurrengo atalean aztertuko dugun bezala, ikusi da emakume gutxiago matrikulatu direla teknikoagoak diren lanbide-arloetan, laneratzeko aukera hobekien eskaintzen badituzte ere. Hala, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio Mekanikoa, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze Lanak, eta Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak arloei dagokienez, emakumeen matrikulazioa % 14,8koa izan da soilik, kasurik onenean (goi-mailako zikloa Informatikan eta Komunikazioetan, alegia); Osasuna da salbuespena, non matrikulazioa % 75 eta % 80 artekoa izan baita.

Lanbide-heziketako ikasleen laneratzeari buruz LANBIDEk emandako datuen arabera, 2021eko promozioaren okupazio-tasa % 83,2koa izan zen 2022. urtean²⁶, hau da, 2020ko promozioak 2021. urtean izan zuena baino 4,1 ehuneko-puntu handiagoa eta 2015eko promozioak 2016. urtean izan zuena baino 10,8 ehuneko-puntu handiagoa. Familia-arloen araberrako (24 daude guztira) okupazio-tasak aztertzen baditugu, ikasle gehien izan dituzten zortzi arloetatik (Fabrikazio Mekanikoa, Osasuna, Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitaterako Zerbitzuak, Administrazioa, Elektrizitatea eta Elektronika, Informatika, Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak, eta Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentze Lanak), laneratzeko-ratiorik altuenak izan dituztenak honako hauek izan dira: Fabrikazio mekanikoa (okupazio-tasa: % 88,9), Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak (% 87,9), Informatika (% 87,6), Elektrizitatea eta Elektronika (% 87,2) eta Osasuna (% 82,6)

Aipatutako zortzi lanbide-arloetako heziketa-ziklo bakoitzaren okupazio-tasari dagokionez, hauexek dira promozioan ehun ikasle baino gehiago dituzten eta % 85etik gorako okupazio-tasa duten zikloak:

- Elektrizitatea eta Elektronikan, goi-mailako zikloa; Automatizazioa eta Robotika Industrialean, goi-mailako zikloa; Telekomunikazio eta Informatika Sistemetan, goi-mailako zikloa; eta Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta, goi-mailako zikloa.
- Fabrikazio Mekanikoan, Mekanizazioko goi-mailako zikloa; Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko goi-mailako zikloa.
- Informatikan, Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko goi-mailako zikloa; Sareko Informatika Sistemien Administrazioko goi-mailako zikloa; eta Web Aplikazioen Garapeneko goi-mailako zikloa.
- Ibilgailuen Mantentze Lanetan, Automobilgintzako goi-mailako zikloa.
- Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzueta, Mekatronika Industrialeko goi-mailako zikloa.
- Osasunean, Osasun Larraldietako erdi-mailako zikloa; eta Aho-hortzetako Higieneko goi-mailako zikloa.

²⁶ LANBIDE – Euskal Enplegu Zerbitzuak inkesta egiten die ikasketak amaitu dituzten promozioetako ikasleei, titulua lortu eta urtebetera.

Unibertsitate-ikasketei dagokienez, 2021-2022 ikasturtean 69.933 pertsona matrikulatu ziren guztira EAEko unibertsitateetan, hau da, aurreko urtean baino % 0,8 gehiago. Ikasleen % 70,1 unibertsitate publikora doa. Bestalde, sexuaren arabera banaketa eginez gero, emakume gehiago doaz unibertsitatera (gutzizkoaren % 51,2 emakumeak dira).

Gradu-ikasketei dagokienez, matrikulen % 49,7 Gizarte eta Lege Zientzietan izan da. Horren ostean kokatu dira Ingeniaritza eta Arkitektura (% 22,3) eta, ondoren, Osasun Zientziak (% 13,6). Emakumeek honako arlo hauetako ikasketak nahiago dituzte gehienbat: Osasun Zientziak (gutzizkoaren % 77,7 emakumeak dira), Artea eta Humanitateak (gutzizkoaren % 64,6 emakumeak dira) eta Gizarte eta Lege Zientziak (% 59,1). Zientzietan, ostera, orekatuagoa da banaketa (gutzizkoaren % 50,8 emakumeak dira eta gainerako % 49,2a gizonak); alabaina, ikasketa teknikoetan (Ingeniaritza eta Arkitektura), guztizkoaren % 28,8 soilik dira emakumeak.

Unibertsitate-ikasleen laneratzeari buruz LANBIDEk emandako datuen arabera, 2019ko promozioak tasa hauek izan zituen 2022. urtean: % 91ko jarduera-tasa, % 79ko enplegu-tasa, % 90eko okupazio-tasa eta % 13ko langabezia-tasa. Jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak ezagutza-eremuen arabera banakaturik gero, alde nabarmenak daude. Horrenbestez, osasunari eta espezialitate teknikoetara lotutako titulazioek lortu dituzte jarduera- nahiz enplegu-tasa altuenak eta langabezia-tasa baxuenak.

Hezkuntza-adierazleei dagokienez:

- Goi-hezkuntzako eskolatzeta-tasa garbia

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren 2023ko "Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema" azterlanaren arabera, 2020-2021 ikasturteko EAEko goi-hezkuntzako eskolatzeta-tasa garbia Estatuko hirugarren handiena zen, 20 urteko adina kontuan hartuta; hala, Madrilen (% 72,7) eta Gaztela eta Leonen (% 64,5) ostean kokatu zen. Estatuko batezbestekoa % 53,3koa izan zen.

Datu-iturri beraren arabera, ikasturte berean, 20 urteko adina kontuan hartuta EB27ko goi-mailako hezkuntzako eskolatzeta-tasa garbia % 42koa da. Ehunekorik altuenak honako herrialde hauetan izan dira: Eslovenian (% 61), Bulgarian eta Irlandan (bietan % 57), Grezian (% 55) eta Espainian (% 53); txikiak, berriz, hauetan: Luxenburgon (% 9), Danimarkan (% 18), Suedian (% 26), Finlandian (% 28) eta Alemanian (% 31).

Horiek horrela, EAEko goi-mailako hezkuntzako eskolatzeta-tasa garbia (% 63,1) EB27koa baino hogeit hamar ehuneko-puntu handiagoa izan zen (% 42).

- Goi-mailako ikasketetan tituludunak diren gazteen ehunekoak

2022. urtean, EAE izan zen ehunekorik handiena erregistratu zuen autonomia-erkidegoa % 65,3koa izan baitzen (hala, % 45eko Europako gutxieneko helburuaren gainetik kokatu zen); ondoren, Madrilgo Erkidegoa (% 57,9) eta Nafarroako Foru Erkidegoa (% 57,7) kokatu ziren. EB27ko batezbestekoaren (% 42) gainetik ere dago ratioa. Ratorik handienak dituzten Estatuak dira Irlanda (% 62,3), Luxenburgoko (% 61,0) eta Zipre (% 59,2). Ehunekorik txikiak, berriz, Errumanian (% 24,7) eta Italian (% 29,2) ageri dira, % 30etik behera dituzten herrialde bakarrak. Alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen artean eta kopurua handiagoa da emakumeen kasuan. Azken hamar urteotan, gizonen eta emakumeen arteko aldea hamar ehuneko-puntu ingurukoa edo handiagoa izan da.

- EUSTATen Hezkuntzaren Kontua²⁷

EAEko hezkuntzako gastu osoa % 5,8 hazi zen EAEn 2021. urtearekin alderatuta, eta 4.719,6 milioi eurokoa izan zen, EUSTATEk aurreratutako datuen arabera. Gutzizko gastutik, 4.505,7 milioi erabili ziren gastu arrunterako eta

²⁷ EUSTATen Hezkuntzaren Kontuan hezkuntza-jarduera guztietako (arautuetako eta ez-arautuetako) ohiko gastua eta kapital-gastua jasotzen dira, hezkuntza-erakundeetan eta bestelako zentroetan eta enpresetan egindakoak, eta iturri publikoekin eta pribatuekin finantzatuak izan direnak.

203,9 milioi inbertsiorako. Biztanleka banatuta, hezkuntzako gastua 2.152 eurokoa izan zen, hau da, BPGd-aren % 5,5, aurreko urtean baino 0,2 ehuneko-puntu gutxiago.

- Hezkuntzako gastu publikoa, administrazio-motaren arabera

EB27ko esparruari dagokionez, hezkuntzako gastu publikoa BPGd-aren % 5,02 izan zen 2020. urtean, Estatuko ratioa (% 4,72) baino handiagoa. Ratio handienak izan dituzten herrialdeak azken urteotako berdina dira, baina aldaketak daude sailkapenean: Suedia (% 7,34), Danimarka (% 6,86), Belgika (% 6,71), Finlandia (% 6,27), Zipre (% 5,67), Frantzia, (% 5,66), Austria (% 5,43) eta Herbehereak (% 5,42).

Estatuko administrazio eta unibertsitateetan 2022. urtean egindako gastu publikoa, finantza-kapituluak kanpo, 63.067,5 milioi eurokoa izan zen; hau da, BPGd-aren % 4,92 (2021. urteko ratio bera).

Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioetan egindako gastua, guztira, 55.844,5 milioi eurokoa izan zen 2022. urtean, BPGd-aren % 4,36, alegia, eta beheranzko joera mantendu da. EAEn, 3.315,5 milioi euroko gastua egin da, hau da, BPGd-aren % 4,18; hala, bertan ere mantendu da beheranzko joera. Aipatutako ratioa Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa da.

Europako eta aipatutako herrialdeetako batezbestekoarekin alderatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazio guztietakoak), lehenengo paragrafoan aipatutakoak. Horrenbestez, EAEko eta Europako batezbestekoak (herrialdeen azaleraren arabera kalkulatu) ezin dira zuzenean konparatu, baina egoera orokorra aurrekusi dezakegu eta, datu horiek oinarri hartuta, esan dezakegu gure autonomia-erkidegoaren BPGd-aren gaineko gastu publikoa aipatutako herrialdeena baino txikiagoa dela hizpide dugun gaian.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan egindako ahalegina autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioen batezbestekoa baino handiagoa da (BPGd-aren % 3,45 eta % 3,27, hurrenez hurren); aitzitik, bestelako egoera gertatzen da unibertsitateko hezkuntzari dagokionez (% 0,62 eta % 0,84, hurrenez hurren).

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gastua 3.372,8 milioi eurokoa izan zen 2022. urtean. Hortaz, % 5,7ko gehikuntza egon da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zenbateko horrek Eusko Jaurlaritzako guztizko gastuan duen partaidetza-ehunekoa % 24,6koa da. Hala, adierazitako gastua EAEko BPGd-aren % 3,91 da, 2021. urtean jasotakoa baino txikiagoa (% 4,09).

- Ikasle bakoitzeko gastu publikoa unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan. Estatuko konparazioa

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan (publikoan nahiz itunduan) EAEn egindako ikasle bakoitzeko gastu publikoa 7.857 eurokoa izan zen 2021. urtean; beraz, EAEk lehen postua lortu zuen berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean. Gastu hori % 16,9 igo da 2018ko gastuarekin alderatuta; Estatuan, berriz, % 18,4ko gehikuntza jaso da. Estatuko batezbestekoa 6.113 eurokoa izan zen; beraz, EAEko ikasle bakoitzeko gastua Estaturkoa baino % 28,5 handiagoa izan zen.

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa 10.984 eurokoa izan zen EAEn 2021. urtean eta, hortaz, gure erkidegoak du, berriz ere, ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Gastu hori % 16,7 igo da 2018. urtekoarekin alderatuta; Estatuan, berriz, % 18ko gehikuntza jaso da. Estatuko batezbestekoa 7.043 eurokoa izan zen; horrenbestez, EAEko ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko egindako batez besteko gastua Estaturkoa baino % 56 handiagoa izan zen. Hezkuntza-erakundeetako ikasle bakoitzeko gastua (eurotan, EAP erabiliz bihurtuta). Nazioarteko konparazioa²⁸

²⁸ Aurreko adierazleak ez bezala, adierazle honek erakunde publiko eta pribatuetan egindako gastu publikoa nahiz pribatua hartzen ditu barne eta, lanerako prestakuntza sartzeaz gain, Erosketa Ahalmenaren Parekotasuna (EAP) oinarri hartuta bihurtutako eurotan kalkulatu da. Hezkuntza-maila guztiak izan dira aztergai, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa izan ezik.

2020. urtean, Estatuko ikasle bakoitzeko gastua 7.067 eurokoa izan zen hezkuntza-erakunde publiko eta pribatuetan, eta 7.806 eurokoa erakunde publikoetan. Bi zenbaterako horiek Frantzia, Finlandia, Herbehereetan, Danimarkan, Suedian, Maltan, Belgikan eta Austrian jasotakoaren azpitik daude, eta Luxenburgoko zenbateratik urrun geratzen da.

- Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-gastua ikasle bakoitzeko

Ikasle bakoitzeko hezkuntzako gastu-ratioa (ikasleena, guztira, hau da, araubide orokorrekoa zein bereziko) berriro igo zen 2021 eta 2022 bitartean, 6.617 eurotik 7.050 eurora.

- Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programa (PISA)
 - Irakurtzeko gaitasunari dagokionez, EAEko ikasleen batez besteko puntuazioa 466 puntukoa da, ELGAko batezbestekoa (476) baino 10 puntu txikiagoa eta Estatukoa (474) baino 8 puntu txikiagoa. Batez besteko puntuazio altuenak honako herrialde hauetan jaso dira: Irlanda (516), Japonia (516), Hego Korea (515) eta Estonia (511). Autonomia-erkidegoei dagokienez, hauetan erregistratu da batez besteko errendimendurik altuena: Gaztela eta Leon (498), Asturias (497), Madril (496) eta Kantabria (494).
 - Matematikarako gaitasunari dagokionez, EAEko ikasleen batez besteko puntuazioa 482 puntukoa da, Estatuko batezbestekoa (473) baino 9 puntu handiagoa eta ELGAkoa (489) baino 10 puntu handiagoa. Emaitzarik onenak herrialde hauetan jaso dira: Japonia (536), Hego Korea (527), Estonia (510) eta Suitza (508). Autonomia-erkidegoei dagokienez, hauetan erregistratu da batez besteko errendimendurik altuena: Gaztela eta Leon (499), Asturias (495), Kantabria (495) eta Madril (494).
 - Gaitasun zientifikoa: EAEko ikasleen zientzietako batez besteko puntuazioa 480 puntukoa izan da, ELGAko eta Estatuko batezbestekoa baino 5 puntu txikiagoa (bietakoa izan da 485 puntukoa). Batez besteko puntuazio altuenak honako herrialde hauetan jaso dira: Japonia (547), Hego Korea (528), Estonia (526) eta Kanada (515). Autonomia-erkidegoei dagokienez, hauetan erregistratu da batez besteko errendimendurik altuena: Gaztela eta Leon (506), Galizia (506), Kantabria (504) eta Asturias (503).

- Nazioartekotzeko unibertsitate-adierazleak

2021-2022 ikasturtean nazioarteko 3.815 ikasle sartu ziren EAEko unibertsitatearen batean, hau da, nazioarteko ikasleak ikasle guztien % 6,3 izan ziren (Estatuko unibertsitate-sistema osoko % 9,7). Hala, nazioarteko 3.815 ikasleen kopurua 2019-2020 ikasturtekoa baino % 4 handiagoa izan da (+% 4,7ko gehikuntza egon da Estatuan). EAEn, ikasleen % 60,1 unibertsitate publikoan matrikulatu zen eta % 39,9, berriz, pribatuan. Sexuaren arabera banatuta, guztizkoaren % 57 emakumeak izan ziren eta % 43 gizonak.

- Shanghaiko Unibertsitatearen rankinga

2023. urtean, Estatuko bederatzi unibertsitate daude munduko bostehun onenen artean. Hirurehun onenen artean kokatzen dira Bartzelonako Unibertsitatea eta Granadako Unibertsitatea. Laurehun onenen artean, aurrekoek gain, honako hauek ageri dira: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Complutense Unibertsitatea, Pompeu Fabra Unibertsitatea eta Valentziako Unibertsitatea. TOP 500 sailkapenean, aurrekoek gain, UPV/EHU eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoa ageri dira.

UPV/EHUn, hauexek dira rankingean puntuazio onena lortu duten diziplinak: Matematika, Kimika, Ingeniaritza Kimikoa, Nanozientziak eta Nanoteknologia, eta Metalurgia Ingeniaritza; halaber, horien atzetik kokatu dira honako hauek: Ingeniaritza Mekanikoa, Ingeniaritza Elektrikoa eta Elektronika, eta Ingeniaritza Zibila.

Kultura

Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen *Anuarios de Estadísticas Culturales* (Kultur Estatistiken Urtekaria) urtekarian jasotako datuen arabera, jarduera ekonomiko nagusia kulturari lotuta duten enpresen kopurua berriz ere igo zen EAEn 2021 eta 2022 bitartean, zehazki % 1,1, gaur egun 6.639 baitaude. Bestalde²⁹, enplegua % 13,4 igo zen (35 mila pertsonatik 39,7 mila pertsonara) Estatuan, aldi bera aintzat hartuta, enpresen kopurua % 3,4 igo zen, eta enpleguak % 0,7 egin zuen gora. EAEn kultur enpresetan lan egiten duten 35 mila lagun horiek EAeko enplegu osoaren % 4,2 osatzen dute, Estatuko batezbestekoa (% 3,4) baino ratio handiagoa. Kulturaren alorrean enplegu gehien sortzen duten autonomia-erkidegoen sailkapenean³⁰, EAE hirugarren postuan dago, Katalunia (% 4,6) eta Madrilen (% 4,4) ostean. Autonomia-erkidegoen arabera bereizitako daturik ez badago ere, datu agregatuek erakusten dute kultura-sektoreko enpleguaren ezaugarri nagusia dela batez bestean ohikoa dena baino prestakuntza akademiko handiagoa izatea; hala, goi-mailako hezkuntza-tasa handiagoa da kultura-sektoreko enpleguan sektore guztietan oro har dagoena baino (% 72,1 eta % 46,4, hurrenez hurren).

Bestalde, Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera, 2020 eta 2021 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoak kulturaren alorrean likidatutako gastua % 7,4 igo zen. Gastu hori gure erkidegoaren BPGd-aren % 0,2 da eta, beraz, autonomia-erkidego guztien batez besteko ratioaren (% 0,13) gainetik dago. EAeko biztanle bakoitzeko gastua 65,5 eurokoa da, 2020an baino 4,4 euro gehiago, eta zenbateko hori Estatuko batezbestekoa (32,4 euro) baino handiagoa da.

Halaber, EAeko etxeetan euskal kultur ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua 495,5 milioi eurokoa izan zen 2022. urtean; hala, % 6,8ko jaitsiera egon da. Gastu hori EAeko ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastuaren % 1,5 da, autonomia-erkidego guztien batezbestekoa (% 1,9) baino baxuagoa.

Etxe bakoitzeko batezbestekoari dagokionez, EAEn 540,5 eurokoa izan da; hortaz, honako autonomia-erkidego hauen atzetik kokatzen da: Balear Uharteak, Murtzia, Katalunia, Madrilgo Erkidegoa, Aragoi, Ceuta eta Melilla, Errioxa, Galizia, Nafarroa, Asturias, Andaluzia eta Kanariak.

Pertsona bakoitzeko batez besteko gastua 230,2 eurokoa da eta, hala, honako hauen atzetik kokatzen da: Balear Uharteak, Katalunia, Murtzia, Aragoi, Errioxa, Asturias, Madril, Galizia, Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Valentziako Erkidegoa.

Gastu-taldeari dagokionez (liburuak eta aldizkako argitalpenak; kultura-zerbitzuak; ikus-entzunezko euskarriak, ekipoak nahiz osagarriak eta informazioa tratatzekoak; eta telefono mugikorrek eta Interneti lotutako zerbitzuak), hauexek dira datuak:

- EAeko etxe bakoitzean egindako 540,5 euroko gastua honela banatu zen: % 38,2 telefono mugikorrera eta Interneti lotutako zerbitzuetara bideratu zen; % 30 ikus-entzunezko euskarrietara, ekipoetara nahiz osagarrietara eta informazioa tratatzekoetara; % 10,1 liburuetara eta argitalpenetara; eta % 21,7 kultura-zerbitzuetara.
- EAeko pertsona bakoitzak egindako 230,2 euroko gastua honela banatu zen: % 29,1 liburu eta argitalpenetara bideratu zen; % 27,9 ikus-entzunezko euskarrietara, ekipoetara nahiz osagarrietara eta informazioa tratatzekoetara; % 25,2 telefono mugikorrera eta Interneti lotutako zerbitzuetara; eta % 17,8 kultura-zerbitzuetara.

Azkenik, euskal herritarrek egindako euskararen erabileraren gaineko adierazle batzuk jaso dira.

²⁹ Enpleguari dagokionez, kontuan izan behar da enplegu-etenaldia duen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea (ABEEE) duten pertsonak landuntzat jotzen direla biztanleria aktiboaren inkestan, eta hori bereziki aintzat hartzekoa da 2020. eta 2021. urteetako datuei dagokienez.

³⁰ Kultura-sektoreko enplegua. Ekonomian oro har edo kultura-sektoreko edozein eremutan kulturari lotutako lana duten 16 urtetik gorako landunak, guztira. Kultura-lanbidetzat jotzen dira kultura-esparruan kokatzen diren jarduera profesionalak, hala nola idazleak, artistak, artxibozainak eta liburuzainak. Lanbide guzti horiek aintzat hartzen dira enplegatzailearen jarduera nagusia edozein dela ere.

EUSTATen datuen arabera, 2 urtetik gorako herritarren % 62,4k euskararen ezagutzaren bat zuen 2021ean. Ezagutzamailaren arabera banatuta, % 43,3 euskaldunak ziren eta % 19,1 ia-euskaldunak (ulermen-maila ona edo hala-holakoa dutenak baina zailtasunez hitz egiten dutenak).

Horrez gain, azterlanak barne hartu duen azken hamarkadan euskaldunen proportzioa 6,1 ehuneko-puntu igo da (2011n % 37,2koa zen eta 2021ean, berriz, % 43,3koa) eta ia-euskaldunen kategoria 6,5 ehuneko-puntu murriztu da 2011. urtearekin alderatuta. Azken bi hamarkadetan egondako euskaldunen ehunekoak izandako bilakaerari dagokionez, 11 ehuneko-puntu igo da 2001etik 2021era.

Azterlanean gehiago sakonduz gero, aipatzekoa da euskaldunen kopuru handiena 10-14 urte bitartekoen artean kokatzen dela (% 90,5) eta, ostera, euskaldunen kopuru txikiena 70 urtetik gorakoaren artean (% 22,1); hala, oro har, euskararen ezagutzak beheranzko joera du adinaren arabera. Ildo beretik, 30 urtetik beherakoaren % 70 euskaldunak dira eta proportzio hori murrizten da adin gehiagoko pertsona-taldeen artean.

INGURUNE NATURALA ETA ENERGIA

Ingurune naturala

Alde batetik, EAEko **airearen kalitatearen** ebaluazioa egunero egiten da, Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen AIREAREN KALITATEAREN INDIZEAREN bidez, eta, bestetik, sare osoan erregistratutako datuen azterketa egiten da urtero, URTEKO TXOSTENA egiteko. Informazio horren arabera, jasangarritasun-adierazlea 2022an, hau da, kalifikazio “oso ona” eta “ona” duten egunen ehunekoak guztizkoaren % 87,71 izan zen. Ratio horrek berriro behera egin du, eta horrek esan nahi du **airearen kalitateak** okerrera egiteko joera duela. Zehazki, 2022an 130 egun erregistratu ziren airearen kalitate txarrarekin eta 15 egun oso txarrarekin; 2021ean 73 egun airearen kalitate txarrarekin eta 3 egun oso txarrarekin; eta 2019an 67 egun txarrarekin eta bat ere ez oso txarrarekin. Hala ere, osasuna babesteko mugak dituzten aireko kutsatzaileak araudiak ezarritako mugen barruan mantentzen dira.

XXI. mendeko **ingurumen-erronka** nagusietako bat da. Kyotoko protokoloaren ondoren, 175 alderdik (174 herrialdek eta Europar Batasunak) sinatutako Parisko Akordioan (2015) erabaki zen *“munduko batez besteko tenperaturaren igoera 2°C-tik oso behera mantentzea industriaurreko mailekin alderatuta, eta tenperaturaren igoera hori 1,5°C-ra mugatzeko ahaleginekin jarraitzea industriaurreko mailekin alderatuta”*. Testuinguru horretan, EbK isurketak % 55 murrizteko konpromisoa hartu du 2030ean, 1990. urtearekin alderatuta. Epe luzean, bai “2050erako epe luzeko estrategiak”, bai Europako Itun Berdeak, bai neutraltasun klimatikoa lortzeko Europako erregelamendu-proposamenak (2021/119) 2050ean edo, ahal bada, lehenago neutraltasun klimatikoa lortzeko beharra ezartzen dute, hau da, emisioak xurgapenek konpentsatzen dituzten arte murriztea.

Klima 2050, alegia, 2050erako Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2015ean onetsi zuen Eusko Jaurlaritzak, eta haren helburua da berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez % 40 murriztea 2030era begira eta gutxienez % 80 murriztea 2050era begira, 2005. urtearekin alderatuta, bai eta EAEk klima-aldaketarekiko duen erresilientzia bermatzea ere. Horrez gain, 2050ean energia berriztagarriaren kontsumoa azken kontsumoaren % 40koa izatea ere badu jomugatzat.

2023ko maiatzaren 16an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen proiektua onetsi zuen (Eusko Legebiltzarrak 2024ko otsailean onetsi du legea). Horren xedea da *“esparru juridiko egonkor bat ezartzea, beranduenez 2050. urtean lor dadin Euskadin klima-neutraltasuna, eta lurraldeak klima-aldaketarekiko duen erresilientzia handitzea”*, betebeharrak ezarriz eta eragileek ekintza klimatikoan duten zeregina antolatuz. Legeak helburu hauek ditu:

- Emisioak: % 45 murriztea 2030ean, 2005eko datuekin alderatuta.
- Energiaren azken kontsumoa: gutxienez % 12 aurrezte 2030erako, eta % 37, berriz, 2050erako, 2021eko datuak oinarri hartuta.

- Energia berriztagarriek energiaren azken kontsumoan duten partaidetza: gutxienez % 32koa izan beharko da 2030ean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Eftektuko Gasen Isurketen Inbentarioaren azken datuen arabera, 2021ean berotegi-efektuko gasen emisioak (CO2 baliokidearen arabera neurtuak) % 5 murriztu ziren 2019arekin alderatuta (pandemiaren aurreko urtea), % 31 murriztu ziren 2005arekin alderatuta eta % 15, aldiz, 1990arekin alderatuta. 2020arekin alderatuta, % 8 igo ziren, baina kontuan izan behar dugu 2020ko emaitza baldintzatuta zegoela jardueraren murrizketen ondorioz bizitako salbuespenagatik.

Orain, egoera eta bilakaera erakutsiko ditugu, sektoreka. Energia-sektorearen emisioak gainerako sektoreen energia-horniduraren ondorio direnez, banaketa aztertzeko, sektore bakoitzean egiten den elektrizitate-kontsumoaren ondoriozko emisioak gehitu dira (zeharkako emisioak).

- Energia-eraldaketa (fintzea, zentral elektrikoek bitarteko kontsumoak eta garraio-galerak barne). EAEko emisioen % 12,8 da. Emisioak % 17,8 igo ziren 2020aren aldean (pandemia-urtea), baina % 7,3 jaitsi ziren 2019aren aldean. 2005arekin konparatuta, % 20,4 jaitsi ziren, eta, 1990arekin alderatuta, % 18,4.
- Industria. EAEko emisioen % 30,3 da. Emisio horiek % 13 igo ziren 2020aren aldean, baina % 2,6 jaitsi ziren 2019aren aldean. 2005. urteaz geroztik, emisioak % 49,7 jaitsi dira, eta 1990. urtearekin konparatuta, % 51,1.
- Garraioa. Emisioen % 35,2 da. Emisioak % 6,7 igo ziren 2020aren aldean, baina % 4,4 jaitsi ziren 2019aren aldean. 2005. urtearekin alderatuta, % 8 igo dira, eta 1990. urtearekin konparatuta, % 115,8.
- Bizitegi-sektorea berotegi-efektuko gasen % 8,2 da, eta % 0,8 igo ditu emisioak 2020. urtearekiko, baina % 3,3 jaitsi dira 2019. urtearekiko. 2005. urtearen ondoan, % 31,6 jaitsi dira, eta, 1990. urtearen aldean, berriz, % 4,7.
- Zerbitzuen sektorea. Emisioen % 6,5 eragiten du. Emisio horiek % 4,2 murriztu ziren 2020arekin alderatuta, eta % 13,1, aldiz, 2019arekin konparatuta. 2005az geroztik, % 35,4 jaitsi dira, eta 1990. urtearekin erkatuta, % 69 hazi dira.
- Lehen sektorea. Emisioen % 3,1 da. Emisioak % 5,3 jaitsi dira 2019ko datuekin alderatuta, % 51,6 2005eko datuekin konparatuta eta % 49,1, berriz, 1990aren aldean.
- Hondakinen sektorea. EAEko emisioen % 3,8 da. Emisioak % 8,4 jaitsi dira 2019ko datuekin alderatuta, % 40 2005eko datuekin konparatuta eta % 31,4, berriz, 1990aren aldean.

Hondakinen sorrerari eta kudeaketari dagokionez, eta *hiri-hondakinen* harira, EINen "Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiri-hondakinak" delakoaren datuen arabera, 2021ean hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek 931.191 tm hiri-hondakin bildu zituzten EAEn, 2020an baino % 19,9 gehiago eta 2019an baino % 7,5 gehiago. Bilketa motaren arabera bereizita (nahastuta edo gaika bilduta), gehienak (% 58,5) nahasitako hondakinak izan ziren. 2020. urtearen aldean, bi motek gora egin zuten: nahastuek % 27,9 eta gaika bildutakoek % 10,3. 2019. urtearen aldean ere gora egin zuten: nahastuek % 7,8 eta gaika bildutakoek % 7,1. Estatuan, bestalde, nahastuak guztizkoaren % 75,4 dira, eta 2019arekin ondoan, nahastuak murriztu egin dira eta gaika bildutakoak areagotu.

Per capita terminoetan, biztanle bakoitzeko hiri-hondakinen 422,2 kg bildu ziren EAEn 2021. urtean (guztira, nahastuta zein bereizita); estatukoa baino kopuru txikiagoa da hori, 478,7 kg biztanleko. EAE *per capita* bildutako hondakin kopuru txikiak erregistratzen dituzten autonomia-erkidegoen artean dago, Madril, Errioxa eta Galiziaren atzetik. Bereizitako hondakin motaren arabera, honako hauek dira nagusiak: papera eta kartoia (63,2 kg biztanleko; ostera, 31,5 kg biztanleko estatuan), beira (28,3 kg biztanleko; ostera, 18,5 kg biztanleko estatuan) eta ontzi mistoak eta bilgarriak (24,3 kg biztanleko; ostera, 18,8 kg biztanleko estatuan).

Ingurumenaren babesari dagokionez, EINen Industriak ingurumena babesteko egindako gastuari buruzko inkestaren azken datuek erakusten dutenez, EAEn, 2021ean, gastu hori (gastu arrunta eta inbertsioa) % 4,6 handitu zen 2020aren aldean. Dena den, zifra 2019an erregistratutakoaren azpitik dago oraindik. Ahaleginaren haritik (hau da, BPGd-aren ehuneko gisa), igoera ikusten da, baina 2019ko ratioa iritsi gabe. Hala, EAE hamaikagarren postuan dago ahalegin handiena egiten duten erkidegoen sailkapenean.

Amaitzeko, 2023ko martxoan **2030erako Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa** (IEP 2030) argitaratu zen. Aurreko programekin konparatuta, IEP 2030en berritasun nagusia programaren sorrera bera da. Oraingo honetan, IEPk ez du ingurumen-helburuen sorta bat zehazten, helburu horiek ondo zehaztuta daudelako eta berariazko ibilbide-orrietan hedatzen direlako Euskadiko Itun Berdearen eta indarrean dauden ingurumen-plangintza sektorial guztien esparruan. Ez du zentzurik, beraz, IEP 2030ek beste plan bat gehiago izateak edo, bestela, planak biltzen dituen estrategia izateak. Hausnarketarako eta definizio estrategikorako ariketa bikaina da, plangintza sektorialak elikatu behar dituzten orientabideak ezartzen ditu, eta horiek modu eraginkorrean ezartzen laguntzen du, hainbat bultzada-palankaren bidez. Hau da, zeharkako aplikazioa du, eta askotariko jarduera sozioekonomikoko eremuetara iristen da.

Energia

Euskadi Energia 2022. Datu energetikoak txostenak, EEEK argitaratutakoak, erakusten duenez energia primarioaren edo energiaren barne-kontsumo gordinaren (ekoiztako energia gehi inportatua ken esportatua) eskari osoa % 3,3 hazi zen 2022an, eta 6.539 ktep-ekoa izan zen. Energiaren azken kontsumoa, berriz, % 0,9 jaitsi zen (4.881 ktep), eta sektore guztietan egin zuen behera, garraioan izan ezik.

Energia primarioaren ekoizpena % 6,6 jaitsi zen (699 ktep-etik 663 ktep-era), eta batez ere energia berriztagarrietan oinarritu zen (iturri propio nagusia); horiek % 7,2 jaitsi ziren (679 ktep-etik 630 ktep-era).

Energia primarioaren ekoizpen propio urri horrekin (653 ktep), energia-eskariaren % 10 baino ezin izan zen bete (energiaren barne-kontsumo gordina edo energia-eskaria). Ondorioz, EAEn mendekotasun energetikoa estatukoa eta EB-27koa baino handiagoa da; azken horietako ratioak % 68,8 eta % 58 dira (EAEn % 90).

Iturri berriztagarrietan oinarritutako ekoizpenak (630 ktep) azken energia-kontsumoaren % 12,9 asetzea ahalbidetu zuen (4.881 ktep); hau da, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten partaidetza-ratioa Euskadiko 2030rako Energia Estrategian (3E2030) ezarritako % 21eko helburutik 8,1 puntura dago.

Intentsitate energetikoari dagokionez (ekonomia baten energia-efizientziaren adierazlea, BPGd-aren unitateko ktep-en azken kontsumoa bezala neurtzen dena), hobera egin zuen 2021etik 2022ra bitartean (4 puntu jaitsi zen). Sektoreka, garraioaren sektorean izan ezik, energia-intentsitateak behera egin zuen guztietan eta, beraz, hobera.

Faktura energetikoa nabarmen igo zen 2022an aurreko urtearen aldean (% 51,3), eta 9.149 milioi eurokoa izan zen. Guztizkoaren % 49,4 garraioaren sektoreari zegokion, % 27,6 industriari, % 12,1 bizitegi-sektoreari, % 10,4 zerbitzuei eta % 0,6 lehen sektoreari. Bizitegi-sektorean, biztanleko fakturak % 17,8 egin zuen gora —504 eurora iritsi zen—, eta etxeko faktura, % 17 —1.203 eurora iritsi zen—.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren % 93,4 dira. Industrian, elektrizitatea fakturaren % 62,4 da, eta gas naturala, berriz, % 34,6.

OSASUN ETA OSASUN SISTEMA

Osasun Ministerioak 2023an argitaratutako Osasun Sistema Nazionalaren 2022ko urteko txostenaren arabera, 2021ean EAEn bizi-itxaropena jaiotzean (Bij) 83,7 urtekoa izan zen, estatukoa (83,1) eta EB27koa (80,1) baino handiagoa. Horrela, EAE laugarren postuan dago autonomia-erkidegoen sailkapenean, hain zuzen ere, hauen atzetik: Madril (84,6),

Nafarroa (84,3) eta Gaztela eta Leon (83,9). EAEko emakumeen Blj gizonena baino 5,6 urte handiagoa da, baina Bij-k gora egin badu ere gizonentzat zein emakumeentzat (80,4tik 80,8ra igaro da gizonen kasuan, eta 86,3tik 86,4ra emakumeen kasuan), emakumeen aldeko diferentziala 3 hamarren jaitسي da 2020 eta 2021 bitartean.

65 urtekoen bizi-itxaropenari (Bl₆₅) dagokionez, 2021eko azken datuek erakusten dute zenbait autonomia-erkidegotan pandemiaren aurreko egoerara itzuli direla. Hala, Madril (22,3 urteko Bl₆₅), Nafarroa (22), Gaztela-Mantxa (21,9) eta EAE, Galizia eta Kantabria (21,6) dira Bl₆₅ handienak dituzten autonomia-erkidegoak.

Bl-k, garatutako herrialde gehienetan, goranzko garapena izan du urteetan zehar; alabaina, horrek ez dakar, ezinbestean, adierazle hori igotzen deneko bizitzako urte guztiak osasun egoera onean bizi izandako urteak izatea, zeren eta, pertsonak gaixotasunak eta osasun arazoak izan baititzakete eta horien ondorioz bizi-kalitatea galdu, nahiz eta heriotza ez eragin. Ondorioz, hilkortasun-tasak balioa galtzen du pixkanaka osasun-egoeraren adierazle gisa eta beharrezko bihurtzen da gaixotasuna dituen ondorioen arabera neurtzea, jarduera-mugaketa edo ezgaitasuna bezalaxe. Horrela, aurreko txostenaren arabera, 2020an EAEn 65 urterekin 18,7 izan ziren bizitzako urte osasuntsuak (BUO) (17,5 gizonetan eta 19,8 emakumeetan); estatuko batez bestekoa baino balio handiagoa da hori, 17,9 (16,6 gizonetan eta 19,1 emakumeetan). Autonomia-erkidegoen sailkapenean, EAE laugarren postuan dago, Andaluziaren, Balearren eta Kanariaren atzetik.

Osasun mentalaren harira, eta aipatutako txostenaren arabera, EAEn 2021ean erregistratutako nahasmendu mentalen eta portaeraren nahasmenduen prebalentzia (299,3) estatukoa baino txikiagoa da, baina 2019koa baino % 7,9 handiagoa. Zenbakietan sakonduz, gure erkidegoa tasa txikieneko autonomia-erkidegoen artean dago. Izan ere, Extremadurak eta Gaztela-Mantxak izan ezik, gainerako autonomia-erkidegoek EAEk baino tasa handiagoak dituzte. Sexuaren arabera berezita, ikusten da prebalentzia handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino.

Osasun mentaleko nahasmenduetan sakonduz gero, ikusten da **antsietate-nahasmenduak** direla ohikoenak. Zehazki, EAEn 1.000 biztanleko antsietate-nahasmenduen kasuen prebalentzia, adinaren arabera doitu³¹, 83,1ekoa izan zen 2021ean, estatukoa (121,3) baino txikiagoa, baina 2019an erregistratutakoa baino % 9,5 handiagoa. EAE zazpigarrena da antsietate-nahasmenduen prebalentzia-tasa handiena duten autonomia-erkidegoen artean. Aurretik ditu Valentziako Erkidegoa, Katalunia, Balearrak, Andaluzia, Kanariak eta Gaztela eta Leon. Sexuaren arabera berezita, ikusten da prebalentzia handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino.

Testuinguru horretan, aipatzekoa da 2023ko azaroaren 21ean **Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia (2023-2028)** onetsi zela. Estrategia horren ikuspegia gizartea inklusiboa, solidarioa eta aniztasunarekiko errespetuzkoa izan dadin lortzea da, non nahasmendu mentalak dituzten pertsonak beren bizi-proiektua bete-betean garatu ahal izango duten.

Hilkortasunari dagokionez, ministerioaren datuei jarraikiz, EAEko hilkortasun-tasa estatuko batez bestekoa baino txikiagoa da, bai gizonentzat, bai emakumeentzat. Bestalde, EUSTATen heriotzen estatistikaren arabera, 2020an hilkortasun-tasak gora egin ondoren, 2020tik 2021era % 4,8 jaitسي zen, eta 2021etik 2022ra berriz ere gora egin zuen (kasu horretan % 4,9). 2022an hildako pertsonen batez besteko adina 81,3 urtekoa izan zen; hamar urte lehenago, berriz, 78,9 urtekoa.

Heriotza-kausaren arabera, tumoreek eragindako heriotzak daude lehenik (gutzizkoaren % 26,4; % 2,2 igo da), zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragindakoak bigarrenik (gutzizkoaren % 23,8; % 2,5 jaitسي da) eta hirurgarrenik, arnas sistemako gaixotasunek eragindakoak (gutzizkoaren % 6,4; % 15,2 igo da). Analisisirako beste desagregazio bat eginez gero, nerbio-sistemako heriotzek eta arnas sistemako gaixotasunen ondoriozko heriotzek antzeko zifrak dituzte.

³¹ Adinaren arabeko doikuntzari esker, adin-egitura desberdinak dituzten bi populazioaren edo gehiagoren arteko hilkortasun-tasak edo gaixotasunen intzidentzia-tasak aldera daitezke. Populazio estandar bat aplikatuz egiten da, adin egitura ezaguna duen populazio hipotetiko bat, alegia. Aztertutako populazioaren adinaren arabeko tasa espezifikoak populazio estandarren adin-egiturari aplikatzen zaizkio, adinaren arabera doitutako tasak lortzeko.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako **hilkortasun goiztiarraren** analisiak erakusten duenez, 2022an, gizonei bizitzako urte potentzial gehien galarazi zizkieten sei kausak hauek izan ziren: kardiopatia iskemikoak, trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, suizidioak eta autolesioak, ibilgailu motordunekin izandako trafiko-istripuak, drogen ondoriozko ustekabeko pozoitzea eta entzefaloko tumore gaiztoak. Emakumeen kasuan, trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, bularreko tumore gaiztoak, suizidioak eta autolesioak, pankreako tumore gaiztoak, entzefaloko tumore gaiztoak eta gaixotasun zerebrobaskularrak izan ziren. 2022an, COVID-19ak kausa nagusien artean egoteari utzi zion, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

Osasunaren determinatzaile ez-medikoei dagokienez, memoriaren edizio honetan horietako batzuk aztertzen dira, zehazki, 18 urtetik gorako helduen zenbait elikagaien kontsumo-patroia eta gorputz-masaren indizea; izan ere, OMEk azpimarratu duenez, gaur egun munduan osasunari kalte gehien egiten dioten hamar arriskuetatik sei elikadurarekin zuzenean lotuta daude.

Elikadura osasungarriaren aldeko ekimenak Euskadin dokumentuan aipatzen den bezala, onartuta dago minbizi, diabetes, bihotzeko gaixotasun iskemiko eta obesitate kasuen % 30entzat zenbait elikadura-jokabide jakin babes- edo arrisku-faktoreak izan daitezkeela. Elikadura osasungarria izan dadin, osoa eta orekatua izan behar du. Organismoak behar dituen mantengai guztiak izan behar ditu kantitate egokietan, eta, beraz, elikagai osasungarri ugari izan behar ditu.

Espainiako Osasunari buruzko Europako Inkestaren 2020ko datuen arabera, eta honako hauei dagokienez:

- Frutaren kontsumoa: EAE fruta gehien kontsumitzen duten autonomia-erkidegoen artean dago, Aragoi, Gaztela-Mantxa eta Kataluniarekin batera.
- Barazkien, entsaladen eta ortuarien kontsumoa: astean 3 aldiz edo gehiagotan jaten dituzten helduen ratioa % 87,2koa da EAEn, eta estatuko batez bestekoa % 89,9koa.
- Animalia-proteinaren kontsumoa (haragia edo arraina): haragia astean 3 aldiz edo gehiagotan jaten duten helduen ratioa % 70,8koa da, eta estatuko batez bestekoa % 66,1koa. Bestalde, arraina astean 3 aldiz edo gehiagotan jaten duten helduen ratioa % 45,9koa da, eta estatuko batez bestekoa % 40,4koa.
- Ohitura ez hain osasungarriak: EAEn janari lasterra beste autonomia-erkidego batzuetan baino gutxiago zabalduta badago ere, gozokien kontsumoa, konparatiboki, handiagoa da.

EAE normopisua duten biztanleen ehuneko handiena duten autonomia-erkidegoen artean dago, baina baita gainpisua dutenen ehuneko handiena dutenen artean ere. EAE obesitate-ratio txikiak dituzten autonomia-erkidegoen artean ere nabarmentzen da, bai eta pisu txikiagoko ratioak dituzten artean ere.

Sexuaren aldagaia sartuta, Ceutan izan ezik, autonomia-erkidego guztietan 25etik gorako GMI (gainpisua edo obesitatea) duten gizonen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino. Honako autonomia-erkidego hauek dituzte ehunekorik handienak: Gaztela eta Leon (gizonezko helduen % 67k du gainpisua edo obesitatea), Murtzia (% 65,6), Andaluzia (% 65,2), Melilla (% 65), Errioxa (% 64,8) eta EAE (% 62,8). Bestalde, Nafarroan, Madrilen, Melillan eta EAEn daude gainpisua edo obesitatea duten emakume gutxien: % 36,7, % 41,3, % 42 eta % 42,7.

Jarraian, EAEko **laguntzako baliabideen eta jardueraren zenbait adierazle** azalduko ditugu Osakidetzaren datuak erabiliz.

Lehen mailako arretako profesional medikoei 11,3 milioi **kontsulta** baino gehiago izan zituzten 2023an, hots, 2022an baino % 5,6 gutxiago, baina 2019an baino % 2,2 gehiago, pandemia baino lehen. 2023an erregistratutako lehen mailako arretako kontsulten % 51,7 presentzialak izan ziren eta % 48,3 ez-presentzialak. Datuek erakusten dutenez, kontsulta ez-presentzialen proportzioak beheranzko joera du, nahiz eta horien pisua 2019koa baino handiagoa izan oraindik (gutzizkoaren % 27,2).

Bestalde, ospitale-arloan 5,9 milioi kontsulta izan zituzten 2023an, alegia, 2022an baino % 2,3 gehiago, eta 2019an baino % 12 gehiago. 2023an erregistratutako ospitale-kontsulten % 87,9 presentzialak izan ziren, eta % 12,1 ez-presentzialak; azken horien proportzioa 8,5 puntu handiagoa da 2019koa baino (gutzizkoaren % 3,6). Lehen mailako

arretan ez bezala, arreta-modalitatea ez da biziki aldatu ospitale-arretan, eta kontsulta presentzialek kontsulta guztien % 85 gainditzen jarraitu dute, baita 2020an eta 2021ean ere.

Enplegatuen haritik, 2019tik 2023ra bitartean, osasun-arretako sarean (lehen mailakoa eta ospitalekoa) **aktibo** egon diren *pertsonen batez besteko kopurua* 34.799tik 38.854ra igo da (+% 11,7). Bi sareen arteko bereizketa eginez, ikusten da gehikuntza handiagoa izan dela ospitale-arretako sarean lehen mailako arretako sarean baino (% 12,3 vs % 8,9). Lanbide-taldean arabera analisiak erakusten du ospitale-arretan pertsona aktiboen batez bestekoa talde guztietan hazi dela, B2 taldean izan ezik (erdi-mailako teknikariak), eta lehen mailako arretan, berriz, horien presentzia murriztu egin dela hainbat lanbide-taldetan, bereziki, A1 lanbide-taldean (medikuak eta teknikariak); 2.334 pertsonatik 2.257ra igaro da. Datuetan sakonduz, ikusten dugu 2019az geroztik lanbide-talde horretako pertsona aktiboen kopuruak beheranzko joera duela.

Sareko batez besteko **okupazio-indize** globala 2022an erregistratutako % 74,5etik 2023an erregistratutako % 73,6ra igaro da. Barne-medikuntzako eta pneumologiako zerbitzu medikoek eta kirurgia kardiobaskularrak % 100, % 135,2, % 135 eta % 101,8tik gorako mailak dituzte. Akutuen ospitaleetako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako **batez besteko egonaldia** 5,4 egunekoa izan zen, eta zertxobait igo da 2022ko datuekin alderatuta. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioko (37,6), psikiatriako (14,4) eta zaintza aringarrietako (13,3) zerbitzu medikoak.

Itxaron-zerrendei erreparatuz gero, Osakidetzaren datuen arabera, **kanpo-kontsultetan** itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua % 1,3 igo da 2022tik 2023ra bitartean, aurreko urteko % 43ko igoeraren aldean; hala bada, 137.002 paziente dira. Zerrendetan paziente gehien dituzten espezialitateak hauek dira oraindik ere: traumatologia (24.586: +% 23), oftalmologia (16.390: +% 0,2), errehabilitazioa (13.006: +% 4,1) eta dermatologia (11.360: -% 23,3). Atzerapen-denborari dagokionez, zerrendetan dauden biztanleen % 62,9k hilabete baino gehiago itxaroten dute, eta zifra hori gorantz doa 2020tik.

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren datuen arabera, 2023ko ekaineko datuekin, osasun-txartela duten 1.000 biztanleko kontsulten itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua txikiagoa da EAEn estatuko batez bestekoa baino (31,1 vs 78,5). Izan ere, EAEk du ratio txikiena autonomia-erkidegoen sailkapenean. Atzerapen-denborari dagokionez, Melilla hiri autonomoa alde batera utzita, EAEk erregistratzen du denbora laburrena, 44 egunekoa. Estatuko batez bestekoa 87 egunekoa da. Arreta jasotzeko zain 60 egunetik gora dauden hitzorduen ehunekoari dagokionez, ratioa EAEn % 27koa da, estatuko batez bestekoa (% 51,6) baino txikiagoa. Gure erkidegoak du ratorik txikiena.

Bestalde, **programatutako kirurgian**, Osakidetzaren arabera, 2022 eta 2023 artean adierazle guztiek behera egin dute, baina pandemiaren aurretik erregistratutako balioetara iritsi gabe. Hala, zerrendan 23.647 paziente izatetik 22.008 izatera igaro da (10,2 izatetik 9,5 izatera osasun-txartela duten mila biztanleko). Atzerapen-egunen batez besteko kopurua 73tik 62,3ra igaro da. Bestalde, 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoak % 28,9tik %22,4ra jaitsi da.

SISLE-SNSren datuen arabera, 2023ko ekaineko datuekin, EAEn osasun-txartela duten 1.000 biztanleko itxaron-zerrenda kirurgikoetan dauden pazienteen kopurua estatukoak baino txikiagoa da (4,7 vs 6,4). EAE autonomia-erkidegoen sailkapenean ratio txikiena duen laugarren erkidegoa da, Madrilen, Balearren eta Melillaren atzetik. Ebakuntza egiteko zain 6 hilabetetik gora dauden pazienteen ehunekoari dagokionez, EAEko ratioa % 2,1 da, eta estatuko batez bestekoa, berriz, % 10,9. Galiziak eta Madrilek tasa txikiagoak dituzte. Atzerapen-egunen haritik, berriz ere Galizia eta Madril daude EAE baino posizio hobean.

Orain **osasun-sistemaren gastua** aztertuko dugu.

Eusko Jaurlaritzaren 2022ko **aurrekontu-likidazioak** erakusten duenez, Osasun Atalaren gastuen aurrekontua 4.191,4 milioi eurotik 4.812,6 milioi eurora aldatu zen. Azkenean, Osasun Atalean egindako gastua 4.788,2 milioi eurokoa izan zen. Baliabideen ehunekoari dagokionez, lehenengo tokian geratu zen, gastu osoaren % 34,9 (programa nagusia

Osakidetzari egindako transferentzietan dagokien) eta BPGd nominalaren % 5,55, aurreko urtearen azpitik (% 5,62). Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa eta Farmazia programek guztizko gastu likidatu ia osoa hartzen dute (% 94,6). Zehazki, Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa % 83,2 da, eta Farmazia % 11,4. "Beste partida batzuk" guztizkoaren % 3,7 dira.

Aurrekontuan jasotako zenbateko osoaren eta benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, Osasun Atalean likidatutako gastua (4.788,2 milioi €) aldatutako aurrekontua (4.812,6 milioi €) baino txikiagoa da, eta horrek 24,5 milioi euroko beheranzko desbideratzea dakar.

Bestalde, 2023rako berariaz sanitarioak diren partiden gastuen aurrekontua 4.633,3 milioi eurokoa da (+% 10,5, 2022an hasieran aurrekontuan sartutako gastuaren aldean). Gastu hori BPGd nominalaren % 5,07 da, 2022an aurrekontuen arabera erregistratutako ratioa baino handiagoa.

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren datuen arabera, EAEn biztanle bakoitzeko osasun-gastu publikoak gora egin du 2022tik 2023ra bitarte, 2.028 eurotik 2.148 eurora biztanle bakoitzeko. Horrela, gure erkidegoak berriro galdu du lehen postua (2021ean ere galdu zuen) biztanleko gehien gastatzen duten autonomia-erkidegoen artean, eta 2.148 euro gastatzen ditu biztanleko, Asturiasen atzetik. Estatuko batez bestekoa 1.559 euro da biztanle bakoitzeko.

EAEko sektore publikoaren urteko aurrekontuen eta kontuen likidaziotik abiatuta egindako **Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak** erakusten duenez, erakundeak 3.929,2 milioi euroko gastua egin zuen 2022an. Hala, gastua % 1,3 igo da 2021etik 2022ra. BPGd nominalaren % 4,55 da, eta ratioa 2021ekoa baino 4 hamarren txikiagoa da. Hazkunde hori ustiapen-gastuen igoeragatik gertatu da, inbertsioak % 16,9 murriztu baitira. Likidatutako guztizkoaren % 95,8 ustiapen-gastuei dagokie, eta % 4,2 inbertsioei.

Likidatutako ustiapen-gastuak 3.765,4 milioi eurokoak dira, hau da, % 2,3ko igoera 2021eko likidazioarekin alderatuta. Langileen gastuak (soldatak eta gizarte-kotizazioak), zeinak ustiapen-gastuen % 68,8 baitira, 2.589,1 milioi eurokoak izan dira; aurreko urtean baino % 3,2 gehiago. Funtzionamenduko gastuak 1.172 milioi eurokoak izan dira, hau da, aurreko aldirian baino % 5 gehiago.

Likidatutako kapitaleko gastua 163,8 milioi eurokoa da, 2021ean likidatutakoa baino % 16,9 txikiagoa.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoaren eta 2022an benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidatutako gastua aurrekontukoa baino handiagoa da (+9,04 milioi €), eta inbertsioei (+7,26 milioi €) eta ustiapen-gastuei (+1,78 milioi €) dagokie.

Azkenik, 2023ko uztailan, **Euskadiko Osasun Plana (2030)** onetsi zen. Plan horren helburua EAE osasuntsuago baten buru izatea da (funtsezko helburua), eta honako erronka estrategiko hauek ditu:

- Pertsonak beren osasunaren eta ongizatearen protagonista eta eragile aktibo izatea.
- Osasun-arloko desparekotasunak murriztea.
- Haurrak eta nerabeak beren osasun-potentzial guztiarekin jaiotzea, haztea eta iristea helduarora.
- Ingurune eta komunitate osasungarriak, jasangarriak eta erresilienteak sortzea eta garatzea.
- Arrisku globalen kudeaketa (sanitarioak, finantzarioak, teknologikoak, mugikortasunekoak, 2030 agenda).
- Bikaintasuna lortzea, kalitateari, humanizazioari eta laguntza-sistema soziosanitarioaren segurtasunari dagokienez.
- Osasun publikoko sistemak egungo erronkei eta erronka berriei aurre egiteko duen gaitasuna.
- Osasun-sistemaren jasangarritasuna.
- Ikerketa eta berrikuntza, eta osasunean eragina duten sistemen hobekuntzan duen aplikazioa.
- Erakundearen arteko koordinazioa eta lankidetzak.

ETXEBIZITZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren "**Higiezin salerosketa-estatistikak**" dio 2023an EAEn etxebizitzaren 20.431 salerosketa erregistratu zirela, 2022an baino % 13,5 gutxiago eta 2013an baino % 84,7 gehiago. Azken hamarkadan, etxebizitza erabilien salerosketen bilakaera nabarmendu behar da, % 162 igo baitira (-% 14,1 azken urtean). 2023ko salerosketa guztietatik, % 16 etxebizitza berriak izan ziren eta % 84 etxebizitza erabiliak. Hauxe da lurralde-banaketa: salerosketen % 50,5 Bizkaian egin ziren (-% 17,5, 2022rekin alderatuta), % 34,4 Gipuzkoan (-% 3,6) eta % 15,1 Araban (-% 19,4).

Etxebizitza-motari dagokionez, 2023ko laugarren hiruhilekoan egin ziren salerosketen % 79,9 erabilitako etxebizitza libreak izan ziren (2022an baino ehuneko 3,8 puntu gehiago eta 2013an baino 16,8 gehiago), % 11 etxebizitza libre berriak izan ziren (2022an baino -3,2 puntu eta 2013an baino -16 puntu), % 4,6 erabilitako etxebizitza babestuak (2022an baino -0,4 eta 2013an baino +0,1) eta gainerako % 4,5a etxebizitza babestu berriak (2022an baino -0,2 eta 2013an baino -% 0,9).

EAEko etxebizitzaren **salerosketen metro karratuko prezioari** dagokionez, etxebizitza librearen prezioa 2.960 euro/ m² izan da 2023an, 2022an baino % 3,1 gehiago eta 2013an baino % 14,5 gehiago. Erabilitako etxebizitza librearen prezioa 2.904,9 euro/ m² izan da (+% 2,7, 2022koaren aldean), eta etxebizitza libre berriena 3.294,8 euro/ m² (+% 4,8). Etxebizitza babestuaren metro karratuko prezioa zertxobait igotzen hasi zen 2013an, eta nabarmen jaitsi zen 2020an, 1.973,2 euro/ m² iritsiz. 2022an (eskuragarri dagoen azken datua), prezioa % 43,4 igo da 2021eko prezioarekin alderatuta, 2.763,2 euro/ m² iritsita, eta 2012tik izandako gehieneko prezioa erregistratu da.

EAEko **etxebizitza librearen salerosketen batez besteko prezioa** 246.990 eurokoa izan da 2023an, aurreko urteko batez bestekoa baino % 1,7 gehiago. Lurraldeka, Bizkaian % 0,6 jaitsi dira prezioak, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, % 2 eta % 7,3 igo dira, hurrenez hurren. Ondorioz, prezioak 277.075 euro (Gipuzkoa) eta 218.808 euro (Araba) artekoak dira, eta Bizkaia tartean dago, 234.793 euro etxebizitza bakoitzeko batez beste. Eraikitako metro karratuaren prezioan, EAEko batez bestekoa, ikusi dugun bezala, 2.960 euro/m² da (+% 3,1, 2022koaren aldean): garestiena Gipuzkoan, 3.428,5 euro/m², eta merkeena Araban, 2.363,8 euro/m². Bizkaia beste bien artean dago berriro ere: 2.810,9 euro/m².

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak **Alokairuaren Merkatuaren Estatistika** (AME) egiten du 2019az geroztik, EAEko alokairuaren merkatua aztertzeko. Eragiketa hori Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legetik aurrera sortutako erregistroetan gordailututako fidantzetan oinarritzen da eta, beraz, nahitaezkoa da hiri-errentamenduen kontratuak erregistratzea eta etxebizitzak alokatzeko kontratuen fidantzak gordailutzea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eusko Jaurlaritzan duen ordezkari bakoitzean.

AMEk egiaztatu duenez, 2023ko abenduaren 31n alokairu libreko 83.882 kontratu zeuden erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuan (merkatuko prezioan). Horietatik 2.554 sasoiko etxebizitzak dira, eta duten berezitasunagatik, analisi honetatik kanpo geratzen dira. Era berean, ikerketa honetan ez dira aintzat hartzen familia bakarreko etxebizitzetara dagozkien 1.595 kontratuak, ohiko etxebizitza-erabilera izan arren, ezaugarri bereizgarriak direla-eta, berariazko analisi bat egitea merezi baitute. Beraz, alokairu libreko 79.733 kontratutan ezarrita dago Eusko Jaurlaritzak AMEri buruz egindako txostenak aztertzen duen stocka: ohiko etxebizitzarako egoitza-erabilera duten eta alokairu libreko kontratuak 2023ko abenduaren 31n indarrean zituzten eraikin kolektiboetan kokatutako etxebizitzak. Lurraldeka, alokatutako etxebizitzaren % 14,1 Araban daude (11.275 fidantza), % 36,1 (28.750 fidantza) Gipuzkoan, eta gordailu-kopuru handiena (39.708 fidantzari dagozkien % 49,8) Bizkaian dago.

2023ko azken hiruhilekoan eratutako fidantzek 788 euroko batez besteko errenta lortu dute, hau da, urte arteko % 5,9ko igoera. Eraikitako m² bakoitzeko prezioa kontuan hartuz gero, 2022ko laugarren hiruhilekoan 10,1 euro/m² izatetik 2023ko aldi berean 10,6 euro/m² izatera igaro da (+% 5). Hiruhileko horretan ordaindutako fidantzei dagokienez, % 23,2 jaitsi dira urte arteko tasan.

Etxebizitza libreen salerosketa-prezioei dagokienez, Garraioak eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioak etxebizitza libreen (berriak eta bigarren eskukoak) higiezinaren transakzioen batez besteko balioak kalkulatzeko Notariatza Estatistikak emandako informazioarekin, eta horrekin, autonomia-erkidegoen arteko konparazioak egin daitezke.

2023an EAEn saldutako etxebizitza libreen batez besteko balioa, notario-erregistroetan agertzen denez, 233.126 eurokoa izan zen, 2022an baino % 0,1 gehiago eta estatuko batez bestekoa (180.749 euro) baino % 29 gehiago (-% 0,9). Oro har, preziorik altuenak Balearretan eta Madrilgo Erkidegoan daude, eta baxuenak Gaztela-Mantxan, Extremaduran eta Murtziako Eskualdean. Eraikuntza berriko etxebizitzak bakarrik kontuan hartzen baditugu, EAEko datua 296.431 euroraino igotzen da, 2022an baino % 6,3 handiagoa. Zifra hori estatuko batez bestekoa (269.417 euro) baino % 10 handiagoa da, azken urtean % 3,3 igo baita. Erabilitako etxebizitzari dagokienez, EAEko batez besteko balioa, 2023an, 224.035 eurokoa da, 2022an baino % 0,7 gutxiago. Estatuko datua 171.957 da (-% 1,5), beraz, bien arteko aldea da nabarmenena, % 30,3koa.

Eraikuntza-jarduerari dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Behatokiak dio COVID-19aren pandemia gertatu zen 2020. urtean 4.152 etxebizitza eraikitzen hasi zirela, aurreko urtean baino % 32,5 gutxiago, eta 2021ean tasa positiboetara itzuli ziren (+% 11,7), babestutako etxebizitzaren eraikuntza-kopurua berreskuratu zelako. 2022an joera positiboak jarraitu zuen (+% 25,6), eta 2023an, 5.705 etxebizitza berri eraikitzen hasi zirenean, datu negatiboetara itzuli zen, zifra hori 2022koa baino % 2,1 txikiagoa baita. 5.705 etxebizitzetatik 1.962 babestutako etxebizitzak ziren (-% 16,4, 2022rekin alderatuta) eta 3.743 etxebizitza libreak; segmentu hori % 7,6 handitu da 2022. urtearekin alderatuta.

Bestalde, EAEn 2023an amaitutako etxebizitza guztiak 3.681 dira, aurreko urtean baino % 28,2 gutxiago, amaitutako etxebizitza babestuen segmentuan (-% 35,2) eta libreetan (% 25,1) izandako jaitsieren ondorioz. Horren ondorioz, etxebizitza babestuak EAEko eraikuntza-jardueran duen partaidetzak behera egin du azken urtean, amaitutako etxebizitzaren pisua 2022ko % 30,5etik 2023ko % 27,5era igaro baita.

Etxebizitzaren eskariei dagokienez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen lehenengo etxebizitza izateko beharri dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren “Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestan” egiaztatu zuten, 2023an, diru-sarrerak zituzten 70.013 pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zutela eta, beraz, 2021eko inkestararekin alderatuz, % 7,9ko igoera gertatu zen. Pertsona horiek behar duten etxebizitza-kopuruari dagokienez (baxuagoa da, etxebizitza banaka edo bikotean eskuratu dezaketelako), guztira 63.378 pertsona dira, bi urte lehenago baino % 9 gehiago.

Halaber, 77.369 familiak etxebizitza aldatzeko beharra adierazi dute, guztien % 8,4k. Hau da, % 6ko jaitsiera 2021aren aldean: urte horretan guztien % 9,1 ziren etxebizitza horiek. Badirudi datu horiek finkatu egiten dutela 2021ean hasi zen joera negatiboa, 2015-2019 urteetako gehikuntzaren ondoren.

Azkenik, Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestak adierazten du, guztira, 75.620 euskal etxek behar zutela esku-hartzea 2023an birgaikuntza egiteko; hala, magnitude hori EAEko familia-etxebizitzaren parkearen % 8,2 da. Bilakaeraren aldetik, etxebizitza birgaikuntzako beharrak behera egin zuen 2021aren aldean, bai etxeen bolumenean (-% 13,9), bai behar horren eragin erlatiboan (ehuneko -1,5 puntu) ere. Beharrezko birgaikuntzaren ezaugarriei dagokienez, familien erdiarentzat gutxi gorabehera (% 49,4), familia-etxebizitzetako elementu pribatuak dira beharrendaren ardatza (komunak, lurra, berokuntza instalazioa, leihoak aldatzea, etab.). % 25,8k etxebizitza barruan eta eraikineko eremu komunetan birgaitzea behar du, eta gainerako % 24,8a eraikineko eremu komunetan soilik egiten diren birgaitze-ekintzei dagokie.

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin beharreko **finantza-ahaleginari** dagokionez, lehenik eta behin, Espainiako Jabetza, Ondasun Higiezin eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoaren "*Higiezin Erregistro Estatistikak*" adierazten du EAEko familiek beren etxebizitzak ordaintzeko egiten duten finantza-ahalegina, hileko batez besteko hipoteka-kuotaren eta soldata-kostuaren arabera neurtuta, % 28,7koa dela 2023ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino 0,2 puntu gehiago. Estatu osoari dagokionez, ibilbidea antzekoa da; izan ere, ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren % 33,4ra iristen da 2023aren amaieran, duela urtebete baino 1,6 puntu gehiago. Epe luzeagoko ikuspegitik, azken hamarkadan (2013 eta 2023 bitartean) finantza-esfortzu hori 0,2 puntu handiagoa da EAEn eta 1,6 estatuan.

Bigarrenik, EINen "*Familia Aurrekontuei buruzko Inkestak*" aukera ematen du jakiteko, ECOICOP (European Classification of Individual Consumption by Purpose) gastuaren sailkapenaren lau digituko desagregaziotik abiatuta, zer gastu egiten duten familiek beren etxebizitza nagusiaren alokairua ordaintzeko, bai eta etxebizitza nagusiari jabetzan egotzitako alokairua ere (halako etxebizitza baten jabe den familia ordainduko lukeen errenta, etxebizitza horretako maizterra balitz). Datu horiek etxe bakoitzeko batez besteko gastuari eta familia-unitatearen urteko gastuaren gaineko ehunekoari dagokienez ematen dira.

2022an, informazioa dagoen azken urtean, EAEko familiek, batez beste, 7.545,29 euro gastatu zituzten urtean ohiko etxebizitza ordaintzeko, 2021ean baino % 0,7 gehiago, etxebizitza horri jabetzan egotzitako alokairua kontuan hartuta. Zenbateko hori urteko familia-gastuaren % 21,28 da (-1,70 puntu aurreko urtearen aldean). EAEko gastua, gainera, estatuko batez bestekoa (5.366,22 euro) baino % 40,6 handiagoa da, hau da, Espainiako familien gastuaren % 17. Alde hori aldatu egiten da etxebizitzaren alokairu-gastua kontuan hartzen badugu: EAEko familiek, batez beste, 803,18 euro gastatu zituzten 2022an (urteko gastuaren % 2,27) ohiko etxebizitzaren alokairuan; estatu osoan, berriz, gastu hori handiagoa da, bai kopuru absolutuetan (1.034,58 euro), bai erlatiboetan (gastu guztiaren % 3,28) ere.

Bestalde, etxebizitzarekin lotutako alderdi delikatuetakoa bat da **hipotekak edo alokairu-errentak ordaindu ezin dituztelako etxebizitzak galtzen dituzten familien egoera**. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) EAEko lehen instantziako epaitegietan aurkezturiko hipoteka-betearazpenen jarraipena egiten du, eta adierazi duenez, 2023an 615 betearazpen erregistratu ziren, hots, % 21,8ko gehikuntza aurreko urtearen aldean. 2023an aurkezturiko betearazpenak estatuko 19.577 betearazpenen % 3,1 dira (-% 21,5, 2022rekin alderatuz).

Halaber, 2023an, EAEn, lehen instantziako epaitegiek 593 kaleratze egin zituzten, aurreko urtean baino % 23,1 gutxiago, eta estatuko guztien % 2,2. Horietatik 55 hipoteka-betearazpenak izan ziren (-% 61, 2022rekin alderatuz), 518 kaleratze-prozedurak (-% 12,9) eta 20 beste prozedura batzuk (-% 42,9).

Etxebizitza politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak egindako gastua (gehienekoa 2009an izan zen, 207,4 milioi eurokoa), erdira murriztu zen 2015ean (99,8 milioi euro arte), kontrako egoeraren ondorioz. 2016tik aurrera, berriz ekin zaio hazkunde bideari, 2019an 224 milioi eurora iritsi arte eta, beraz, 2009ko gehienekoa gainditu da. 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua), egindako gastua berriro hazi zen 205,5 milioi euro arte (+% 74,1); hau da, EAEko BPGd-aren % 0,26, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago, gastuaren bilakaeraren eta ekonomia-hazkunderaren emaitza gisa.

2021ean jarri zen indarrean **2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana**. Hau da plan horren xedea: "*etxebizitza duin eta egoki baten beharra duten pertsonen erantzun integrala bermatzea eta, horretarako, alokairu eskuragarriko eta etxebizitza-parkearen bizigarritasun-eta jasagarritasun-baldintzak hobetzeko baliabide-eskaintza areagotzea*". Izan ere, ikuspegi hau du: "*2024rako, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatuko duten prestazioen sistema ezarrita eta finkatuta edukitzea, alokairu eskuragarriko etxebizitza-parkearen hazkundera eta kohesio soziala erraztuz; horretaz gainera, etxebizitza-parke publiko eta pribatua birgaitzeko bidea bultzatzea eta, horretarako, Europako Funtsak optimizatzea, birgaitze-politiken aldaketa estrategiko bat sustatuz –alegia, eraikinen kalitatea eta bizigarritasuna, birgaitze integrala, irisgarritasuna, energiaren efizientzia, inpaktu klimatikoa murriztea eta berrikuntza–*". 2021-2023 urteetako planaren aurrekontu-kostua 1.237,6 milioi eurokoa da (oraindik ez dugu bertan egindakoen informaziorik), eta Etxebizitza Sailburuordetzak (4312 Etxebizitza Programaren bidez) eta Visesa eta Alokabide sozietate publikoek

gauzatzen duten gastu bateratua jasotzen du, sozietateen arteko elkarrekiko gastu-harremanak ezabatu ondoren, lehenik, eta sozietate horien eta etxebizitza-programaren artekoak, ondoren.

Halaber, 2022ko azaroan, **EAEko 2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala** sinatu zen. Tresna estrategikoa eta egiturazkoa da, eta eragile publiko eta pribatu askok konpromisoa hartzen dute 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean modu koordinatuan aurrera egiteko. Guztira, 88 erakundek egin dute bat Itunarekin, gizarte zibiletik edo kolektibo profesionaletatik hasi eta erakunde eta enpresetaraino. Hau da Itunaren helburu nagusia: *"etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea. Etxebizitza duin eta arrazoizko prezioa bat eskuratzea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat da, zeinarekin erabat konprometuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoa"*.

Bukatzeko, Etxebizitzaren EAEko Behatokiak azpimarratu du 2020an **etxebizitza-arloko PFEZn egindako kenkariei** lotutako zerga-gastua guztira 431,9 milioi eurokoa izan zela, 2019an baino % 1,7 gehiago. Zenbateko hori Etxebizitza Sailak ekitaldi berean likidatu zuen gastuaren ia laukoitza da (118 milioi euro). Zerga-gastuaren zenbatekoa erosketaren PFEZren kenkariei (eta etxebizitza-kontuei), alokairuari eta birgaikuntzari dagozkie, baina intentsitate ezberdinarekin: etxebizitza erosteko pizgarrien zioz kobratzeari utzitako 295,4 milioi euroekin du zerikusia gasturik handienak (gutzitakoaren % 68,4). Zenbateko horri etxebizitza-kontua izateagatik kenkarien 16,9 milioiak gehituta, 312,3 milioi euro ateratzen dira, etxebizitzarengatik kenkarien zenbatekoaren % 72,3, alegia. Bere aldetik, alokairuko kenkariei lotutako zerga-gastua 102,6 milioi eurokoa izan zen (guztiaren % 23,7) eta, azkenik, birgaitzei lotutako zerga-gastua 17,1 milioi euroko guztiaren % 4 izan zen soilik.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, etxebizitza-kontuengatik kendutako zenbatekoa % 25,2 gehitu da, eta alokairuei lotutakoa % 4,9. Kontrara, etxebizitza erosteagatik kenkarien zenbatekoa % 0,3 gutxitu da eta, kasu honetan ere, etxebizitza-birgaitzeengatik kenkariak ere % 1 gutxitu dira.

ONDORIOAK

I. DEMOGRAFIA

Azken urtean, aurreko biurtekoan pandemiaren eraginetik berreskuratutako migrazio-saldo positiboek berriro konpentsatu dute hazkunde natural negatiboa (jaiotzak ken heriotzak), eta biztanleriaren galera geldiarazi dute, bai gure erkidegoan, bai EB osoan.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar aurre egin behar diogun krisi demografikoa: Jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen ondoriozko biztanleria-galerak (saldo naturala edo begetatiboa) ordura arteko maximoa gainditu du 2022an, COVIDaren ondorioz 2020an gertatu zena.

Egoera horren aurrean, Erronka Demografikorako 2030 Estrategiaren sakontze eta bizkortzea beharrezkoa dela azpimarratu behar dugu.

Ildo horretan, positiboki balioesten dugu 2023an Estrategiaren esparruan egindako jarduerak abian jarri izana, eta bat gatoz erakunde arteko dimentsioaren hedapena aztertze beharrezkin, herrialdearen helburu estrategikoa baita, eta hala izaten jarraituko baitu datozen hamarkadetako ikuspegian.

Era berean, Eskandinaviako herrialdeetako esperientzien behaketa enpirikoa³² ikusita, familia-orekan aurrera egiten dugunean, hau da, baldintza materialak eta araudiak sexuaren arabera lan-banaketa txikiagoan eta emakumearen autonomia handiagoan oinarritutako eredu berrira egokitzen direnean, familia suspertu egin daiteke (parekatze eta ezkontze prestasuna areagotu egiten da, harremanak egonkorragoak dira eta ugalkortasun-tasek pertsonen nahiak hobeto islatzeko joera dute).

Eusko Jaurilaritzaren "Erronka Demografikorako 2030 Estrategiak" horietako batzuk jasotzen ditu, hala nola lehen haurtzaroko (0-2 urte) arreta eta hezkuntza zerbitzuen unibertsalizazioa, nahikotasunari, doakotasunari eta kalitateari dagokienez. Baina horrelako egiturazko neurriei eutsi behar zaie. Laguntza ekonomiko zuzen eta baldintzatuen biderketak premia-egoera arindu dezake batzuetan (eta beste batzuetan ez) aldi baterako, baina nekez ematen zaie buelta dinamika estrukturalen ondoriozko egoerei.

Eraldaketa demografikoaren funtsezko alderdi gisa, aurten ere migrazio-erronkaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Eta, ildo horretan, IKUSPEGIren urteko azterlanetan egiaztatzen dugu euskal gizartea gero eta kontzienteagoa dela migrazioaren gaia egiturazko prozesu bat dela dinamika globalago baten barruan, eta migrazio-prozesuak gure aberastasunari eta ongizateari laguntzen dien bezala, guk ere ekarpenak egin ditzakegula pertsona horiek gure zuzenbide-estatuaren esparruan benetan parte har dezaten laguntzen duten mekanismoen garapenean, horrek ezartzen baititu gure eskubideak eta betebeharrak.

Ildo horretan, 2030 Estrategiaren testuinguruan, migrazioaren arloko jarduerak indartu eta garatzearen garrantzia gogorarazten dugu, migratzaileen funtsezko ekarpena dela eta.

³² Gosta Esping-Andersen, *Families in the 21st century*, SNS Förlag, Stockholm, 2016.

Diane Sainsbury, *Gender and Welfare State Regimes*, Oxford University Press, Oxford/Nueva York, 1999.

Rodríguez Ausucua, Irene, *El reto de la Conciliación laboral y familiar: una análisis comparativo entre el modelo Nórdico y España*, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 2019

II. EKONOMIA

EAEko jardura ekonomikoa zalantzarritasun-egoera larriaren eta Eurogunearen dezelerazioaren eraginpean egon den arren, agregatu makroekonomiko handi guztiek (lehen sektoreak izan ezik) 2023an urte arteko aldakuntza positiboak erregistratu dituzte, eta hazkundera Eurogunekoa baino handiagoa izan da. Testuinguru horretan, uste dugu oraindik ere garrantzitsua dela gure ekoizpen-sarearen lehiakortasun-indarra mantentzea eta indartzea.

Komenigarria da, gainera, enpresa-kopuruen murrizketa txikia kontuan hartzea, egoera konplexu baten isla izan daitekeelako; horren ondorioz, neurri osagarriak ezarri genitzake ekoizpen-sareari eusteko eta enpresa- eta ekintzaitzeta-bokazioak sustatzeko, gure herrialdearen etorkizun ekonomikorako elementu giltzarriak baitira.

Prezioei lotuta eta datuak ikusirik, baieztatu dezakegu nahiz eta 2023an egoera pixka bat baretu den, egoera ez dela desiragarriena; izan ere, prezioen adierazleak oraindik ere altuak dira, 2021aren aurreko balioen gainetik daude, eta horixe da azpiko inflazioa kontuan hartuta egoerarik kezkarriena.

Errentaren banaketa funtzionalari dagokionez, datuek frogatu dute 2022an ustiapen-soberakina (garbia edo gordina) bigarren urtez jarraian soldatapekoen errentaren gainetik hazi dela, eta soldatapekoen ordainsariak 2020an EAEko errenta guztiaren % 49,8 izatetik 2022an % 46,5 izatera pasatu direla. Bitartean, ustiapen-soberakin garbia % 29,9tik % 33,5era igaro da eta pandemiaren aurreko banaketaren antzekora itzuli gara, eta ez da ahaztu behar horrek ustiapen-soberakinaren jaitsiera handia sortu zuela.

Azaldutako guztia ikusirik, berriro ere diogu beharrezkoa dela akordioak sortzea eta egoera ahalik eta hobekien hobetzeko neurriak ezartzea, aldi berean, ahalik eta inpaktu negatibo gutxien sortuz.

EAEko sektore publikoari dagokionez, Kontseilu honek, lehenik eta behin, azpimarratu nahi du COVID-19ak sortutako ekonomia- eta gizarte-krisi larriaren ondoren, 2022an 2021ean hasitako finantza publikoen berreskurapena bukatu zela, nagusiki, inflazioak lagundutako diru-bilketaren bilakaera positiboari esker. Aldagai horrek joera positiboarekin jarraitu du 2023an.

Bestalde, benetako inbertsioak (ezinbestekoak dira herrialdea garatzeko, baldin eta zuzen bideratuta badaude, eta bazirudien 2022an indarra galdu zutela) nabarmenki hazi dira 2023an eta 680 milioi euroak gainditu dituzte, eta hori oso positiboa da.

Aurrekoarekin lotuta, beharrezkoa da aurrekontu-ahalegin handia eta jarraitua egitea etorkizunean inbertsio-maila onargarri eusteko. Era berean, oinarritzko zerbitzuak eta inbertsio publikoak zein pribatuak indartzeko, "Next Generation" Europako funtsak baliatzeko aukera aprobetxatu beharra dago.

Enplegu publikoari dagokionez, Kontseilu honek, beste urte batez ere, azpimarratzen du beharrezkoa dela EAEko administrazio publikoetako bitartekotasuneko eta behin-behinekotasuneko tasa altuak zuzentzea, modu horretan, egiturazko fenomenoak bihurtu den irregulartasuna zuzentzeko.

Ekoizpen-azpiegiturei dagokienez, badirudi komeni dela Europar Batasunak Arku Atlantikoko trenbide-azpiegiturearako ezarritako denbora-helburuak betetzeko, oinarrizko sareari dagokionez, eta, zehazki, Euskal Y-ari dagokionez, erakundeen konpromisoa indartzea eta eskumena duten administrazio eta erakunde publiko guztien inbertsioak ekonomikoki bultzatzea.

Ikerketa, garapena eta berrikuntza gakoak dira klima-aldaketaren, biodibertsitatearen galeraren, mendekotasun energetikoaren, osasunaren, biztanleriaren zahartzearen, desberdintasunaren eta digitalizazioaren ziozko lehenetsuneko erronkei aurre egiteko. Bestela esanda, I+G+B gakoa da sozietateak aurre egin behar dien erronka handiei aurre egiteko, aise gainditzen baititu ezagutzaren mugan aurrera egiteko eta ekonomien lehiakortasuna sustatzeko helburu klasikoak.

Ezagutza berriak eta berrikuntzak gure gizartean martxan dauden eraldaketa energetiko, digital eta sozialak sustatuko dituzte eta, modu bidezko, kontziente eta partaidean kudeatzen badira (adostuta), lagundu egingo digute azkarrago lortzen etorkizun jasangarria eta oparoa bai pertsona guztientzat bai planetarentzat.

Atseginez ikusten dugu I+G+B arloan gure erkidegoak abantaila konparatiboak dituela, eta, horren ondorioz, goimailako berrikuntzako eskualdeen taldea kokatu dela *Eskualdeko berrikuntzaren adierazleen panela (RIS) 2023* delakoan, eta *eskualde mailako bikaintasun-polo* bat dela Espainiako Estatuan, alegia, *herrialde berritzaile moderatu* batean. Ildo horretan, gogorarazi behar da berrikuntzako eskualde-lider gehienak berrikuntzako lider edo berritzaile indartsu gisa identifikatutako herrialdeetakoak direla 2023ko *Europako berrikuntzako adierazleen panelean*.

Baina ezin dugu alde batera utzi, RIS 2023ren emaitzak 2021ekoekin alderatuz, Euskadik ETE berritzaileen ehuneko handitzeko erronkari eusten dio, bai eta berrikuntzarako jardueretan inbertsioa handitzeko erronkari ere, hala nola diseinuan, marketinean, jabetza intelektualaren eta industrialaren kudeaketan edo prestakuntzan.

Era berean, ezin dugu alde batera utzi berrikuntzak enpleguan eta salmentetan duen eragin ekonomikoa Europako batez bestekoa baino txikiagoa dela. Izan ere, gure enpresek zailtasunak daukate oraindik merkatuan edo beren erakundeetan berrikuntzak sartzera, bai eta I+Gn egiten duten inbertsioa emaitzetara eramaterakoan ere.

Gure aburuz, politika industrialak (hau da, oro har, ekonomiako ekoizpen-sektoreen garapena sustatzeko eta ekoizpen-prozesuen egiturazko eraldaketa bultzatzeko politika publikoen multzoa) berariaz sartu behar du landimentsioa, eta, beraz, neurriak hartu aldaketa teknologikoa teknologia berrien garapenera birbideratzen laguntzeko, enpleguaren alde eginez. Horretarako, teknologia distiratsuen erabilera sustatuko du, hala moduzkoak edo ordezkakoak diren horien aldean, ahal dela innotazioaren printzipioak jarraituz. Azken horretan, berrikuntza aplikatzen da, automatizazioa giza kapitalaren gaineko inbertsioarekin uztartuz. Enpleguaren gaineko ondorioak ez direnean seguruak, kualifikazio eta birkualifikazioko politikak aktibatuta beharko dira.

Aurrerapen teknologikoak hainbestekoak dira, ezen zalantzan jartzen baita teknologia horien ongi komuna lortzeko erabilera arduratsu eta onuragarria egiteko gure gaitasuna. Beraz, bistan da zein garrantzitsua den gizartea eta enpresak sentsibilizatzea aldaketa teknologikoen eta horien ondorio positibo nahiz negatiboaren gainean.

Gainera, adimen artifiziala agertzen ari da, eta horrek, aldi berean, aukera eta arrisku handiak ekar ditzake. Lehenengoak maximizatzeko eta bigarrenak minimizatzeko gai izan behar dugu, baita egunerokoan hura arrakastaz integratzeko ere, dagoeneko hemen dugun errealitatea baita. Horretarako, ahaleginak egin beharko dira, bai prestakuntzan, bai plangintzan, eta enpresetan, langileengan eta, oro har, herritarrengan dituen ondorioei adi egon beharko da.

Azaldutako guztia dela eta, komenigarria iruditzen zaigu enpresak sentsibilizatzen jarraitzea, beren tamaina edozein dela ere, beren egunerokoan I+G eta berrikuntza sartzeko, eta gizarteari eta gure enpresa-sareari orientazioa ematea,

agertzen diren aldaketa eta trantsizioen gobernantza-modurik onenari buruz, hartara nahi ez diren ondorioak saihesteko eta nahi diren ondorioak areagotzeko.

III. ENPLEGUA ETA LAN HARREMANAK

EAEko lan-merkatuan, COVID-19aren aurreko egoera 2022an errekueratu ondoren, 2023an bilakaera, orokorrean, positiboa izan da. Hala ere, okupazioaren igoera eta langabeziaren erorketa batera doaz beste aldagai batzuekin batera, baina aldagai horiek ez dute izan espero zen bilakaera.

Nabarmentzekoa da sektore publikoko behin-behinekotasuna, gorantz jarraitu duena. Beraz, anomalia hori zuzendu beharra dagoela azpimarratu nahi dugu.

Bestalde, eta enplegua hazi arren, kezkarria da EAEn dugun jarduera-tasa baxua, batez ere emakumeen artean. Izan ere, 2023an sortutako enplegu gehiena emakumeena izan den arren, lan-merkatuan izan duten partaidetza murriztu egin da.

Horrekin lotuta, eta nahiz eta genero-arrakalak murrizten egindako aurrerapenak positiboak izan diren, emakumeek lan-merkatuan dituzten desberdintasunak zuzentzeko lana sakondu eta ahalegina handitu behar dela uste dugu.

Enplegu-politika aktiboek jarraitu egin behar dute zailtasun gehien duten kolektiboak enpleguan sartu eta mantentzeko eta enplegua eskuratzeko aukerak hobetzeko ahaleginak indartzen, prestakuntza, orientazioa, motibazioa eta kontratazioaren sustapena tarteko.

Horretarako, enplegurako oro har eta, bereziki, laneratzeko eta enpleguari eusteko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzako partida publikoen garrantzia nabarmendu behar da, baita gizarte-babeseakoak ere, enpleguaren gaineko helburuak lortzen ez diren bitartean.

Azkenik, negozioazio kolektiboak 2023an izan dituen emaitza positiboak nabarmendu nahi ditugu. Izan ere, horiei esker, urtearen amaieran % 94,4ko estaldura lortu da, azken hamarkadako altuena, nahiz eta ez den lortu egoera horretan genero-arrakala murrizterik.

IV. BIZI-BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA

Bizi Baldintzak

Aurten ere, Euskadi oso posizio onean dago bizi-kalitatearen nazioarteko rankingetan (GGI), bai eta Europako AROPE tasaren hainbat eremutan eta Bizi-baldintzen Inkestaren adierazle (BBI) gehienetan ere.

Oro har, adierazi behar dugu, 2022ko Memorian bezala, azken urtean ere hobekuntza batzuk antzeman direla. Hala ere, adierazle jakin batzuen bilakaerak arriskuan jartzen du 2030 Agendaren helburu jakin batzuk betetzea. Izan ere, kontrako datuak ikusten ditugu gai garrantzitsuetan, eta horiei buruz atentzioa emango dugu. AROPE adierazleek, itzal batzuekin bada ere, agerian uzten dute 2023rako behera egin duela pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dagoen biztanleriak, eta, aldi berean, 2022ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI) aztertzen dituen aldagaien hobekuntza nabarmen du, eta hori, gainera, orokortu egiten da lurraldearen ikuspegitik, bi sexueta eta adin-talde guztietan. Bestalde, Bizi-baldintzen Inkestak (BBI) adierazten du 2023rako errenta pertsonala eta familiarra handitu egingo dela Euskadin.

Hala ere, beste aldagai garrantzitsu batzuek ere okerrera egin dute gurea bezalako gizarte bateko bizi-maila baloratzeko orduan, familien erdia baino gehiago “erabateko ongizatean” (PGDI) egongo bailirateke: BBIn adierazle batzuen kasua da, hala nola pobrezia energetikoak 2023an eragindako familien ehunekoa (problematika horrek % 12,6ri eragiten dio jada, 2021aren amaieran hasitako eta 2022an areagotutako energiaren garestitze nabarmeneko egoera batean), etxebizitza nagusiaren ordainketetan atzerapenak izan dituztenak (% 7,6) edo ustekabeko gastuei aurre egin ezin dietela adierazi dutenak (% 21,4). Era berean, PGDI inkestak ohartarazten du, hobekuntzaren testuinguru orokorraren barruan, pobrezia-egoerek eragin handia dutela migratzaileen kolektiboan eta emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familien artean.

Gure ustez, adierazle horiek guztiek jarraipen xehatua merezi dute, batez ere prezioen bilakaerarekin lotura zuzenena dutenek.

Bestalde, gogorazi nahi dugu, aurten ere, ezinbestekoa dela kontuan hartzea familia-tipologietan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak. Familiek botere publikoen lehentasunezko arreta behar dute; izan ere, tipologia desberdinak izan arren, gure gizartean beren zentralitatea mantentzen jarraitzen dute.

Eta, familia-politikei dagokienez, 2023an ahalegin publikoak izugarri handitu direla ikusi dugu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko aurreikusitako 149 milioi euroak gaintu dira (2022an 44,6 milioi euro gauzatu ziren), batez ere 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzako hileko 200 euroko prestazio berriaren ondorioz, eta guraso langileek seme-alaba adingabeen zaintzaileak kontratatzekeo laguntza berrien ondorioz.

Lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzearen adierazleei dagokienez, genero-arrakala pixkanaka murrizten ari dela ikusten den arren, kezkarria da oraindik ere emakumeek eta gizonek zaintza-lanetan ematen duten denboraren aldea, bai seme-alabena, bai mendeko pertsonena, kontziliazio-neurriei heltzeko garaian gizonek duten partaidetzaren datuen arabera.

Bestalde, ikusi dugu, kolektibo handi bati eragiten ez badio ere, bizitegi-bazterkeria errealitate bat ere badela gure gizartean, eta, gainera, 2012an eragindako bikoitza eragiten duela, eta kezkatzen gaitu pertsona horiek gizarte-babeseko sistemaren babesik gabe gera daitezkeela. Arazo horren aurrean emandako erantzun publikoei dagokienez, 2018-2021 aldirako Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren ebaluazioak, besteak beste, genero-ikuspegia aplikatzeko beharra (kolektibo horretako emakumeen kalteberatasun berezia dela eta) eta osasunaren, diru-sarreraren bermearren eta enplegurako sarbidearen eremuetan sektorekako hobekuntzak sustatzeko beharra nabarmendu ditu, gizarteratzeko funtsezko bitarteko gisa.

Era berean, 2024-2028 aldirako egindako estrategia berriak ahalmen betearazle eta lotesle handiagoa izan beharko du, eta behar adina baliabide izan beharko ditu arazo horri erantzuteko.

Amaitzeko, faltan botatzen dugu familia ugariak pobrezia buruzko tratamendu estatistiko espezifikoa izatea.

Gizarte Babesa

Apartatu honetan azaldutako datuek erakusten dute EAEko gizarte-babeseko sistemak bere estaldura mantentzen duela beste urte batez, Europako herrialde nagusien pareko mailetan. EAEko Gizarte Babesaren Kontuak erakusten du 2022an gizarte-babesera bideratutako baliabideen bolumenak gora egiten jarraitzen zuela. Era berean, EAEko gizarte-babeseko per capita gastua EBko eta Estatuko batez bestekoen gainetik zegoen, baina eurogunekoaren azpitik.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari dagokionez, gure ongizate-sistemaren tresna garrantzitsua baita, Eusko Jaurlaritzaren azken PGDIak (2022ko datuekin) baieztatzen du sistemak funtzionatzen duela, Euskadin pobrezia nabarmen murrizteko aukera ematen duen neurrian. Gainera, murrizketa hori 2020an % 33,3 izatetik 2022an % 45,3 izatera igaro da.

Espero dugu, gainera, DSBEaren inguruko azken arau-aldaketek antzemandako premiak hobeto kudeatzea ahalbidetuko dutela, eta orain arte estalduratik kanpo geratzen ziren problematika batzuk azaleratzen eta artatzen lagunduko dutela (PGDIk gogorarazten du sistema 2022an pobrezia-egoeren % 75,5era iristen zela).

Testuinguru horretan, oso positibotzat jotzen dugu 2023an araudian egindako aldaketek aurrekontuan izan duten goiera, eta espero dugu Inklusiorako V. Planean jasotako ekimenak abian jartzeak herritar guztien bizi-baldintzak hobetzen lagunduko duela.

Bestalde, 2023-2026 aldirako diseinatutako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko berriak, Gizarte Zerbitzuen Sistema baby boomaren belaunaldiaren zahartzeak dakarren inpaktura egokitzeko erronka duenak, ahalegin berezia egin beharko du, gure ustez, beharizanak dituzten kolektibo guztiak gizarteratzeko laguntza-sarea indartzen jarraitzeko, zahartzearen ondoriozko mendekotasun- edo bazterketa-egoeretatik harago. Adibidez, egoitza-bazterketako egoeran dauden pertsonak (kapitulu honen lehen atalean ikusi da horien arazoa) edo etorkinak.

Eta, Mendetasunaren Arretarako Sistemari dagokionez, Mendetasunaren Espainiako Behatokiaren txostenek nabarmentzen dute EAEk beste autonomia-erkidego batzuek baino garapen handiagoa duela, bai baloratutako pertsonen ehunekoari dagokionez, bai emandako prestazioei dagokienez; hala ere, modu progresiboan handitzen doazen itxaron-zerrendak antzeman dira, eta lehenbailehen konpondu behar da hori. Era berean, ahalik eta eskaera gehienak aztertzeke gomendatzen dugu, bai eta EAEn prestazioak jasotzeko eskubideen aitorten-tasa zergatik den Estatukoa baino baxuagoa, eta zergatik ematen den senideak zaintzeko prestazio ekonomiko gehiago.

Gizarte Segurantzaren pentsioei dagokienez, beste urte batez, Euskadiko saldo defizitarioak kezkatzen gaitu. Sistemaren jasangarritasunari eta ekitateari dagokienez, gogorazi nahi dugu berrikuntza-neurriek aplikazio-aldi bat behar dutela ondorioak egiaztatzeke, eta, beraz, jarraipena eta analisia egin behar direla, inpaktua eta planteatutako helburuetara egokitzen den egiaztatzeke.

Edozelan ere, 2023. urteak agerian utzi du, beste urte batez, gizarte-babeseko sistema sendoa izateak duen garrantzia, gure gizarteak bere gain hartu dituen erronkei, geroz eta premia handiagoei eta balizko erronka eta errealitate berriei aurre egiteko.

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza

Honako puntu hauei erreparatu behar zaiela deritzogu:

- Hezkuntzako beheko mailetako (Haur eta Lehen Hezkuntzako) matrikulazioan azken urteotako beheranzko joera mantendu da. Aitzitik, DBHn ia 1.798 ikasle gehiago egon ziren 2022-2023 ikasturtean, bat etorritz azken urteotan erregistratu den etengabeko igoerarekin; ondorioz, 20.000 ikasle gehiago daude 2007-2008 ikasturtetik.
- Azken hamabost urteotan Lanbide Heziketak izandako bilakaera nabarmenki goranzkoa da, baina igoera ez dago orekatuta gizonen eta emakumeen artean.
- Batxilergoan, emakumeen parte-hartzea gizonena baino pixka bat txikiagoa da Zientzia eta Teknologian (% 49,1 eta % 50,9, hurrenez hurren). Lanbide Heziketari dagokionez, STEM ikasketetan (*Science, Technology, Engineering and Mathematics*), emakumeen matrikulak guttizkoaren % 14,8 dira bakarrik (kasu hau nabarmentzen da: goi-mailako zikloa Informatika eta Komunikazioetan). Bestalde, unibertsitate-ikasketei dagokionez, unibertsitateko adar teknikoetan (Ingeniaritzan eta Arkitekturan) emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa da (% 28,8 eta % 71,2, hurrenez hurren); aitzitik, banaketa orekatuta dago Zientzietan (% 50,8 emakumeak dira eta % 49,2 gizonak).
- Kezkatuta gaude PISAtik ondorioztatzen diren emaitzengatik, irakurmenarekiko eta zientziekiko erakutsitako interesa dela-eta. Alderdi horien gaineko jarraipen xehatuagoa egin beharko litzateke ondorio bat ateratzeko eta erabaki egokiak hartzeko; izan ere, EAEren batezbestekoa Estatukoa baino 8 puntu txikiagoa da eta ELGAkoa baino 10 puntu txikiagoa, eta beheranzko joera dago aurreko urteekin alderatuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoa nabarmentzen da goi-mailako hezkuntzako eskolatze-tasa EB27 esparruko tasa baino 20 puntu handiagoa izateagatik (honako hauetan daude tasa txikiak: Luxenburgo, Danimarka, Suedia, Finlandia eta Alemania), bai eta goi-mailako ikasketetan tituludun diren gazteen ehuneko oso altua izateagatik ere.

Kultura

Atsegin handiz egiaztatu dugu beren jarduera ekonomiko nagusi gisa kultura-jarduera duten enpresen kopuruak eta horiek sortutako enpleguak gora egiten jarraitzen dutela, baina hobetzeko tartea dagoela uste dugu, gure erkidegoa kultura-enplegu gehien sortzen duten autonomia-erkidegoen rankingean laugarren postuan baitago.

Hala eta guztiz ere, harrigarria da 2021ean EAEko etxeek izan zutela per capita errenta eskuragarri handiena (Estatuko batez bestekoa baino % 26,6 handiagoa izan zen) eta beherantz goazela etxe eta pertsona bakoitzak kulturean egindako gastuari dagokionez. Horiek horrela, etxe bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE hamahirugarren postuan kokatzen da autonomia-erkidegoen rankingean. Pertsona bakoitzeko batez besteko gastua, berriz, hamabigarren postuan.

Azkenik, pozgarria da ikustea 2011tik 2021era bitarteko hamarkadan 6,5 ehuneko-puntu jaitsi dela 2 urtetik gorakoen ia-euskaldunen kopurua eta, ondorioz, euskaldunen kopurua 6,1 ehuneko-puntu igo dela.

INGURUNE NATURALA ETA ENERGIA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak positiboki baloratzen ditu garapen ekonomiko, jasangarri, adimentsu eta arduratsua sustatzen duten ekintza eta politika publikoak; eta, testuinguru horretan, adierazi dugun bezala, beharrezkotzat jotzen du eragile guztiak (gizartea, enpresak eta administrazioak) sentsibilizatzen jarraitzea, etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea arriskuan jartzen ez duten bizi-ohituren alde, hots, berotegi-efektuko gasak gutxitzea, hondakinak gutxitzea, baliabide naturalen eta energetikoen kontsumo arduratsua eta abar bultzatzen duten ohituren alde.

Murgilduta gauden trantsizio ekologiko-energetikoan funtsezkoa da energia-eredua aldatzea, erregai fosilen erabilera pixkanaka minimizatzeke, ekoizpen-eredua aldatzea, ekoizpen garbiantza eragiteko, eta norbanakoen kontsumo-, erabilera- eta birziklapen-jarraibideak aldatzea. Gure iritziz, balantze orekatua lortu behar da trantsizio horien erritmoen eta enpleguak jasango dituen ondorioen artean.

Era berean, ikusten dugu beharrezkoa dela EAEn energia berriztagarrien ekoizpena areagotzea, ingurumen-arloan ez ezik, maila ekonomikoan eta energia-mendetasun handiaren aringarri gisa ere abantailak dituelako. Gure ustez, politika horrek nabarmen hobetu behar du pertsonen bizitza; haien bizi-kalitatea hobetu, eta herritarren eta enpresen energia-fakturaren kostua murriztu behar du. Hori horrela bada, komenigarria izango litzateke abantaila horiek azaltzea eta herritarrek, enpresak eta administrazioak kontzientziatzeko lana egitea, lurraldean energia berriztagarrien azpiegiturak eta proiektuak instalatzeko beharrez jabetu daitezela, bai eta horrek dakartzan kostuez ere, horien ingurumen- inpaktuaren alde aurreko azterketa eta nahitaezko kontrola alde batera utzi gabe.

OSASUN ETA OSASUN SISTEMA

Oro har, EAEko biztanleriak osasun oneko adierazleak ditu, eta hobetuz doaz (bizi-itxaropen handiak, gero eta bizi-itxaropen handiagoak osasun onean, hilkortasun-tasa txikiagoak...), baina, aldi berean, gero eta zaharrago hiltzen dira pertsonak, horrek morbiditatearen eta mendekotasunaren aldetik osasun-arretaren egituraren dakartzan ondorioekin, batez ere lehen mailako arretan.

Osasun-laguntzaren eskaria handia da, eta espezialitate jakin batzuetan okupazio-indizea % 100etik gorakoa da; aldi berean, kanpo-konsultetako itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta, horren ondorioz, biztanleriaren % 62,9k hilabete baino gehiago itxaroten du arreta jasotzeko. Ondorioz, atzerapenak murrizteko bultzada bat behar da, eta, horretarako, ahalegin handia egin behar da, bai ekonomikoki, bai sistemaren barne-antolaketa dagokionez, bai plantillak indartzeari dagokionez.

Datuak ikusita, egokia dirudi behar adina langile eta prebentzio-mekanismoak izatea. Testuinguru horretan, funtsezkoa da Osakidetza plantillan plazak hornitzeko estrategia bati ekitea, hobekuntza zientifiko-teknologikoak xertatzea, eta pazienteek parte hartzea lortzea, beren osasunaren arduraren duten pertsona gisa.

Langileei dagokienez, bereziki kezkatzen gaitu azken urteetan lehen mailako arretako medikuen kopuruak behera egin izanak, pazienteek haien bitartez izaten baitute lehen kontaktua osasun-sistemarekin, eta eremu horretan medikuak falta izateak sistema osoan izan dezake eragina.

Osasun mentaleko arazoekin lotutako egoera azpimarratu nahi dugu. Izan ere, nahasmendu mentalen eta portaeraren nahasmenduen prebalentziak gora egin du, eta 2019an erregistratutako ratioaren gainetik dago. Esan dugun bezala, pandemiak azkenaldian larriagotzen ari zen arazo bat azaleratzen lagundu du, eta, horri esker, gizarteak bestelako ikuspegia izan dezake horrelako arazoei buruz. Horregatik, positiboki baloratzen dugu osasun mentaleko estrategia berria —adikzioen prebentzioari eta tratamenduari buruzko ildo bat barne hartu beharko luke—. Gainera, gogorarazten dugu garrantzitsua dela arlo horretako adierazleen prebentziozko jarraipena egitea, eta, bereziki, suizidioek eta autolesioek

eragindako hilkortasun goiztiarraren prebentziozko jarraipena egitea, bai eta behar adina giza baliabide eta baliabide tekniko izatea ere.

Aldi berean, osasunean eragina duten determinatzaile ez-medikoen azterketak agerian uzten duenez, EAE normopisua duten biztanleen ehuneko handiena duten autonomia-erkidegoen artean dago, baina baita gainpisua dutenen ehuneko handiena dutenen artean ere; horrek agerian uzten du herritarrak osasungarriak diren ohituren garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko beharra, batez ere haurtzaroan eta nerabezeroan.

Horiek horrela, langile nahikoak eta prebentzio-mekanismoak izatea beharrezkoa da, eta, testuinguru horretan, funtsezkoak dira hobekuntza zientifiko-teknologikoak eta horien aplikazioa, bai eta pazienteen partaidetza ere, beren osasunaren ardura duten pertsona gisa.

Beraz, komenigarria izango litzateke herritarrek osasun publikoarekin duten konpromiso maila handitzea, pazienteak ahalduz beren osasunaren kudeaketaren subjektu aktibo gisa, eta baliabideetan sakontzea, hala nola teknologia berriak sartzeari (e-osasuna), besteak beste, sistemak eraginkortasunez funtzionatzeko modua izan dezan. Ildo horretan, arreta berezia jarri behar da arrakala digitalak kolektibo jakin batzuei eragiten dizkien ondorio negatiboetan, teknologia berrietan gaitasun gutxien duten pertsonen osasun-sistema eskuragarri izan dezaten eragozteko saihestuz.

Kontseilu honek adierazi duenez, osasun-arloko gastu publikoa ez da alde batera utzi behar, ezta baliabideen optimizazioa ere. EAEko osasun sistemaren etorkizuneko jasangarritasuna gizarte osoa kezkatzen duen balio partekatu bat da.

Euskadiko Osasun Planari (2030) dagokionez, esan behar dugu bitarteko bi ebaluazio egiteko aukera dagoela, bat egin beharrean, gai garrantzitsua dela kontuan hartuta. Horri esker, beharrezkoa balitz, zuzenketa-neurriak azkarrago txertatu ahal izango lirateke, adierazle bilakaera planaren helburuak lortzeko egokia ez den eremuetan.

ETXEBIZITZA

Kapitulu honetan aztertu ditugun etxebizitza-merkatuari buruzko datu nagusien arabera, 2020an COVIDak sortu zuen inpaktutik 2022an ia-ia osorik erreperatu eta gero, badirudi 2023an higiezinaren merkatua nolabait geratu egin dela. Etxebizitzaren salerosketek eta eraikuntzek jaitsierak izan dituzte aurreko urtearekin alderatuta, eta eskaria egonkor mantendu da. Prezioek, aldiz, igotzen jarraitzen dute.

Alokairuko etxebizitza gutxiegi eskaintzen dira oraindik ere, bai arlo pribatuan, bai publikoan ere. Gainera, alokairu pribatuen errentak oraindik ere altuegiak dira eskatzaileen ordainketa-gaitasunarekin alderatuta, eta horregatik, herritar askorentzat zaila da alokairuak eskuratzea. Horrek kolektibo zabaletan izan dezakeen eragina kezagarria da guretzat, hala nola gazteen artean eta baliabide gutxien dituzten pertsonen artean.

Testuinguru horren aurrean, EGABetik etxebizitza-politikak behar bezala garatzearen eta gauzatzearen garrantzia nabarmentzen dugu. Horri lotuta, gure ustez positiboa da 2021-2023 urteetarako plan zuzentzailea; 2021eko bilakaera ona izan du. Halaber, EAEko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala tresna estrategikoa eta egiturazkoa da, eta eragile publikoek eta pribatuek konpromisoa hartzen dute 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean modu koordinatuan aurrera egiteko.

Plangintzari dagokionez, ados gaude alokairu arazoizkoak eta birgaitzeak sustatzeko egindako apustuarekin eta etxebizitzak eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzako babestutako etxebizitza-eskaintza handitzearekin. Modu horretan, gazteak emantzipatzen lagundu daiteke, eta emantzipatzea bereziki garrantzitsua da bizi-proiektuetarako.

Era berean, uste dugu birgaitzeen arloan oso garrantzitsua dela Next Funtsen baliabideak eskuratzea, hala, laguntza-programak garatu eta betetzeko eta eraikuntzen birgaitzea eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko, eta horien artean, baita eraikuntza ere.